

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
**HAURREN ETA GAZTEEN
ABESBATZEI**
BURUZKO TXOSTENA



EUSKAL HERRIKO
ABESBATZEN ELKARTEA
CONFEDERACION DE COROS
DEL PAIS VASCO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

2023

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
HAURREN ETA GAZTEEN ABESBATZEI
BURUZKO TXOSTENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURREN ETA GAZTEEN ABESBATZEI BURUZKO TXOSTENA

Nuria S. Fernández Herranz
Marta García Rodríguez

2023ko urria

Lehen argitaraldia, 2024ko apirilak 30
Ale kopurua: 250 ale

© argitalpena: Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea
© testuak: Marta García Rodríguez & Nuria Fernández Herranz
© eranskinak: egile batzuk
© itzulpena: Amaia Garmendia

Barnekoaren diseinu eta maketazioa: Itziar Olaberria
Koordinatzailea: David Azurza

ISBN: 978-84-09-61215-4
L.G.: D 00416-2024

Inprimatzea: Guccia Impresores

Euskal Herriko Abesbatzen eskerrak eman nahi dizkie txosten hau diseinatzen eta garatzen lagundu duten pertsona, erakunde eta entitate guztiei. Lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko haurren eta gazteen abesbatzen errealitateari buruzko hausnarketak eta ekarpenak partekatzeko beren burua eskaini duten guztiei, bai programazioaren eta kudeaketaren ikuspegitik, bai abesbatza-taldeen zuzendaritzatik: Iñigo Alberdi, Joxean Llorente, Pello Leñena, Borja Pujol, Mikel Mate, Carlos Benito, Cesidio Niño, German Ormazabal, Santos Sarasola, Aitor Biain, Esteban Urzelai, Maddalen Dorronsoro, Basilio Astúlez, Klara Mendizabal eta Leticia Vergara, Javier Busto, Imanol Elizasu, Aitor Sáez de Cortázar, Nora Chena, Julia Foruria, Maite Oca, Gorka Miranda, Enrique Azurza,

Txaber Fernández eta Mertxe Astuy; baita Patrick Alfayari hitzaurrea idazteagatik. Eskerrik asko, halaber, Jon Ibarzabal eta Maddi Asenjo, datuen prospekzioan eta haurren eta gazteen abesbatzen eroldaren sorkuntzan eta jarraipenean egindako lanagatik, bai eta Jokin Babaze, esparru juridikoari egindako ekarpenengatik ere. Bestalde, eskerrak eman nahi dizkiegu “Pasaia Musikal” Pasaiaiko Musika Fundazio Publiko Eskolari, Easo Abesbatzari eta Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioari, bilerak egiteko haien instalazioak eta materiala uzteagatik. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari eta Hezkuntza Sailari txosten honen sustatzaile eta laguntzaile zuzen izateagatik.

Korurako musika euskal kultura belaunaldiz belaunaldi kontserbatzeko eta transmititzeko oso bitarteko garrantzitsua izan da. Baina, zalantzarik gabeko balio horretatik haratago, haurrei eta gazteei zuzendutako koru-jarduerak onura handiak dakartza haien garapenean, maila fisikoan, kognitiboan, emozionalean eta sozialean.

Musika koraleko datuak bilduz eta zuzendariei eta adituei elkarrizketa ugari eginez osatu den azterlan honek sektorearen egungo egoerari eta erronkei buruzko ikuspegi zehatza eskaintzen du. Baina datuen azalpen hutsa izan beharrean, horien azterketari esker, lanerako posible zitezkeen bide interesgarri eta errealistak proposatu ahal izan ditugu.

Erakundeen eragina funtsezkoa da gizarte bat garatzeko moduan. Horregatik, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartean espero dugu Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak tresna baliotsu hau erabiltzen jakingo duela euskal musika korala-
ren sustapena eta garapena bultzatuko duten jarduera-ildoak definitzeko, horrela, gizarte osasuntsu eta kulturalki ahaldundua lortzen lagunduz.

Eva Ugalde

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko lehendakaria
Donostian, 2023ko urriaren 7an

EDUKIEN AURKIBIDEA

EUSKAL HERRIKO ABESBATZEN MUNDUARI BURUZKO GOGOETA BATZUK - Patrick Alfaya	13
SARRERA	17
Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen aurkezpena	18
Ikerketaren justifikazioa	19
Ikerketaren plan orokorra	22
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAURREN ETA GAZTEENABESBATZEN ERROLDA	
Datuak aztertzeke metodologia	23
Prospekzioarako eremuen deskribapena	23
1. multzoa. Datu estatistiko orokorrak	23
2. multzoa. Alderdi dinamikoak eta eskumenak	24
3. multzoa. Zuzendaritzaren profila	24
4. multzoa. Egitura eta antolaketa	25
Emaitzen azalpena, analisisa eta balorazioa	25
1. multzoa. Datu estatistiko orokorrak	26
2. multzoa. Alderdi dinamikoak eta eskumenak	24
3. multzoa. Zuzendaritzaren profila	24
4. multzoa. Egitura eta antolaketa	25
KORU-KANTUARI ETA ELKARTE-MUGIMENDUARI BURUZKO AZTERLANAK	
Euskal abesbatzen mugimendua kultur elementu bereizgarri gisa	55
Aipamen historiko laburra	55
Kantu korala eta gizartea	56
Koru-kantuaren onurak haur eta gazteen etapan	57

IBILBIDE-ORRI BATEN PROPOSAMENA

Jarduera-plana	61
Proiektuak	62
Erreferentziazko Esparru profesionala eta Lan-Esparrua	62
Euskal Koru Erreferentzialaren Estatutua	65
Plan estrategikoa	67
Formakuntza- eta orientazio-plana	67
Dinamizazio-plana	73
IKTen komunikazio- eta garapen-plan integrala	77

ERANSKINAK

I. eranskina. Elkarrizketak eta hausnarketak	82
Kultur programazioetako eta musika eta korua kudeatzeko profesionalak	83
Haur eta gazteentzako abesbatza-zuzendaritzako profesionalak	98
II. eranskina. Zentsu-datuak aztertze erabilitako taulak	119
BIBLIOGRAFIA	123

TAULA ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. multzoa. Estatistika-datu orokorrak	
Erroldatutako abesbatzen profila	26
Abesbatzen federazioen noranoikoa	28
Ikastetxeak (probintziaka)	29
EAEko ikastetxeak	30
Araubide bereziko ikastetxe arautuak (kontserbatorioak)	31
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak (musika-eskolak)	32
EAEko musika-eskolak	34
2. multzoa. Alderdi dinamikoak eta eskumenekoak	
EAEko koralisten kopurua (sexuaren eta adinaren arabera)	34
Errepretorio mota (ahotsak)	39
Errepretorio mota (akonpainamendua)	40
Abesbatzen jarduera (kopurua, kokapena eta kudeaketa-mota, 2022)	41
3. multzoa. Zuzendaritzaren profila	
Profesionalen kopurua eta formakuntza mota	46
Zuzendarien lan-araubidea	47
4. Multzoa. Egitura eta antolaketa	
Entsegu-lokal edo -gela mota	48
Matrikulazio-araubidea	49
Abesbatzei lotutako profesionalak	50
Lotutako profesionalak dituzten abesbatzen kopurua	51
Abesbatzen finantzaketa	52

EUSKAL HERRIKO ABESBATZEN MUNDUARI BURUZKO GOGOETA BATZUK

Abesbatzen mundua Euskadin dagoen musika-adierazpenik garrantzitsuena da. Euskal Herrian hainbat orkestra, kontserbatorio, musika-eskola, jaialdi, elkarte filarmoniko, operadenboraldi eta errepertorio klasikoa jorratzen duen hainbat musika-ziklo dago. Horietako bati ere garrantzirik kendu gabe, aipagarriena, eta Euskadi nazioarteko musikaren esparruan modu iraunkorrean ezagutarazi dezakeen bakarra, argi dago abesbatzak direla. Euskal abesbatzak fenomeno ia bakarra dira European, eta aipatu ditudan gainerako musika-erakundeek, aldiz, Europako herrialde guztietan dituzte antzekoak, eta horietako askotan finantziario eta historia handiagoarekin.

Euskal abesbatzen fenomenoa gertakari berezia da, musikaren munduan kultur politikak programatzerakoan aztertu eta kontuan hartzea merezi duena. Hainbat alderdik egiten dute berezi fenomeno hau:

- Eskoletako hezkuntza arautuari lotuta ez dagoen herri-oinarria. Deigarria da abesbatza hauek oinarria formakuntza ofizialean ez izatea.
- Talde koral ez-profesionalak dira, eta, beraz, kide kantariak ez dute inola ere parte hartzeagatik kobratzen, maila profesionalean bada ere, eta, hala eta guztiz, haien buru-belarri aritzea eta profesionaltasuna goraipagarriak dira.

- Euskadiko abesbatzen munduaren erresilentzia eta iraunkortasuna harrigarria da. Hainbat koru XX. mendearen lehen erdialdean sortua da, eta beste hainbat, baita XIX. mendean ere. Hori horrela, tradizioaz eta transmisioaz hitz egin dezakegu.
- Gizarte-ehunaren inbrikazio nabarmena (Euskadin ia biztanle guztiek dute senide edo ezagun bat, abesbatzen munduan parte hartzen duena edo hartu izan duena), eta horrek, zalantzarik gabe, errealtate kultural gisa bizi izaten lagundu du.
- Hedapen geografikoa eta abesbatzen munduan borondatez inplikatzeko diren gizabanakoen kopurua; konpromisomaila oso desberdinekin, baina inplikaturako jende asko.

Hala ere, euskal abesbatzen munduaren oraina eta etorkizuna aztertuz, zailtasunak antzematen dira, eta, etorkizun hurbilean, arazo handiagoak; horientatik uste dut unea dela, gutxienez, arazo hurbilenak konpontzeko eta etorkizunekoak ahal den neurrian prebenitzeko.

Honako hauek dira berehalako arazoak:

- Gero eta jende gutxiagok du interesa musika klasikoan. Hau, errepertorio koralean funtsezkoa izateaz gain, koruek alde batera utziko balute, ziurrenik ezinezkoa izango litzateke kalitate maila onena lortzea. Herri-musikak paper garrantzitsua

jokatu du eta jokutzen du koru-errepertorioan, baina ezin du ordezkatu eta ez du inola ere ordezkatu behar, errepertorio klasikoa; biak elkarrekin bizi izan dira hamarkadetan zehar eta horretan jarraitu behar dute.

- Gazteak, hau da, etorkizuneko harrobia, gero eta urrunago daude abesbatzen mundutik. Lagunak egiteko eta gizarte-ingurunean sakonago integratzeko modu bat izan zitekeena, dagoeneko ez da; are gehiago, kasu batzuetan, lagun-taldeetan, koadriletan, koralista “xomorro arraroa” da, ez da jada “guay” abesbatza batean egotea.
- Koru-jarduerarik eza. Alde batetik, gizarteak gero eta gutxiago estimatzen du musika korala, eta horrek, mota desberdinetako ekitaldietan parte hartzeko abesbatzei gero eta gutxiago deitzea dakar. Bestalde, maila artistiko nabarmenean lan egiteko aukera gutxi dago mundu profesionalean.
- Zoritxarrez, gizarteak eta gizartea osatzen dugunok berehalakotasunean bizi nahi dugu. Horrek esan nahi du, alde batetik, berehalako emaitzak nahi ditugula, eta, bestetik, erabat jabetu gabe, kontzentrazio-uneak oso laburrak izatea bilatzen dugula, eta, aldi berean, ahaleginik egin gabe iristen zaizkigun etengabeko estimulu igarokorrak bilatzen ditugula. Horren guztiaren epitomea telefono mugikorra da, era guztietako distrakzio iragankorrak eskaintzen dizkiguna, infinituraino aldakorrak, eta hori guztia inolako ahaleginik gabe. Eta hori abesbatza ez-profesional baten parte izateak suposatzen duenarekin guztiz kontrakoa da: ahalegina, progresio geldoa, obra bat hilabetetan zehar zehatz-mehatz eta behin eta berriz errepasatzea... Eta guztia ordainsaririk gabe.

Ez naiz hasiko koru baten parte izatea zein positiboa den zerrendatzen, bistakoa baita: ahalegina, diziplina, ikasketa, kontzentrazio-ariketa, talde-lana, gaitasunen garapena (erritmoa, irudimena, etab.) eta beste ezaugarri asko oso balio

positiboak dira edozein gizabanakorentzat eta garatzen den gizartearentzat.

Gure inguruan abesbatzen fenomeno indartzeko zer egin dezakegun da garrantzitsua.

Abesbatzen munduak bere jatorriari itsatsita jarraitu behar du eta, horregatik, ez da inolaz ere profesionalizatu behar. Abesbatzek gutxiengo egitura profesionala eduki behar dute bai maila administratiboan nola zuzendaritza nahiz formazio artistikokoan, baina haratago joatea suizidioa litzateke.

Gazteek berriro ere abesbatzetan parte hartu nahi izatea sustatzeko mekanismoak bilatu behar dira. Hori lortzeko moduak izan daitezke, esaterako, abesbatza gazteei jendaurreko emanaldietan presentzia handiagoa ematea –batez ere garrantzi soziala badute, ekitaldi ofizialetan, adibidez– edo ikastetxeetan irakasleek abesbatzen munduarekiko sentsibilitatea izatea bilatzea.

Oro har, bi alderdi nagusi jorratu behar dira. Alde batetik, nola hobetu koruen kalitate artistikoa; bestetik, euskal korua kalitatearen sinonimo bihurtzea berriro, ez izateari utzi diolako, baizik eta, zalantzarik gabe, inpresio eta ospe lausengu hori aspaldiko galbide izaten hasi direlako. Bi alderdi horiek “kalitatean” eta “markan” laburbildu daitezke.

Kalitatea hobetzeko, lan ona sustatu behar da, eta laguntza-sistemak kontuan hartuta hori oso konplexua da. Baina funtsezkoa da kalitatea aldizka ebaluatzeko moduak bilatzea, kalitatea hobetzen joan dadin. Pizgarriak ez dute soilik ekonomikoak izan behar –asmoa da diruak proiektuan hobekuntzak finantzatzeko balio izatea–, baizik eta abesbatza nabarmenenak proiektu handinahiagoetarako programatzea sustatuz egin daitezke.

Euskal abesbatzen markari dagokionez, kalitate hori finantzaketarekin saritu beharko litzateke, abesbatzek proiektu sinfoniko-koraletan Euskaditik kanpoko orkestrekin lan egin dezaten errazteko. Tokiko programatzaileek (orkestrak, jaialdiak, sustatzaileak, etab.) onenak programa-

tzen badituzte eta abesbatzekin batera lan egiten badute gero eta programa zailagoak jorratzeko, berriro ere arreta erakarri ahal izango dugu. Ildo horretan, interesgarria litzateke nazioartean ere bira dezaketen ekoizpen eszeniko-koralak sustatzea (orkestrarekin eta gabe).

Uste baino gehiago irabaziko dugu guztiok euskal abesbatzen sektorea suspertzea lortzen badugu.

Patrick Alfaya

Donostiako Musika Hamabostaldiko zuzendari artistikoa
Donostia, 2023ko urtarrila

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek sustatu eta 2022ko urriaren 21ean Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak enkargatutako “Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazteen abesbatzei buruzko txostenak” honako hau du xede: Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazteen abesbatza-mugimenduaren errealitatearen balorazio kuantitatibo eta kualitatiboa eskaintzea; bai eta euskal lurraldean abesbatza-dinamika berregituratzeko eta sustatzeko proposamen orokorrak eta neurri zehatzak bilduko dituen ibilbide-orri bat sortzea.

Bere diseinuan, alde batetik, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko hiru ordezkariak parte hartu dute: Eva Ugalde (lehendakaria), David Azurza (idazkari teknikoa) eta Gorka Miranda (batzordekidea). Haien arduratu dira datuak biltzeko taulak diseinatzeko eta ibilbide-orri baten proposamena garatzeko jarraibideak ezartzeaz, eta kudeaketako eta zuzendaritza koprofesionalekin harremanetan jartzeaz ere, I. Eranskinean hausnarketak egiteko. Bestalde, profil akademiko eta zientifikoa duten kanpoko bi profesional izan dira: Nuria Fernández-Herranz doktorea, abesbatzako irakaslea eta zuzendaria, koru-kantuari eta gizarteari buruzko azterlanak egiteaz arduratu dena, baita 3. eta 4. multzoetako datuak aztertzeaz ere; eta Marta García Rodríguez doktorea, humanitateen arloko irakasle eta ikertzailea eta musika dibulgazioan aditua,

txostenaren koordinazio eta gainbegiratze orokorra, eroldaren kudeaketa orokorra, 1. eta 2. multzoetako datuen analisia eta justifikazioaren eta ibilbide-orriaren proposamena idazketa lanak egin dituen.

Ibilbide-orriaren jasotako proiektuen garapena eta azalpena (ikus: Ibilbide-orri baten proposamena, 61. or.) bost bileratan zehaztu ziren 2023ko lehen lauhilekoan. Bilera horietan aktiboki parte hartu zuten Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko hiru ordezkariak (Eva Ugalde, David Azurza eta Gorka Miranda) eta Marta García Rodríguez doktoreak.

Datuen prospekzioa 2022ko urrian hasi zen eta 2023ko uztaietan itxi zen. Aurretiatzko txostenaren aurkezpena Eusko Jaurlaritzaren Gas-teizko egoitzan egin zen 2023ko ekainaren 6an, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteko ordezkari horien, Marta García Rodríguez doktorearen, Aitziber Atorrasagasti Kultura Sustatzeko zuzendariaren eta Imanol Arana Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikariaren arteko bilera batean.

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen (EAE) aurkezpena

Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek (EAE) Euskal Herriko hainbat koru-federazio biltzen ditu: Bizkaiko Abesbatzen Federazioa (BAE), Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa (GAF), Arabako Abesbatzen Federazioa (AAE), Araba-txo (Arabako Haur Abesbatzen Federazioa) eta Iparraldeko Abesbatzen Federazioa (IAE).

Lurralde-federazio bakoitzaren eremua gainditzen duten jarduerak hartzen ditu bere gain EAEk, eta aholkularitza- eta orientazio-zerbitzuak eskaintzen dizkie beren bizitza koralarari eta instituzionalari buruzko aspektu guztietan. Era berean, bere kideak ordezkatzeko goi-mailako instantzien aurrean, eta loturak eta tresnak garatzen ditu Euskal Herrian koru-jarduera garatzeko, sustatzeko eta hedaltzeko.

1984an eratu zen, eta Eusko Jaurlaritzak onura publikoko elkarte gisa aitortu zuen EAE 2004ko otsailean.

Sortu zenetik, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek koru-kantuari dagokionean formatzeko, dinamizatze eta hedaltzeko jarduera ugari garatu ditu. Jarduera horietatik Euskal Herriko hainbat abeslarik eta zuzendarik etekina atera ahal izan dute, eta horiei esker euskal abesbatza aberastu eta indartu egin da, kulturaren eta identitatearen sinbolo gisa.

Gaur egun, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek honako jarduera eta ikastaro hauek kudeatzen eta dinamizatzen ditu aldian-aldian.

Koru-Zuzendaritzako Akademia

1982an sortu zen Koru-Zuzendaritzako Akademia, musika-eskoletako eta kontserbatorioetako musika-irakaskuntza arautuetan koru-zuzendaritzako formazioan dauden gabeziei erantzuteko. Koru-zuzendaritzako ikastaro zaharrenetako bat da Espainia mailan, 40 urte baino

gehiagoko ibilbideagatik eta koruen munduan aitortzen zaion kalitateagatik bermatua. Hainbat formazio-maila eskaintzen ditu, hasierako mailatik hobekuntza-mailara. Koruko egungo profesional hoberekin egiten du lan, nazionalak zein kanpokoak izan.

Formakuntza intentsiboko eredu bati jarraituz, ikasleek 6 egun jarraian jasotzen dituzte koruko zuzendaritzako eskola espezifikoak, ahots-tekNIKAKO banakako saioak eta bateratuak, eta eza-gutzak eskuratzen eta, hedaduraz, zuzendaritza hobetzen laguntzen duten gaiei buruzko berriazko hitzaldiak.

Euskal Herriko Gazte Abesbatza (EHGA)

2016an sortu zen Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek bultzatuta, Euskal Herriko ahots gazte hoberenetatik aukeratutako 40 kideekin.

Euskal Herriko Gazte Abesbatzak sarrera-proba zorrotzak egiten ditu, eta horietan aldez aurreko koru-esperientzia handia eskatzen du, soinu-kalitate handiko ahotsak eta musika-irakurketa maila handia. Horrela, oso maila eta eskakizun handiko abesbatza-talde bat eratzten da, sektoreko profesional onenek gidatuta. Kalitate handiko oinarri gaztea sortzearen, hazteko, sakontzeko eta koru-formakuntza espezifikorako aukerak ematen zaizkio talde horri, abeslarien naiz euskal zuzendari berrien gaitasunak garatzeko asmoz; horrela, etorkizunean Euskal Autonomia Erkidegoan abesbatza-proiektu berrien alde egingo dute, eta abesbatza-ekimen profesionalak ere sortu ahal izango dituzte. Kontzertuak eman ditu nazioko eta nazioarteko agertokirik hoberenetan, hainbat sari lortuz. Horrez gain, euskal enbaxadore gisa parte hartu du hainbat ekitaldi eta jaialditan, hala nola Abesbatza Kantuaren Europako Sari Nagusian.

Haur Abesbatzen Pedagogia eta Dinamizazio Ikastaroa

Elkarte honek bultzatuta 2002. urtean abian jarri zen Haur Abesbatzen Pedagogia eta Dinamizazio Ikastaroaren helburu nagusia ahots, didaktika eta pedagogia mailako baliabideak eskaintzea da, batez ere haur-abiesbatzen zuzendariei zuzendutakoak, beren gaitasunak garatu eta kantari txikien formatzaile gisa dituzten trebetasunak aberastu ahal ditzaten.

Korurako musikaren argitalpenak

Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak hasiera-hasieratik ohartu da euskal abesbatzen ekoizpenaren aberastasunaz, eta inoiz argitaratu gabeko erreperorioaren argitalpenak gauzatu ditu, bai eta haur-abiesbatzetarako eta abesbatza mistoetarako euskal lan hobereen bilduma antologiakoak ere. Berrienak aipatzearen, Errenazimendutik gaur egunera arte euskal ondare koralararen aberastasunaren eta aniztasunaren erakusgarri diren euskal musika koraleko 50 musika-lanak jasotzen dituen *Ahairs* bilduma aurkeztu zuen 2017an Bartzelonan ospatu zen World Choral Symposium on Choral Music-en (Musika Koralarari buruzko Munduko Abesbatza-Sinposioa),. Laster, Pablo Sorozabalen abesbatza-lanaren bilduma bikaina aterako dugu. Paradoxikoa badi-rudi ere, euskal konpositore ospetsuenetako bat bada ere, lan horietako gehienak ezezagunak dira edo euskal abesbatzek oso gutxi interpretatzen dituzte.

Erreferentziazko Proiektu Koraletarako Laguntzak

2018an sortu ziren, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatuta, eta hasieratik Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak kudeatu ditu. Musikaren aldetik antolatze gaitasuna eta interpretazio-kalitate nabarmena erakutsi duten abesbatzen

egiturak sendotzera eta indartzera bideratuak daude.

Gure ustez, pertsonalismoetatik urrun eta interpreteen nola zuzendaritza-talde musikalen maila guztiz profesionalizatua duten egitura sendoak noizbait eduki ahal izateko alde aurreko urratsa da.

Gainera, erakundeekin harreman sendoagoak eta zuzenagoak ezartzeko balio duen organo gisa Abesbatzen Elkartearen zeregina osatu egiten dute laguntza horiek, zerbitzu bat eskainiz, eta, aldi berean, musika-maila handieneko taldeei abesbatzen federazioko kide direla sentiaraziz.



Hala ere, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak ia 40 urte daramatza Euskal Herriko abesbatzen alde lanean, zuzendariei formazioa eta material berria eskaintzen, topaketak eta elkartrukeak antolatzen eta programatzaileen eta abesbatzen artean bitartekari lanak egiten, oinarritzko abesbatzak dinamizatzeko. Txosten honen bidez, halaber, euskal abesbatzen mugimenduaren esparruan ikerketarako bide bat ireki nahi da, zehazkiago, haur eta gazteen etapari dagokionean.

Ikerketaren justifikazioa

Euskal abesbatzen mugimendua, bai orfeoi-eremuari dagokionez, nola koru-elkarteei dagokionez, modu egonkor eta iraunkorrean garatu da XIX. mendearen bigarren erdialdean hasi zene-tik. Horri esker, euskal abesbatzen sarea indartu eta handitu egin da, eta kantari aktiboen kopurua biderkatu (ikus: Euskal abesbatzen mugimendua kultura-elementu bereizgarri gisa, 55. or.). Duten egitura dela eta, abesbatzak denbora luzez iraun ohi dute: horren adibide ezagunak

eta paradigmaticoak dira, besteak beste, Bilbo-ko Koral Elkarte (1886an sortua), Donostia-ko Orfeoia (1897an sortua), Bergarako Orfeoia (1923an sortua) eta Easo Abesbatza (1940an sortua), guztiak gaur egun aktibo dirautenak. Bultzada historiko hori posible izan da, besteak beste, erakunde publikoen eta abesbatzen arteko lankidetzaren estuari esker.

Hala eta guztiz ere, eta gure lurraldean betidanik koru-kantua kulturaren errotuta egon bada ere, azken urteotan koru-zuzendaritzako eta musika-pedagogiako hainbat eragile kultural eta profesionalek atzerapausoa eragin dute euskal koru-ehunaren garapenean, batez ere haur eta gazteei dagokienez, eta hori agerian geratzen da kideen kopuruaren beherakada orokorrean eta tokiko abesbatza batzuen desagertzean.

Musikaren, gizartearen eta kulturaren nahiz identitatearen esparruan elementu historiko eta estrukturala izan arren euskal abesbatzen mugimendua krisi-egoeran egotea da ikerketa honen abiapuntua. Krisi honen etiologia askotarikoa eta konplexua da, eta azken hamarkadetan gizarte teknologikoek jasan dituzten aldaketa ugari lotuta dago, baita 2020an bizi izandako osasun-egoera bereziari ere: distantzia fisikoa mantentzeko derrigortasuna, edukieren murrizketa, ekitaldiak bertan behera uztea eta, oro har, jarduera kolektiboari ezarritako mugek erresistentzia jarrerak sortu dituzte taldeekiko eta, bereziki, abesbatzekiko.

Hala eta guztiz ere, ikerketa honen hipotesi orokorra zera da: euskal abesbatzen garapena baldintzatzen, haien iraunkortasuna arriskuan jartzen, haur eta gaztaroan koru-formakuntza murrizten eta, ondorioz, etorkizunean koru-erreferenteak mantentzea mugatzen ari zitezkeen faktore soziokultural batzuk egon, badaudela. Hauek dira, besteak beste, azken urteotan koru-jardueraren garapenean eragina izan duten eta krisialdi honetan sakontzen lagundu duten gizarte- eta kultura-bilakaera batzuk:

- Jaiotza-tasaren jaitsiera orokorra eta piramide demografikoaren pixkanakako inbertsioa.

- Jarduera artistikoen eta humanistikoen presentzia eta garrantzi eskasa errealitate soziokulturalean, bai pertzepzioan, bai gizartean duten parte-hartze mailan.
- Gizarte-, kultura- eta hezkuntza-ekimeneen erreferenteak abesbatzen eremuaz bestelako eremuetara aldatzea. Erreferente-aldaketa horri dagokionez, desbideratze nabarmena ikusten da abesbatzak erreferente kulturaltzat hartzeari buruz, bai eta taldeko edo koruko kantuen presentzia pixkanaka murrizten ari dela iruditeria kolektibo eta hezitzailean. Galera hori, neurri batean, ahots-formakuntzaren ereduak aldatzearen ondorio da, ez hainbeste koruetara bideratua, baizik eta eredu indibidualizatuagoak edo indibidualistagoak erreproduzitzaren ondorio, eredu horietan ez baitaio lehentasuna ematen ez kolektibitateari ez elkarlanari. Horren isla da hainbat motatako telebista-saioren eta talent show motako saioren ugaritzea eta arrakasta. Programa horiek ustezko bikaintasun pertsonala lortzera bideratuta daude, eta ez dute erkidea erakitzen laguntzen.
- Orientabideen eta interesen desoreka genero ikuspegian; horren ondorioz, abesbatzetan abesten duten mutilen kopurua neskena baino askoz txikiagoa da. Gertaera hori, XX. mendearen hasieratik idatzizko erregistroak dituen eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran “galdutako mutilen arazoa” deitua izan zena (Koza 1993, 219), nabarmenagoa da nerabe-zaroan, ahots-mutuaren prozesuek eta pubertaroari datzekion bilakaera-aldaketek, bai eta gizartean eta kulturaren definitutako genero-estereotipo eta -roletara egokitzeak ere, mutilak koruetan irautea zailtzen dutenean.
- Oinarrizko kultur elkarte-dinamika guztien sorrera, bultzada eta garapena sustatzeko, besteak beste, abesbatzen elkarteak, pizgarririk eza, moteltzea eta erakundeen babesik eza.

- Ahotsaren balio-galera, lehen mailako musika- eta emozio-adierazpenerako espresio eta tresna gisa.
- Oinarrizko haur eta gazteen mugimendu koralean formazioa, instituzionalizazioa eta inbertsioa sustatuko dituen eta, ondorioz, inguruabar soziokulturalean haiek errotzea bultzatuko duen formazio eta dinamizazio eredu propiorik ez garatzea.

I. eranskinean jasotako hausnarketetan ikus daitekeenez, bilakaera edo deriba horietako asko, zuzendaritza eta abesbatzen kudeaketako profesionalek eta koruekin lan egin ohi duten kultur sustatzaile eta eragileek partekatzen dituzte, kezka. Abesbatzen euskal mugimenduari dago-kionez, ikusi da badirela errealitate batzuk, aldi berean, krisi horren kausa eta ondorio direnak; izan ere, moteltzeko eta pizgarririk gabe uzteko gurpil zoro batean sartzen dute dinamika korala. Horien artean, honako hauek dira nabarmen:

- Elkartze-dinamikaen galera abesbatzen munduan.
- Koru-sektorearen zahartze orokorra.
- Abesbatzen ekimenak sustatzeko gaitasuna duen haur-korurik, gazte-korurik, zuzendaririk eta elkarterik eza.
- Pizgarririk eza gizonen biztanlerian, mutilek neskek baino parte-hartze txikiagoa baitute abesbatzetan, adin-profila edozein dela ere.
- Euskal ingurune soziokulturalean erroztzearen eta koru-mugimenduaren transmisioaren galera. Zuzenean eta zeharka eragiten die koru-jarduerari lotutako balioei, dinamikei, ezagutzei eta gaitasunei, bereziki haurren eta gazteen esparrukoak direnei. Hau da, zuzenean eragiten du abesbatzen ekimenetan parte hartzen duten pertsonengan (koralistak, familiak, zuzendariak, sustatzaileak eta programatzaileak) eta zeharka, publiko errealean eta potentzialarengan.
- Sektorerearen espezializazio eta profesionalizazio eskasa, goi-mailako titulazioa du-

ten (zuzendaritza, kantua, musika-pedagogia...) eta beren jarduneko abesbatzarekin lan-lotura duten edo haur eta gazteen koru-pedagogiaren esparruan gaitasun espezifikoak dituzten profesionalen gabezia islatuta.

Azken finean, krisi honen ondorioek galera soziokultural kalkulazina ez ezik, dimentsio ikaragarriko hezkuntza-porrota ere badakarte. Kultura 2028¹ Plan Estrategikoak, Eusko Jaur-laritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak egina eta Gobernu Kontseiluak 2023ko martxoaren 14an onartuak, nahiz eta ez duen uste koru-taldeek eskaintza orkestra publiko profesionalen edo jaialdien maila bereko erreferentzia denik (24. or.), koru-jarduera musika klasi-koaren eremuko kontzertu-jardueraren %14,6 dela uste du (32. or.). Bere lehen jarduera-ildoaren barruan, “Talentu sortzailea garatzeko aukerak ugaltu” (57. or.) honen alde egiten du apostu:

1.5.1. Zaletasunez edo herri ekimenez kulturaren dihardutenean ehuna sendotu, arreta berezia emanaz abesbatzei eta dantza taldeei.

Horregatik, Euskal Herriko Abesbatzen Elkar-tearen ustez, premiazkoa eta era bat garrantzitsua da euskal abesbatzen ehunari euskarrria ematen dioten erakunde, kultur eragile eta sustatzaileekin eta federazioekin koordinatuta jardutea, egungo joera irauli ahal izateko eta, horrela, haur eta gazteen abesbatzen jarduera programazio didaktiko eta kulturalen leku nabarmen batean birkokatze.

¹ Testu osoa hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/gobernu-plana/15-kulturaren-plan-estrategikoa/web01-educi/es/> (2023ko uztailaren 14ean kontsultatuta).

Ikerketaren plan orokorra

Ikerketa honen helburu nagusia haurtzaroan eta gaztaroan koru-mugimenduak azken urteetan izan duen garapena behatzearen ondorioz proposatutako hipotesiak aztertzea da. Horretarako, lehenik eta behin, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzen errolda orokorra osatuko da, abesbatzen ezaugarriak kontuan hartuta: probintzien arabeko datu estatistikoak, ahots-gaitasunari eta barne-dinamikari lotutako aspektuak, kide-kopuruari buruzko datu kuantitatiboak, koruen zuzendaritzaz arduratzen diren pertsonen profilari eta profesionalizazio-mailari buruzko informazioa, koruen barne-egiturari eta finantzaketa-baliabideei buruzko datuak, besteak beste (datuak biltzeko definitutako eremuen desglose oso bat “Prospekziorako eremuen deskribapena” eta “II. eranskina: Zentsu-datuak aztertze erabilitako taulak” ataletan aurki daiteke, 23. or.).

Bildutako datuak haurren eta gazteen koru-ehunaren ahuleziak eta indarguneak baloratzeko erabiliko dira, baita eremu horretan mehatxuak eta hobetzeko aukerak detektatzeko ere, datu horiek islatzen duten errealitatearen AMIA azterketa gisa ezagutzen dena gauzatuz. Horretarako, prospekzio-eremu bakoitzari dagokion informazioa biltzen duten hainbat bitarteko grafiko erabili dira. Azterketa hori Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak txosten hau garatzeko izan dituen kanpoko bi profesionalak egin dute: Nuria Fernández Herranz doktoreak eta Marta García Rodríguez doktoreak.

Jarraian, Nuria Fernández Herranz doktoreak kantu korolari buruzko ikerketa berrien berriak bibliografikoa eskaintzen du. Atal horretan jasotzen dira:

- Euskal Herriko kantu korolari buruzko aipamen historiko laburra, XIX. mendean bigarren erdialdetik euskal mu-

gimendu koralarren jatorria eta garapena aztertzen dituen;

- Abesbatzek gizartean eta kapital sozialaren garapenean duten eragin positiboari buruzko ikerketen emaitza nagusiak biltzen dituen atala;
- berrikuspen bibliografiko bat eta korukantuaren onura egiaztatuei buruzko gaiaren egoera bat, haur eta gazteentzako ez ezik, biztanleria orokorarentzat eta populazio espezifikoarentzat ere, hala nola heldu nagusientzat, espetsuetan dauden pertsonentzat edo osasun mentaleko arazoak dituztenentzat.

Koru-kantuari buruzko datuen prospekzioaren eta azterlanen emaitza ibilbide-orri batean gauzatzen da, haren helburu nagusia euskal abesbatzen sektorea suspertzea eta haren iraupena bermatzea izanik. Horretarako, hiru jardueraren ildo nagusiri jarraitzen dieten hainbat proposamen diseinatu dira: lehen ildoan haur eta gazte abesbatzak sortzeko eta mantentzeko egiturak eraikitzea bideratuta dago; bigarren ildoan dinamizazioa eta zuzendaritzara bideratutako neurriak hartzea, koru, kultura eta hezkuntza sektoreetan figura horiek profesionalizatzeari, prestatzearen eta igotzearen aldeko apustua eginez; eta hirugarren ildoan koruen ekimenak bultzatzea bideratuta, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde, kultur eragile eta abesbatzen federazioen arteko lankidetzak ezarriz.

Azkenik, I. eranskinean, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzen errealitateari eta egoerari buruz koruen sektorearekin (kultura-ekitaldiak programatuz, erakundeak eta musika-taldeak kudeatuz, abesbatzak zuzenduz edo abesbatza-ikasgaiak irakatsiz) zerikusia duten profesionalak egindako hausnarketak eta ekarpenak jasotzen dira. II. eranskinean, bestalde, datuen prospekziorako erabilitako taulak jasotzen dira.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HAUR ETA GAZTE ABESBATZEN ERROLDA

Atal honetan Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzen eroldaren emaitzak erakusten dira. Datuen prospekziarako erabilitako metodologiaren azalpen laburra eta prospekzio horretarako erabilitako datu-eremuen deskribapena egin ondoren, lortutako emaitzen azalpena, analisisa eta balorazioa egin dira.

Datu-prospekziarako metodologia

Datuak ikastetxeekin izandako zuzeneko kontaktuz aztertu dira (araubide orokorreko irakaskuntzak edo araubide bereziko irakaskuntzak), haien datu-basea Eusko Jaurlaritzaren Ikasgune-ko ikastetxeen bilatzailearen bidez lortu delarik (web-orrian eskuragarri²), bai eta abesbatzekin ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorraren bidez. Probintzietako abesbatzen federazioek eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak harremanetarako eta informaziorako datuak lortzeko aukera ere eman dute.

Era berean, datuak erantzun-formulario baten bidez bildu dira. Inprimaki hori berariaz disei-

natu da, talde teknikoak eta kanpoko profesionalek deskribatutako eremuak betetzeko. Horri esker datu-base bat sortu da, datu-grafikoak eta estatistikak ateratzeko balio izan duena.

Prospekziarako eremuen deskribapena

Jarraian, EAEko haur eta gazte abesbatzen errol-
da-datuak aztertzeko eremuen ezaugarriak eta justifikazioa zehazten dira.

1. multzoa.

Datu estatistiko orokorrak

Koru bakoitzaren datu estatistiko orokorrak jasotzen dira hemen, eta horrek haur eta gazte abesbatzak probintziak eta udalerrika nola sakabanatzen diren erakusten digu. Arreta berezia eman zaio abesbatzen profilarri, hau da, talde bakoitza kokatzen deneko zentroaren tipologiari, euskal abesbatzaren jarduera garatzen den formakuntza- eta elkarte-ehuna ezagutzeko, eta hobetzeko nahiz garatzeko aukerak de-
tektatzeko.

² Esteka honetan eskuragarri: <https://ikasgunea.euskadi.eus/eu/buscador-de-centros>

Hiru erakunde-kategoria handitan kokatzen dira EAEko haur eta gazte abesbatzak:

- Araubide orokorreko irakaskuntzak, ikastetxe guztiei dagozkienak, sare publikoak edo sare pribatu/itunpekoak izan.
- Araubide bereziko irakaskuntzak, horien artean arautuak (kontserbatorioak) eta arautu gabeak (musika-eskola publikoak eta pribatuak).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarleen Erregistro Orokorrean inskribatutako elkarteak.

Bestalde, koruak EAEko probintzietako abesbatzen federazioen batean federatuta dauden erregistratu da: Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan, Bizkaiko Abesbatzen Federazioan, Arabako Abesbatzen Federazioan eta Araba-txon (Arabako Haur Abesbatzen Federazioan). Federazioek koru-ehunean duten irismen- eta sustraitze-maila ezagutzeak etorkizunean ager daitezkeen arrisku edo erronkei buruzko aurreikuspen egokiagoak egitea ahalbidetzen du, baita errealitatera hobeto egokitzen diren proposamenak eta jarduera-planak egitea ere.

2. multzoa.

Alderdi dinamikoak eta eskumenekoak

Talde-dinamizazioko eta ahots- eta arte-gaitasuneko alderdiak kontuan hartzen dituen ikuspegi batetik abiatuta, erroldatutako abesbatzen profilaren balorazioa egin ahal izateko datuak hiru kategoriatan bildu dira:

- Koruen kideak. Koralisten kopurua bi aldagairen arabera aztertzen da: sexua eta adina. Azken horretarako, formakuntza- eta bilakaera-etapei dagozkien lau tarte zehaztu dira: 6-12 urte (hautzarora/lehen hezkuntza), 13-18 urte (nerabearoa/bigarren hezkuntza), 19-23 urte (gazteak/goi-mailako hezkuntza eta lan-mundua),

24 urte baino gehiago (helduaroa/lan-mundua).

- Errepertorioa. Kategoria honek abesbatzen gaitasun artistiko eta bokalaren maila zehazteko datuak eman nahi ditu. Horretarako, hiru azpikategoria bereizten dira:
 1. abesbatzak interpretatzen dituen lanak zenbat ahosetara idatzita dauden (ahots 1, 2 ahots, 3 ahots, 4 ahots, 4 ahots baino gehiago).
 2. abesbatzak interpretatzen dituen obrak laguntzea (*a capella*, pianoa, organoa, orkestra, instrumentu-multzoa).
 3. errepertorioko ahotsen osaketa, hau da, abesbatzak ahots mistoetan edo ahots berdinetan lan egiten duen.
- Jarduera-maila. Emanaldiak, era berean, bi aldagairen arabera aztertzen dira: lehenengo kokapena da, ekitaldi bakoitza gertatzen den eremu geografikoari erreferentzia egiten diona (tokikoa, probintziakoa, autonomikoa, estatukoa, nazioartekoa); bigarrena kudeaketa-mota da, hau da, emanaldi horiek abesbatzak autokudeatu dituen edo, aitzitik, hirugarrenek ekoitzi dituzten.

3. multzoa.

Zuzendaritzaren profila

Abesbatzetako zuzendarien profilari dagokionez, eta espezializazio- eta profesionalizazio-maila eta abesbatzak garatzeaz arduratzen diren pertsonen gaitasunak baloratu ahal izateko, formakuntzari buruzko alderdiei arreta berezia eskaintzen dien prospekzio bat planteatzen da. Hiru kategoria handitan banatu da:

- Musika-irakaskuntza arautuen tituluak, bi aldagai kontuan hartuta erregistratu dituztenak:
 - Irakaskuntza mota. Horri dagokionez, honako ikasketa hauek hartu dira kontuan: Koru Zuzendaritza, Orkestra Zu-

zendaritza, Kantua, Musika Pedagogia eta beste musika-espezialitate batzuk.

- Irakaskuntza-maila. Indarrean dauden eta gaur egun homologatuta dauden tituluei dagokienez, honako datu hauek hartu dira kontuan: Goi Mailako Graden, Goi Mailako Titulua (66ko plana), Gradu Profesionala eta Erdi Maila (66ko plana).
- Arautu gabeko musika-irakaskuntzen akreditazioak. Dauden irakaskuntzak kontuan hartuta, Kantua edo Koru Zuzendaritza espezialitateetan zuzendariak III. maila lortu duten hartu da kontuan.
- Ikastaroak. Hemen sartzen dira Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen Zuzendaritza Akademia (1. maila, 2. maila, 3. maila) eta Euskal Herriko beste abesbatzen federaziotako ikastaroak, bai eta abesbatzen zuzendaritzarekin edo haur eta gazteen abesbatza-pedagogiarekin lotutako bestelako ikastarotatik ere.

Azkenik, abesbatzen zuzendaritzaz arduratzen diren pertsonen lan-erregimenari buruzko datuak bildu dira, eta horretarako honako aukera hauek definitu dira: autonomoen erregimena, lan-kontratupeko langileak, funtzionarioak (birtartekoak edo karrerako funtzionarioak) edo, azkenik, borondatezko lotura dutenak.

4. multzoa.

Egitura eta antolaketa

Abesbatzen egiturari eta barne-antolamenduari buruzko ahalik eta irudi zehatzena lortzeko, bai eta haien egonkortasunari eta egitura horren profesionalizazio-mailari buruzkoa ere, lau kategoria zehaztu dira:

- Entsegu-lekua. Koruak entseatu ohi duen lokala edo espazioa (aparteko entseguak izan ezik) korua beraren ikastetxean kokatzen den, jabetzako lokala den, udalak lagatakoa den, beste erakunde pribatu ba-

tzuek lagatakoa den, parrokiako lokala den edo beste lokal mota bat den aztertu da.

- Matrikulazioa. Koru-egituraz ari garela koralistek duten erlazioari dagokionez, honako hauek erregistratu dira: dago-kion ikastetxeko matrikula orokorrean sartutako jarduera bat den, koruan parte hartzeko matrikula espezifikoko bat ordaintzearekin lotuta dagoen, bazkide-kuotabaten bidez ordaintzea aurreikusten den edo ezein matrikulazio-erregimeni lotuta ez dagoen jarduera bat den.
- Abesbatzari lotutako profesionalak (zuzendaritzaz arduratzen den pertsona izan ezik). Espezializazio- eta profesionalizazio-maila, eta koruen egitura profesionalaren eskuragarritasuna. Profesionalen kopurua bi aldagai kontuan hartuta erregistratu da:
 - profesional mota: kudeaketa eta administrazioko langileak, pianistak edo errepertoristak, ahots-teknikako irakasleak, beste profesional batzuk
 - lotura-mota: lana lan-loturaren bidez edo borondatez giten duten.
- Finantzaketa. Alde batetik, abesbatzek dirulaguntzaren bat jasotzen duten aztertu da, eta, hala bada, zein erakundetatik jasotzen duten (udalak, aldundiak, Eusko Jaurlaritza, INAEM, beste batzuk); bestetik, abesbatzaren urteko aurrekontuaren jatorriaren gutxi gorabeherako ehuneko bat erregistratu da, barneko eta kanpoko finantzaketa-maila ezagutzeko eta aztertzeko.

Emaitzak azaltzea, aztertzea eta baloratzea

Datuen prospekzioaren bidez lortutako emaitzak taula eta grafikoen bidez azaltzea eta zehaztea da atal honen xedea, bai eta horien

inplikazioak konparazioz baloratzea eta aztertzea ere³.

1. multzoa.

Datu estatistiko orokorrak

Bloke honek Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen egoerari (probintziak) eta profilari buruzko datu estatistiko orokorrak biltzen ditu. Gaur egun, abesbatza horiek lau profil orokor dituzte: beren jarduera araubide orokorreko irakaskuntzen barruan garatzen dutenak (ikastetxe publikoak edo itunpekoak izan), araubide bereziko irakaskuntza arautuen bidez egiten dutenak (kontserbatorioak), arautu gabeko araubide bereziko irakaskuntzak (musika-eskola publikoak eta pribatuak) eta koru-elkartek.

Txosten hau idazteko egin den datuen prospekzioan 134 erantzun jaso dira guztira, hau da: profil desberdinetako 134 haur eta gazte abesbatzen datuak bildu dira; arautu gabeko araubide bereziko ikastetxe batzuek korua dutela adierazi dute, baina beharrezko datuak bildu ezin izan direnez, ezin izan dira azterketarako erantzun positibo gisa kontabilizatu. Ikastetxe horien banakatzea lehen multzo honetako dagokion atalean aurki daiteke. Erroldatutako abesbatzen profilari dagokionez, erregimen orokorreko irakaskuntzako ikastetxetakoak 48 dira, 11 araubide bereziko ikastetxe arautuetakoak (kontserbatorioak), 52 arautu gabeko araubide bereziko irakaskuntzetakoak (musika-eskolak) eta 25 elkarteetakoak. Horien artean, profil mistoak izan daitezkeen bi abesbatza daude: Leioa Kantika Korala abesbatza, aldi berean Leioako udal kontserbatoriokoa eta Leioako udal musika eskolakoa; eta Gaudeamus Korala, aldi berean Julia Foruria (Gernika) musika eskola pribatukoa eta bertatik sortutako elkarteakoa. Profil misto horiek sortzen dute


³ Lan hori kanpoko profesionalak egin dute; hain zuzen ere, Nuria Fernandez-Herranz doktoreak eta Marta García Rodríguez doktoreak.

erroldan jasotako erantzun kopuruaren eta profil desberdinei lotutako abesbatza kopuruaren arteko aldea.

Erroldatutako abesbatzen profila	Koru kopurua	Erantzunak
Araubide orokorreko irakaskuntzak	48	136 *
Araubide bereziko irakaskuntza arautuak: kontserbatorioak	11	
Arautu gabeko araubide bereziko irakaskuntzak: musika-eskolak	52	
Elkartek	25	


* Ikus 4. oina hurrengo orrialdean.

Erroldatutako abesbatzen profila




Haur eta gazte abesbatzak probintziak sakabatzeari dagokionez, 69 abesbatza daude Gipuzkoan, 50 Bizkaian eta 15 Araban.

Haur eta gazte abesbatzak EAEn



Bestela, eta prospekzio honetan bildutako datuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzen % 52 Gipuzkoako lurralde historikokoak dira, %37 Bizkaikoak eta %11 Arabakoak; beraz, erroldatutako abesbatzen erdia baino gehiago Gipuzkoan biltzen dira.


EAEko haur eta abesbatzak probintziara sakabanatuta



Jarraian, probintzia bakoitzean erroldatutako abesbatzen profila zabalago eta zehatzago banakatzen da.


Gipuzkoan, araubide orokorreko ikastetxeetako 17 abesbatza, araubide bereziko ikastetxeetako 3 abesbatza (kontserbatorioak), arautu gabeko araubide bereziko ikastetxeetako 31 abesbatza (musika-eskolak) eta elkarteetako 18 abesbatza aurkitzen ditugu. Deigarria da koru-eskolak baino koru-elkarte (abesbatza) gehiago egotea.

Gipuzkoan erroldatutako abesbatzen profila




Bizkaian, araubide orokorreko ikastetxeetako 22 abesbatza, araubide bereziko ikastetxeetako 7 abesbatza (kontserbatorioak), arautu gabeko araubide bereziko ikastetxeetako 17 abesbatza (musika-eskolak) eta elkarteetako 6 abesbatza aurkitzen ditugu⁴.

Bizkaian erroldatutako abesbatzen profila



Arabian, araubide orokorreko ikastetxeetako 9 abesbatza, araubide bereziko ikastetxeetako abesbatza 1 (kontserbatorioa), arautu gabeko araubide bereziko ikastetxeetako 4 abesbatza (musika-eskolak) eta elkarte bateko abesbatza 1 daude.

Arabian erroldatutako abesbatzen profila




Oro har, ondoriozta daiteke koru-dinamika askoz ahulago dagoela Arabako lurralde histori-

⁴ Koruen profilen batura koruen guztizko batura baino handiagoa izateko arrazoia profil mistoko bi koru egotea da, gorago azaldu den bezala.


koan, gainerako lurralde historikoekin alderatuta. Koru horien abeslari-kopuruak indartzen du errealitate hau, eta hurrengo datu-multzoan aztertuko da. (2. multzoa: Alderdi dinamikoak eta kompetentzialak). Bestalde, ikusten da, gutxienez, mugimendu asoziatiboa askoz errotua goa dagoela Gipuzkoako lurralde historikoan, non mugimendu handia biltzen den. Gainera, dinamizazio-maila handiagoak eta eskumen-maila hobek lortzen dituzten koru-elkarteen kopurua. Ikusten da, halaber, lurralde horretan egiten dutela musika-eskolek bide koralaren aldeko apusturik handiena, musika-prestakuntzarako bide gisa.

Federazioaren mugimenduari dagokionez, esan daiteke Euskal Herriko haur eta gazte abesbatza gehienak ez daudela federatuta. Gipuzkoako lurralde historikoan ditugu daturik altuenak, % 49 Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan federatuta baitago. Abesbatzen % 28 bakarrik dago Bizkaiko Abesbatzen Federazioan; Arabako Haur Abesbatzen Federazioan (Arabatxo), Arabako abesbatzen % 27 baino ez. Zenbaki orokorrek adierazten dute Euskadiko haur eta gazte abesbatzen % 39 federatuta daudela.


Abesbatzen federazioen norainokoa




Gipuzkoako abesbatzak




Bizkaiko abesbatzak



Arabako abesbatzak



EAEko abesbatzak



■ Federatuak ■ Federatu gabeak

Koru-sare sendo batek egoki iritzitako edozein ekintzaren bidez abesbatzen jardura eusteko eta laguntzeko egitura dinamizatzaileak eta antolaketa-egiturak behar ditu. Txosten honetan bildutako datuen arabera, lan hori erabakigarria izango litzateke hainbat bidetan: zuzendariei eta kudeaketako eta administrazioko langileei formakuntza ematea, topaketak eta elkartrukeak antolatzea, materialak kudeatzea eta sortzea, besteak beste, gainbegiratzea eta planifikatzea eskatzen duten zereginak dira. Probintzietako abesbatzen federazioek funtzio horiek bete beharko lituzkete, eta abesbatza federatuen egoera eta ezaugarrietara egokitu beharko lituzkete, bai eta abesbatza horiek sustraituta dauden testuinguru kultural eta sozialetara ere. Federazioaren zifrak baloratzeak pentsarazten du beharrezkoa dela kasuan kasuko federazioek eta, hedaduraz, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak zeregin horiek modu


eraginkorrean gauzatu ahal izateko estrategiak diseinatzea.

Araubide orokorreko irakaskuntzak


Araubide orokorreko irakaskuntzei dagokienez, alde handia dago ikastetxe publikoen eta itunpekoen artean, baina ez da handia kopuruan. Nahiz eta kezagarria den abesbatzak dituzten ikastetxeen kopuru orokorra hain txikia izatea (EAEko ikastetxe guztien %9k soilik dute korua), deigarriagoa da ehuneko hori are txikiagoa izatea ikastetxe publikoetan itunpekoetan baino. Hala, sare publikoko araubide orokorreko ikastetxeen %5ek soilik dute korua; sare pribatuko eta itunpeko araubide orokorreko ikastetxeen kasuan, berriz, %16k. Azpimarratu behar da ikastetxe horietako batzuek tokiko abesbatzen elkarteekin egindako hitzarmenen bidez burutzen dutela koru-jarduera, eta horiek arduratzen dira ikastetxeetan zerbitzua emateaz, horretarako gaitutako zuzendari bat bertaratuz. Horren adibide dira Bilboko Korral Elkartearen *Escola Kantari* programa, Bizkaiko 5 ikastetxetan dagoena; Ganbara (Oñati) koru elkartearen *Ikastetxeak Kantari* programa, bi ikastetxetan dagoena; eta La Salle Donostia ikastetxe-ko abesbatza, Easo Abesbatzaren matrizekoa (Donostia). Abesbatzak gizartean eta kulturen errotuta daudenez eta abesbatzek kantari gazteak dinamizatzeko eta prestatzeko gaitasuna dutenez, interesgarria izango litzateke programa horien funtzionamendua sakonago aztertzea eta horien eraginkortasuna testatzea, abesbatza-jarduera mantentzeari eta indartzeari dagokionean.

Euskal Autonomia Erkidegoko sare publikoko ikastetxei buruzko datuak, probintzien arabera banakatuta, honako grafiko hauetan zehazten dira:


Ikastetxe publikoak




Gipuzkoako ikastetxe publikoak




Bizkaiko ikastetxe publikoak



Arabako ikastetxe publikoak




EAEko ikastetxe publikoak




■ Koruarekin ■ Korurik gabe

Euskal Autonomia Erkidegoko sare pribatuko eta itunpeko sare pribatuko ikastetxei buruzko datuak, probintzien arabera banakatuta, honako grafiko hauetan zehazten dira:


Ikastetxe pribatuak eta itunpeko pribatuak




EAEko ikastetxeak




Gipuzkoako ikastetxe pribatuak eta itunpeko pribatuak




Bizkaiko ikastetxe pribatuak eta itunpeko pribatuak




Gipuzkoako ikastetxeak




Bizkaiko ikastetxeak




Arabako ikastetxe pribatuak eta itunpeko pribatuak




EAEko ikastetxe pribatuak eta itunpeko pribatuak



Arabako ikastetxeak



EAEko araubide orokorreko ikastetxeak



■ Koruarekin ■ Korurik gabe ■ Erantzunik gabe

■ Koruarekin ■ Korurik gabe ■ Erantzunik gabe

Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztiei dagozkien datuak, sare publikokoak eta pribatukoak nahiz itunpeko pribatukoak barne, probintzien arabera banakatuta, honako grafiko hauetan zehazten dira:

Irakaskuntza orokorren sare publiko eta pribatu-itunpekoaren artean dauden alde nabarmenak direla eta, komenigarria litzateke ikastetxeetako koru-errealitateari dagokionean gaur egungo hezkuntza-politikak aztertzea, bai eta koru-elkartek gauzatutako sustapen- eta dina-

mizazio-programak ere, euskal koru-ondarea indartzea zainduko eta horren alde egingo duten hezkuntza-politika publikoak diseinatzeko helburuarekin. Haurren eta gazteen osasun fisiko, mental, sozial eta emozionalerako eta euskal kultura- eta musika-ondarearen hedapenerako onura ugariak direla eta, arrazoi bikainak daude abesbatzak lehentasunezko formakuntza- eta kultura-jarduera gisa hartzen dituzten programa didaktikoak planteatzeko. Ildo horretan, komenigarria litzateke curriculumak birplanteatzea, ahots- eta koru-gaitasunaren garapena formakuntza orokorraren funtsezko eta zeharkako aspektu gisa har dadin.


Araubide bereziko irakaskuntza arautuak: kontserbatorioak

Araubide bereziko irakaskuntza arautuei buruzko datuek, kontserbatorioetakoek hain zuzen, bai udalena, bai Eusko Jaurlaritzarenak, legeriak xedatutakoa islatzen duen irudi bat ematen dute. Horri dagokionez, musika-ikasketen oinarritzko maila eta maila ertainaren curriculum eta maila horietara nola iritsi ezartzen dituen irailaren 20ko 250/2005 Dekretuaren I. eranskinak, Oinarrizko Mailako 3. eta 4. mailetan Korua irakasgaiaren nahitaezkotasuna ezartzen du. Era berean, musika-ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituen abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuaren I. eranskinak xedatzen duenez, Kantua espezialitateko ikasleek, Klabea, Organoa eta Pianoa espezialitatekoek, Gitarra elektrikoa eta baxu elektrikoa espezialitatekoek, txirula ezti eta zango-biolako espezialitatekoek, zia-instrumentuen espezialitatekoek eta txistua espezialitatekoek, gutxienez bi ikasturte egin behar dituzte Abesbatza ikasgaiaren.

Horregatik, EAEko kontserbatorio guztiek abesbatza bat edo gehiago dituzte, guztiak ere hainbat espezialitateko ikasleek osatuak, batek izan ezik: Erreterriako (Gipuzkoa) Udalaren titulartza Erreterria Musikal kontserbatorioa. Datuak biltzeko prozesuan, kontserbatorio ho-

rretako zuzendariak jakinarazi zigun, indarrean dagoen legeria urratzen ari zela jakinda ere, ga-bezia hori txosten honetan jaso behar zela, urteak daramatzan bateraezintasun-egoera bat konpontzen saiatzeko. Bestalde, ez dugu erantzunik jaso Bizkaiko kontserbatorio eta musika-eskola batetik, halere irakasgai webgunean eskuragarri dagoen zerbitzu-kartan islatzen du (2018-2020)⁵.

Araubide bereziko ikastetxe arautuak



Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontserbatorioek (Erreterria Musikal kontserbatorioak izan ezik) aipatutako espezialitateetarako Korua irakasgai osagarri gisa eskaintzeari buruzko legeria betetzen duten, irakasgai horren eskola-karga astean ordu betekoa da, eta horrek, kasu gehienetan, ikasleek behar adina ahots-gaitasun eskuratzea eta behar bezala dinamizatuta egotea eragozten du. Azken horri dagokionean, datuek erakusten dute kontserbatorioetako abesbatzek batez beste bi eta lau emanaldi artean eskaintzen dituztela urtean, guztiak autogestio-natuak. Joera horren salbuespena Leioako kontserbatorioko abesbatzan aurkitzen dugu (*Leioa Kantika Korala*), 2022an 18 emanaldi eskaini baitzituen, gehienak hirugarrenek ekoiztiak.

⁵ Eskuragarri hemen: <https://bartolomeertzilla.durango.eus/datos/documentos/DM-ZK2018-2020.pdf> (2023ko uztailean 18an kontsultatuta).

Araubide bereziko irakaskuntza arautu gabeak: musika-eskolak

Araubide bereziko irakaskuntza arautu gabeegi dagokienez, musika-eskolak, titulartasun publikoak zein pribatukoak izan, abesbatzen presentzia esanguratsuagoa da. Ikastetxe horietako abesbatzen gaia jorratu aurretik, ohartarazi behar da, EUSTATen⁶ biztanleriaren datuen arabera, 2022ko urtarrilaren 1ean Gipuzkoan musika eskola publiko bat zegoela 35.830 biztanleko; Bizkaian musika eskola publiko bat 67.012 biztanleko; eta Araban musika eskola publiko bat 55.115 biztanleko. Musika eskola pribatuak ere kontuan hartuta, Gipuzkoan musika eskola bat zegoen 15.247 biztanleko; Bizkaian musika eskola bat 35.600 biztanleko; Araban musika eskola bat 33.069 biztanleko.

Lurralde historikoa	Biztanleria	Musika-eskola		
		publikoak	privatuak	(guztira)
Gipuzkoa	716.616	20	27	47
Bizkaia	1.139.209	17	15	32
Araba	330.692	6	4	10

Gipuzkoako lurralde historikoan populazio-gueneen sakabanatzea askoz ere handiagoa bada ere, deigarria da hiru lurralde historikoen artean dagoen musika-formakuntzarako eskaintzaren alde. Ildo horretako azterketa sakonago batek musika-eskola publikoetako plazen eskuragarritasunari buruzko datuak lortu beharko lituzke, bai eta biztanle-guneekiko duten egoerari buruzkoak ere.

Aipatu behar da indarrean dagoen legediak nolabaiteko malgutasuna ahalbidetzen duela Kantuaren Adarreko musika-irakaskuntzaren antolaketari dagokionez, bai kantu bakarlarian,

baita koruan ere. Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegiaren sorrera eta funtzionamendua arautzen dituen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak, honako hau ezartzen du 5. artikuluan: "... izenez ezagutzen den adarreko irakaskuntzen eskaintza, baita koru-kantu eta dantza espezialitateetakoak ere, musika-eskolako erizpideen arabera, Dekretu honetako 4. atalean ohartemandako mailen jardunbide-eskemara egokitu gabe egin daiteke, nahiz eta funtsezko irakaskuntza izan, azken batean oinarrian taldeka burutu beharreko jardura delako". Lortutako datuetan ikus daitekeenez, xedatutako berezitasun horrek bi aurpegi ditu: alde batetik, musika-eskola batzuek ahots- eta abesbatza-gaitasuna intentsiboki edo zeharka garatzea bultzatzen dute, zorionez abesbatza bat baino gehiago edukiz; bestetik, ahotsa oinarritzko musika-gaitasun gisa hartzen duen arau-esparrurik ezartzen ez duenez, koru-kantua musika-eskola askoren hezkuntza-eskaintzaren parte ez izatea ahalbidetzen du, titulartasun publikoak zein pribatukoak izan.


Oro har, musika-eskola publikoen %60k baino gehiagok dituzte koru-taldeak, beren formakuntza-eskaintzaren zatitza hartuta. Musika-eskola pribatuei dagokienez, ehuneko hori txikiagoa da: Gipuzkoan bakarrik dute korua musika-eskola pribatuen erdiek baino gehiagok (%55); Bizkaian portzentai absolutuak eskaintzeko moduko datuak falta dira, baina erantzuna lortu ahal izan den musika-eskola pribatuen ia erdiek dute korua; Araban, aldiz, musika-eskola pribatuen % 25ek baino ez dute korua.

⁶ 2022ko urtarrilaren 1eko datuak, hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0020200/ti_euskal-ae-ko-biztanle-kopurua-murritz-egin-da-2022an-aurreko-urtearekin-alderatuta-eta-6682-pertsona-gutxiago-dira/not0020234_e.html (2023ko uztailaren 18an kontsultatua).


Euskal Autonomia Erkidegoan titulartasun publikorik ez duten arautu gabeko araubide bereziko irakaskuntzei dagozkien datuak, probintziaka banakatuta horiek ere, honako grafiko hauetan zehazten dira:

Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko titulartasun pribatuko irakaskuntza arautu gabeei dagozkien datuak, probintziaka banakatuta horiek ere, honako grafiko hauetan zehazten dira:


Musika-eskola publikoak




Musika-eskola pribatuak




Gipuzkoako musika-eskola publikoak




Bizkaiko musika-eskola publikoak




Gipuzkoako musika-eskola pribatuak




Bizkaiko musika-eskola pribatuak



Arabako musika-eskola publikoak




EAEko musika-eskola publikoak



Arabako musika-eskola pribatuak



EAEko musika-eskola pribatuak




■ Koruarekin ■ Korurik gabe ■ Erantzunik gabe

■ Koruarekin ■ Korurik gabe ■ Erantzunik gabe


Horrela, Euskal Autonomia Erkidegoan araubide bereziko ikastetxe arautu gabe guztiei buruzko datuak, titulartasun publikokoak eta titu-

lartasun pribatukoak barne, probintzien arabera banakatuta, honako grafiko hauetan zehazten dira:

Musika eskolak EAEn



Musika eskolak EAEn (publikoak eta pribatukoak)



Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeei dagokienez, hau da, musika-eskolei dagokienez, komenigarria litzateke azterketa sakonagoa eta zabalagoa egitea, kontuan hartuko dituen, alde batetik, ahots- eta abesbatza-formakuntzaren antolaketan izan diren lege-aldaketak, eta, bestetik, horiek formakuntza-koruen iraupenean eta indartzean izan ditzaketen ondorioak. Komenigarria litzateke, gainera, musika-eskoletako abesbatzetako koralistek egiten duten ibilbidearen bidez koru-formakuntzaren norainokoa ezagutzea. Horretarako, beharrezkoa litzateke jakitea zenbateraino jarraitzen duten abesten derrigorrezko formakuntza-etapa amaitu ondoren.

2. multzoa. Alderdi dinamikoak eta eskumenekoak

Multzo honetan, erroldatutako abesbatzen talde-dinamizazioari eta ahots- eta arte-gaitasun orokorrari buruzko datuak biltzen dira. Besteak beste, honako hauek jasotzen dira: kideen kopurua (sexuaren eta adinaren arabera), lantzen duten erreperitorioaren zailtasun-maila (ahots-kopurua), jorratzen duten erreperitorioak eskatzen duen akonpainamendu-mota eta abesbatza horiek duten jardura-maila (kokapena eta urteko emanaldi-kopurua).

Kideak

Kideen kopurua bi aldagai kontuan hartuta bildu da: sexua eta adina. Aurrez finkatutako adin-tarteen banaketa hezkuntza- eta bilakaera-etapekin bat dator, eta horri esker, haur eta gazte abesbatzen osaketan tipologiari buruzko panorama nahiko osoa lortu da. Horrela, lau adin-tarte berezi dira:

- 6-12 urte: haurtzaroa/lehen hezkuntza
- 13-18 urte: nerabezaroa/bigarren hezkuntza
- 19-23 urte: gazteak/goi-mailako irakaskuntza eta lan-mundua
- 24 urtetik gora: helduak/lan-mundua

Taula honek koralisten kopuruari buruzko datu orokorrak jasotzen ditu, sexuaren eta adinaren arabera sailkatuta:

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA
6-12 urte	2417	1130	3547
13-18 urte	722	267	989
19-23 urte	106	38	144
>24 urte	32	7	39
GUZTIRA	3277	1442	4719

Lurralde historiko bakoitzeko datuei erreparatuz gero, Gipuzkoan koralisten kopurua handiagoa dela ikusten da, eta hori erraz ulertzen da, lurralde horretan abesbatza gehiago baitago, 1. blokean aztertu den bezala. Horrela, Gipuzkoan biltzen da EAEko koralisten erdia baino gehiago, adin-tarte guztiak kontuan hartuta. Abesbatzen kopurua eta koralisten kopurua alderatuz gero, Gipuzkoako abesbatzak, oro har, ugariagoak dira ondoriozta daiteke: Gipuzkoan biltzen dira abesbatzen %52 eta koralisten %54; Bizkaian, abesbatzen %37 eta koralisten %36; Araban, abesbatzen % 11 eta koralisten % 10. Horrela, Gipuzkoako haur eta gazteen abesbatzak ia 37 koralistaz osatuta daude batez beste; Bizkaikoak, 34 koralistaz batez beste; Arabakoak, 31 koralistaz batez beste.

Koralisten kopurua Gipuzkoan:

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA
6-12 urte	1243	704	1947
13-18 urte	349	121	470
19-23 urte	80	29	109
>24 urte	11	4	15
GUZTIRA	1683	858	2541


Koralisten kopurua Bizkaian:

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA
6-12 urte	911	333	1244
13-18 urte	304	105	409
19-23 urte	26	9	35
>24 urte	21	2	23
GUZTIRA	1262	449	1711

Koralisten kopurua Araban:

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA
6-12 urte	263	93	356
13-18 urte	69	41	110
19-23 urte	0	0	0
>24 urte	0	1	1
GUZTIRA	332	135	467


Koralisten sakabaneketa EAEn (adin guztiak, bi sexuak)



Koralisten adinari eta sexuari buruzko datuen eta Euskal Herriko haur eta gazteen abesbatzei lekua egiten dieten ikastetxe eta elkarten artean azterketa sakonagoa egin beharko litzateke, kausalitate-erlazio posibleak ezarri ahal izateko, eta ez soilik erlaziozkoak.


Lurralde historikoen araberako sakabanatzea alde batera utzita, datuek ematen duten irudi orokorra oso adierazgarria da, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala:

Koralista kopurua sexu eta adinaren arabera




Hurrengo grafikoetan, adin-tarte bakoitzari dagozkion bi sexuen ehunekoak banakatzen dira.


Koralistak (adin guztiak)




Koralistak 6-12 urte




Koralistak 13-18 urte



Koralistak 19-23 urte




Koralistak + 24 urte



Hurrengo grafikoak kideen guztizko kopuruarekiko adin-tarte bakoitzaren portzentaje orokorrak erakusten ditu. 18 urtetik gorako koralisten kopurua nabarmen murriztu izana kontu handiz eta erlatiboki interpretatu behar da, nerabe horietako askok adin horretatik aurrera helduen abesbatzetan parte hartzeko aukera baitute. Txosten hau haurren eta gazteen abesbatzei buruzkoa izan denez soilik, ezin izan da kasu horien jarraipena egin. Euskal Autonomia Erkidegoko abesbatzen errolda oso bat beharko litzateke haur, gazte eta helduen abesbatzen artean

loturak ezarri ahal izateko, abesbatza uztearen tasa txosten honetan aipatzen den erroldan jasotako datuek erakusten duten bezain altua den ondorioztatu ahal izateko.

Koralistak adinaren arabera



Bildutako datuek erakusten dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoan guztira 4.719 koralista daude haur eta gazte abesbatzetan; horietatik 3.277 neskak dira eta 1.442 mutilak. Horrek esan nahi du koralisten bi heren baino gehiago neskak direla. Datuek adierazten dute, gainera, mutilekiko nesken prebalentzia handitu egiten dela adinean aurrera egin ahala; beste modu batera esanda, denbora igaro ahala abesbatza uzten duten mutilak gehiago dira. Hala, Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzeak, hau da, haurtzarotik nerabegarorako aldaketa-prozesuak, koralisten kopurua %72 baino zertxobait gehiago murriztea dakar. Eta murrizketa handiagoa da mutiletan nesketan baino: koralisten kopurua %70 murrizten da nesken kasuan, eta %76 mutilen kasuan. Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako ikerketei edo erroldari buruzko aurrekaririk ez dagoenez, ezin da konparaziozko azterketarik egin, aurreko hamarkadetan errealitate hori antzekoa ote zen egiaztatzeko. Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatza nagusien zuzendaritzako arduradunen hausnarketek (ikus I. eranskina) adierazten dute joera hori areagotu egin dela, oro har eta partekatuta, azken urteotan.

Pertzepzio hori berresten dute, hain zuzen ere, katedraletako eskolania ezagunek eta nazioartean erreferentzia diren haurren abesbatzek berriki izan dituzten aldaketa historikoek. Estatu mailan, Montserrateko Eskolaniak, XIII. mendean Montserrateko monasterioan (Bartzelona, Espainia) sortua, korua eta eskola integratzeko ereduari jarraituz, 2023an nesken eta mutilen abesbatza mistoa sortu du⁷. Europa erdialdean, non haurren ahotsez soilik osatutako eskolanien tradizio handia dagoen, zentzu horretan ere aldaketak izan dira. Vienako Wiener Sängerknaben abesbatzak, 1498an sortutako “Vienna Boys Choir” haurren ohiko abesbatzaz gain, talde independente gisa funtzionatzen duen “Vienna Girls Choir” nesken korua du 2004tik, nahiz eta zenbait proiektu bateratutan parte hartu duen, hala nola 2023ko Urteberriko Kontzertua Vienako Musikvereinen, Vienako Orkestra Filarmonikoarekin batera eta Franz Welser-Mösten maisuaren zuzendaritzapean. Municheko (Alemania) “Tölzer Knabenchor” mutil-abesbatzak, 1956an sortua, neskak onartzen ditu adin goiztiarreko abesbatzetan (Tölzer Minis), nahiz eta ondoren inguruko beste emakumezko abesbatza batzuetan integratzen diren.

Ingalaterran, mutilez bakarrik osatutako katedraleko abesbatzek tradizio handia dute, eta horietako askotan neskak sartzen hasi dira kide gisa. Hori da Salisburyko katedraleko abesbatzaren kasua, 1991n neskez osaturiko talde independente eta banandu bat osatu zuen lehena izan zelarik; gaur egun, abesbatza junior bat (7-13 urte) eta abesbatza gazte bat (13-18 urte) ditu, biak neska-mutilentzat irekiak⁸. Liverpooleko katedraleko korua 1904an sortu zen, eta 2003. urtean bere mendeurrena ospatzeko neskak sartu ziren. Gaur egun,

neska-mutilek osatzen dute. Westminsterko Abadiako (Londres) abesbatza ospetsuak, XVI. mendean sortua, Santa Margarita elizan⁹ nesken abesbatza bat sortzeko deia egin zuen 2023ko martxoan. Ildo beretik, Truro katedraleko neska talde batek historia egin zuen 2023ko maiatzaren 9an, Westminster abadiako koruko mutilekin batera Ingalaterrako Karlos III. koroatzearen ofizioetan abestuz¹⁰. Era berean, Londresko San Paulo katedraleko abesbatzak, XI. mendean sortua, bere historian lehen aldiz 2025eko irailetik aurrera neskak onartuko dituela iragarri du¹¹. Aldaketa horien guztien ondorioz, 2020an Traditional Cathedral Choir Association (“Katedral Tradizionalen Abesbatzen Elkarte”) sortu zen, helburu nagusi eta bakarrarekin: “gure katedraletako, errege-kaperetako, elizetako, unibertsitate-kaperetako eta beste fundazio, eskola eta eliz komunitate batzuetako gizonetzko abesbatza guztiak babestea”¹². Ikusten da, beraz, tradizio eta errotze kultural handia duten talde maskulinoetan ere ahots maskulinorik ez dagoela.

Nahiz eta mutilen aldean nesken prebalentziaren fenomenoarekin Euskal Autonomia Erkidegoko haurren eta gazteen abesbatzetako zuzendariak kezkatuta agertzen diren, musika-jardueretan eta, bereziki, koru-jardueretan parte hartzeari dagokionez dauden aldeak ez dira berriak. Hala dio Elorriagak ahots-mutaren prozesuetan kantuaurren jarraitutasunari buruzko azterlanean (2011:102):

⁷ Albistea hemen eskura daiteke: <https://www.lavanguardia.com/vida/20230315/8825674/escolania-montserrat-incorpora-vozes-femeninas-primera-vez-mil-anos-historia.html> (2023ko irailaren 25ean kontsultatua).

⁸ Informazioa hemen eskura daiteke: <https://www.salisburycathedral.org.uk/worship-and-music/choirs-and-music/choirs/> (2023ko irailaren 25ean kontsultatua).

⁹ Albistea hemen eskura daiteke: <https://www.westminster-abbey.org/es/abbey-news/a-new-girls-choir-for-st-margarets-church/> (2023ko irailaren 25ean kontsultatua).

¹⁰ Albistea hemen eskura daiteke: <https://www.classicfm.com/music-news/girl-choristers-westminster-abbey-coronation/> (2023ko irailaren 25ean kontsultatua).

¹¹ Albistea hemen eskura daiteke: <https://www.stpauls.co.uk/our-choirs/> (2023ko irailaren 25ean kontsultatua).

¹² Informazioa hemen eskura daiteke: <https://traditionalcathedralchoirassociation.org.uk/> (2023ko irailaren 25ean kontsultatua).

Kantatzera animatzen diren gizonezko ikasle nerabeen faltaren gaia ez da berria, duela hamarkada batzuetatik musika-hezitzaileen zirkuluetan behin eta berriz errepikatzen den gaia da. Hala ere, gai horri buruzko ikerketa-ildo espezifiko bat garatzearena bai da berria, erlatiboki. Laurogeita hamarreko hamarkadara jo behar da gai honen inguruan nazioartean eragina duten lehen azterlanak aurkitzeko.

Hain zuzen ere, gabezia hori duela hiru hamarkada jaso zen literatura zientifikoan, “mutil galduen arazoa” edo *missing males problem* (Koza, 1993:213) gisa. Azterlanen arabera, nahiz eta XX. mendearen amaieran¹³ “arazotzat” jotzen zen mutilak musika-formakuntzako programe-tan parte hartzearen aurrean uzkur agertzea, batez ere eskola-talde koraletan, arazo hori ez zen “berria” (Koza, 1993:212), gutxienez XX. mendearen hasierakoa baizik. “Galdutako mutilen arazoa” duela mende bat baino gehiagotik hona konstante bat izan dela esan daiteke, eta horren aurrean hezitzaileak eta zuzendariak kezkatuta agertu dira, “krisi serio baten erdian” gaudela pentsatzeraino (Van Camp, 1987; Freer, 2007:28an aipatua). Geroko azterlanen arabera, oraindik ere genero-joera nabarmena dago, eta horrek motibatu egiten du mutilek musika-formakuntza aukera dezaten eta, ondoren, utz dezaten. Halaber, musika-jarduera maskulinitatearekin baino gehiago normalean feminitatearekin lotzen duten moduak eta kausak ikertzen ditu. Duela gutxi egindako berrikuspen bibliografiko baten arabera, “mutilek musika-jarduerarik “leunenak” –kantatzea, orkestra-instrumentu bat jotzea edo musika klasikoan inplikatzeta– femeninotzat jotzen dituzte, eta horrela, haietako askok sentitzen dute musika-jarduera horiek ezin direla txertatu beren rol maskulinoen erreperitorioan” (Nonte, Krieg, Stubbe, 2022:1462), gainera, identitate maskulinoa eraikitzeke ezau-

garri negatibotzat hartzen direlako. “Ni posibleak” edo *possible selves* (Freer, 2010) eraikitzeke teoria izan da gai honen inguruan egin den hurbilketarik sendoenetako bat.

Horrela, ondorioztatzen da tradizioz ahots maskulinoez soilik osatutako abesbatzetan neskak sartzeak –horietako asko, katedraletako eta abadetza ingelesetako abesbatzetan bezala, eliza-erakundeei hertsiki lotuak–, genero-berdintasunean irekitasun eta aurrerapauso gisa interpreta daitekeena, errealitate konplexuago bat ezkututzen duela, non mutilak gutxiengoa diren eta gero eta gutxiago diren, hain zuzen ere, sozialki eta kulturalki ezaugarri “femeninoekin” lotutako jarduera bat delako, horri buruz egindako azterketek adierazten duten bezala. Hala eta guttiz ere, aldaketa horien kultura-, gizarte- eta belau-naldi-etimologia konplexua da, eta txosten honen irismenetik kanpo geratzen da, baina beharrezkoa da horri ekitea, eremu horretan sortzen diren erronkei erantzun integrala eman ahal izateko, eta, era berean, musika-formakuntzari eta, bereziki, koru-kantuari dagokienez neska-mutileen artean dagoen desproporzioa ulertzeko. Bixia bada ere, desproporzio hori alderantzizkoa da botere- eta kudeaketa-postuak bete behar direnean, horietan gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa baita; horren erakusgarri dira txosten honen I. eranskinean kontsultatutako kultur programazioko eta kudeaketako profesionalak, guztiak gizonak baitira. Genero-ikuspegia txertatuko duten abesbatzen arloko etorkizuneko ikerketek, azken urteetan egindako azterketen biderei jarraituz, musika- eta abesbatza-jardueretan emakumeen prebalentziaren arrazoi inplizitu eta esplizituak hobeto ulertzen lagunduko dute, eta, beraz, errealitate horri erantzun hobea eman eta hobetu dezakeen ibilbide-orri bat taxutzen lagunduko dute.

Erreperitorioa: ahotsak

Koru batek lantzen duen erreperitorioaren motak eta haren ezaugarriek informazio garrantzitsuak eman dezakete, ez bakarrik kideen ahots-

¹³ Aipatu dugun Julia E. Kozaren ikerketaren helburua da, hain zuzen ere, gaur egun *Music Supervisors' Journal* aldizkarian genero-gai gisa ikusiko liratekeen gai kritikoak identifikatzea eta aztertzea eta ematen zitzaizkien emaitzak behatzea (Koza 1993).

gaitasunari eta koruaren maila artistiko orokorrari buruz, baita taldearen dinamizazio-mailei buruz ere. Ikuspegi musikal eta bokal hutsetik, ulertzen da hiru, lau edo ahots gehiagoko erreperitorioari kaudimenez ekin diezaiokeen abesbatza bat gaitasun-maila altuagoetan dagoela, ahots bakarreko eta biko erreperitorioa lantzen duen abesbatza bat baino.

Koruen %71,64k ahots bakarreko erreperitorioa lantzen dute, %76,12k bi ahotseko erreperitorioa lantzen dute, %38,06k hiru ahotseko erreperitorioa lantzen dute, %11,94k 4 ahotseko erreperitorioa menderatzen dute eta %2,24k lau ahots baino gehiagoko erreperitorioa lantzen dute. Korralisten kontzentrazioarik handiena 6-12 urteko etapan dagoela (koralista guztien %75, aurreko atalean ikusi den bezala) egia bada ere, espero da, bai etapa honen amaieran, bai ondorengo etapetan, abesbatzek hiru ahotsetarako erreperitorioa lantzeko adina gaitasun izatea, eta hori oso gutxitan gertatzen da. Nabarmentzekoa da kontserbatorioko abesbatzek, batez ere Oinarrizko Mailako eta Erdi Mailako azken ikasturteetako irakaskuntzetakoak, hiru ahotsetako erreperitorioa lantzen dutela, batzuk lau ahotsetako ere. Ikastetxe horietan jasotzen duten musika-formakuntza orokorra pizgarri garrantzitsua da formakuntza hori jasotzen ez duten beste abesbatza batzuek baino erronka musikal eta bokal zorrotzagoak beren gain hartu ahal izateko.

Ahotsak	Ahots 1	2 ahots	3 ahots	4 ahots	> 4 ahots
Abesbatzen kopurua	96	102	51	16	3
Portzentaia	71,64 %	76,12 %	38,06 %	11,94 %	2,24 %

Erreperitorio konplexu eta zorrotzei heltzeko aukera ematen duten musika- eta ahots-gaitasunak eskuratzea, lehenik eta behin, koruko kideen batez besteko adinari lotuta dago: eboluzio-etapa desberdinen artean dauden desberdintasun kognitiboek taldearen gaitasunetara egokitu

behar dituzte ikuspegia eta erreperitorioa. Hori kontuan hartuta, badira gaitasun horiek eskuratzea baldintzatzen duten beste faktore garrantzitsu batzuk:

- Jarduerari eskaintzen zaion denbora, hau da, talderako programatutako entseguen maiztasuna eta iraupena.
- Entsegu-saio horiek antolatzeke modua, iraupenaren eta hartutako konpromisoen, garatuko diren proiektuen eta aurreikusitako emanaldien arabera.
- Abesbatza zuzentzeko ardura duen pertsonaren musika-formakuntza eta ahots-gaitasun espezifikoak, haren formazio-profila edozein dela ere.
- Entseguetan laguntzeko, obrak ikasteko prozesuak errazteko eta emanaldiak prestatzeko zuzentzaile profesional bat edukitzeke aukera.
- Abesbatzako kideen ahots-gaitasunak hobetzeko eta haien autonomia indartzeko ahots-teknikako profesional bat edukitzeke aukera.

Beraz, erreperitorio konplexuagoei ekitea ahalbidetzen duten gaitasunak eskuratzeak eta indartzeak, aldi berean, horiek ahalbidetzen dituzten baliabide materialak eta giza baliabideak bermatzea eta egonkorzea eskatzen du.

Erreperitorioa: akonpainamendua

Koru bakoitzak lantzen duen erreperitorioak eskatzen duen ahots kopuruaren antzera, interpretatutako piezetarako akonpainamendu idatziak ikuspegi zabala eta, aldi berean, zehatza eskaintzen du ahots-gaitasunei eta taldeen dinamizazio-gaitasunei buruz. Pianoaz gain beste instrumentu batzuekin erreperitorioa egiteko aukerak –esaterako organoarekin (maila eta interese handikoak daude Euskal Herrian, eta, beraz, instrumentu horri lotutako erreperitorioa egin daitekeena eta eskuragarria da), orkestra batekin (gorte sinfoniko-koral edo operistikoagoko erreperitorioetarako pentsatua) edo era as-

kotako instrumentu-taldeekin –, koruen jardue-
ra ez ezik, beste musika-eragile batzuekiko izan
ditzaketen aliantzak eta trakzio-gaitasuna ere
ezagutzeko aukera ematen digu.

Zentzu horretan, bildutako datuek erakusten du-
tenez, erroldatutako 134 abesbatzetatik ia %80k
a cappella erreperitorioa lantzen du, hau da,
akonpainamendu instrumentalik gabe. Erreper-
torio-mota horrek gaitasun artistiko handiagoa
eskatzen du era egokian aritzeko, afinazio- eta
enpaste-erronkengatik, baina, aldi berean, hori
lortzeko baliabide material gutxien behar due-
na da, ez baitago interpretatzeko piano-jotzaile
laguntzaileak kontratatzearen mende. Korua eta
pianoa elkartzea, koru-erreperitorioan ohikoe-
netako bat, bereziki haurretan, hiru lurralde
historikoetan ere ohikoenetako bat da. Hala, da-
tuek adierazten dute Euskal Herriko ia haur eta
gazte abesbatza guztiek (%93 baino gehiagok)
erreperitorioa piano-akonpainamenduariekin jo-
rratzen dutela. Bitxia bada ere, aurrerago ikusi-
ko dugunez (ikus 4. multzoa: Egitura eta antola-
mendua; Profesionalak), 40 abesbatzak baino ez
dute lan-lotura duen pianista edo errepertorista
bat, eta beste 23k, berriz, taldearekiko boron-
datezko lotura duen pianista edo errepertorista
bat. Beraz, 125 abesbatzak erreperitorioa pianoa-
rekin interpretatzen duten bitartean, 63k baino
(ia erdiek) ez dituzte piano-jotzaile profesio-
nala edo boluntarioak. Hori baieztatzeko datuak
falta diren arren, gainerako abesbatzek profesio-
nal horiek emanaldietarako soilik izango dituz-
tela ulertzen da, baina ez ohiko entseguetarako.

Organodun erreperitorioari dagokionez, harri-
garria da 14 abesbatzak bakarrik lantzea erre-
peritorioa instrumentu horrekin; horietatik 10
Gipuzkoako lurralde historikoko abesbatzak
dira eta gainerako 4ak Bizkaikoak. Neurri ego-
kiak ezarri beharko lirake Euskal Herriko haur
eta gazte abesbatzek lankidetzak estuagoa izan
dezaten hiru lurraldeetan (eta bereziki Gipuz-
koan) aurki daitekeen ondare organistikoarekin;
ondare horrek tresna paregabeak ditu, mundu
osoan zehar preziatuak direnak beren ezauga-
rri arkitektoniko eta soinuuzkoengatik. Bestalde,

2022an 20 abesbatzek interpretatu zuten erre-
peritorioa orkestrarekin, ia %15ak; horietatik 9
Gipuzkoakoak ziren, 9 Bizkaikoak eta 2 Araba-
koak. Azkenik, koruen ia herenek (134tik 44k)
lantzen dute erreperitorioa instrumentu-mul-
tzoarekin. Erreperitorioak mota askotako forma-
zioak izan ditzake eta garai eta estilo guztietako
erreperitorioa har dezake.

Taula honetan, erreperitorioa *a cappella*, pianoz,
organoz, orkestraz eta instrumentuz interpreta-
tzen duten abesbatzen kopuruari buruzko da-
tuak jasotzen dira:

Akoinpaina- mentua	A capella	Pianoa	Organoa	Orkestra	Talde instrumentala
Abesbatzen kopurua	107	125	14	20	44
Portzentaia	79,85 %	93,28 %	10,45 %	14,93 %	32,84 %

Koruen profila aztertuz gero, araubide bereziko
ikastetxe arautuetako abesbatza askok, kontser-
batoriokoek alegia, erreperitorioa orkestrarekin
edo instrumentu-taldearekin lantzen dutela na-
barmentzen da (11 abesbatzetatik 8k, %72 bai-
no gehiago); araubide bereziko ikastetxe arautu
gabeetako abesbatzek, bestalde, lankidetzak han-
dia erakusten dute orkestrarekin eta instrumen-
tu-taldeekin (dauden 52tik 31k, ia %60). Horren
arrazoia izan daiteke baterako emanaldiak pro-
gramatzeko ikastetxe bereko instrumentu-tal-
deekin aritzeko aukera dutela. Izan ere, abes-
batzen %32k bakarrik (dauden 25etatik 8k) eta
araubide orokorreko ikastetxeetako abesbatzen
%19k baino gutxiagok (48 abesbatzetatik 9k)
lantzen dute erreperitorioa orkestrarekin edo
instrumentu-taldeekin.

Hala eta guztiz ere, abesbatzek askotariko for-
mazio instrumentala eskatzen duten erreper-
torioei heltzeko aukera izatea, -horrek dakarren
esperientzia- eta musika-pizgarriarekin-, abes-
batza horiek dinamizatzeko eta programa ho-
riek eskatzen duten maila artistiko eta pertona-
larekin defendatzeko beharrezkoak diren gaita-
sunak eskuratzeko akuilu izan daiteke. Horrela,
agian komenigarria izango litzateke lankidetzak

horiek lortzeko bideak aurkitzeko neurriak hartzea, adibidez koru-foro bat sortzea, eta foro horretara atxiki ahal izango lirateke instrumentu-taldeak eta baterako programak eta topaketak egiteko gaitasuna eta prestasuna duten orkestrak, bai eta haienzako berariazko errepertorioa sortzea ere. Era berean, oso onuragarria litzateke abesbatzek elizekiko lotura musikal egonkorrak ezartzea beren herrietan, koru, organista eta parrokien arteko sare bat sortu ahal izateko, eta balioan jartzeko alde batetik, euskal ondare organistikoa, eta, bestetik, musika-historian mendeak hartzen dituen instrumentuari lotutako koru-errepertorioa.


Abesbatzen jarduera-maila

Abesbatzek lantzen duten errepertorio-motak bere kompetentzia-mailari buruzko informazioa ematen digun bezala, bakoitzak urtero eskaintzen duen kontzertu-kopuruak talde bakoitzaren jarduera-mailari eta dinamizazio-kotei buruzko ideia bat ematen digu. Horretarako, 2022an –urte hartan kultura- eta musika-jarduerak normaltasuna lortu zuen Covid-19aren pandemiak eragindako urte ziurgabe batzuen ondoren– eskaintako emanaldien kopuruari buruzko datuak ez ezik, horien kokapenari (tokikoa, probintziakoa, autonomikoa, estatukoa edo nazioartekoa) eta emanaldi-motari (autokudeatua edo hirugarrenek ekoitzia) buruzkoak ere bildu dira. Hori guztia Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen jardueraren eta dinamizazioaren irudi zehatza lortze aldera.

Horri dagokionez, lehenik eta behin, azpimarratzekoa da sei taldek ez zutela jarduerarik eskaini 2022. urte osoan. Gainera, guztiak araubide orokorreko ikastetxeetakoak dira: hiru, ikastetxe publikoetako taldeak dira, eta beste hirurak itunpeko ikastetxeetakoak. Deigarriena eta kezagarriena, baina, abesbatza gehienek, %60k baino gehiagok alegia, urtean 1 eta 5 emanaldi bitarteko jarduera izatea da. Jarduera horietako gehienak (%87,6 –266 horietatik 233–), gainera,

autokudeatu egin ziren, eta zentro edo erakundetik kanpoko eragileek ez zituzten kontratatu edo ekoitzi beren abesbatzak. Era berean, 1. blokean adierazi den bezala, harrigarria da azterketan, erroldatutako hamaika kontserbatorioetatik hamar jarduera-tarte horretan egotea. Horretan eragina izan dezake talde horiek zirkunstantzialak izateak; izan ere, derrigorrezko ikasgai gisa sortu dira, kontserbatorioko ikasleen sektore jakin bati koru-jarduera ezartzen dion ikaske-ta-plan baten barruan, baina ez du sustatzen kanturako interesa, ezta ikasgeletatik haratago jarraitzeko interesa ere. Hurrengo jarduera-tartean (urtean 6-10 emanaldi) 35 abesbatza sartzen dira, erroldatutako koru-talde guztien %26. Ikus daitekeenez, urteko 10 emanaldi gainditzen dituzten abesbatzak gutxiengoa dira: abesbatzen %5ek urtean 11-15 emanaldi eskaini zituzten; %2k urtean 16-20 emanaldi eskaini zituzten (zehazki, 18 emanaldi eskaini zituzten talde horretako bi abesbatzek); eta koruen %2k urtean 21-25 emanaldi eskaini zituzten (zehazki, zerrrenda horretako bi abesbatzek 21 emanaldi eskaini zituzten).

Urteko emanaldien kopurua	Abesbatzen kopurua	Erantzunak
Emanaldirik ez	6	134
1-5 emanaldi artean	82	
6-10 emanaldi artean	35	
11-15 emanaldi artean	7	
16-20 emanaldi artean	2	
21-25 emanaldi artean	2	
25 emanaldi baino gehiago	0	

Abesbatzen jarduera

Hurrengo tauletan, jarduera-tarte bakoitzean dauden abesbatzen profilaren eta kopuruaren araberako datuak erakusten dira.

Urtean 1-5 emanaldi eskaini dituzten abesbatzak:

Abesbatzaren profila	Abesbatza kopurua	Guztira
Araubide orokorreko ikastetxeak: ikastetxe publikoak	13	82
Araubide orokorreko ikastetxeak: itunpeko ikastetxeak	24	
Araubide bereziko ikastetxe arautuak: kontserbatorioak	10	
Arabide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola publikoak	21	
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola pribatuak	9	
Elkarteak	5	

Urtean 6 eta 10 emanaldi artean eskaini dituzten abesbatzak:

Abesbatzaren profila	Abesbatza kopurua	Guztira
Araubide orokorreko ikastetxeak: ikastetxe publikoak	1	35
Araubide orokorreko ikastetxeak: itunpeko ikastetxeak	3	
Araubide bereziko ikastetxe arautuak: kontserbatorioak	0	
Arabide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola publikoak	8	
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola pribatuak	10	
Elkarteak	13	

Urtean 11 eta 15 emanaldi artean eskaini dituzten abesbatzak:

Abesbatzaren profila	Abesbatza kopurua	Guztira
Araubide orokorreko ikastetxeak: ikastetxe publikoak	0	7
Araubide orokorreko ikastetxeak: itunpeko ikastetxeak	1	
Araubide bereziko ikastetxe arautuak: kontserbatorioak	0	
Arabide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola publikoak	3	
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola pribatuak	0	
Elkarteak	3	

Urtean 15 eta 20 emanaldi artean eskaini dituzten abesbatzak:

Abesbatzaren profila	Abesbatza kopurua	Guztira
Araubide orokorreko ikastetxeak: ikastetxe publikoak	0	2*
Araubide orokorreko ikastetxeak: itunpeko ikastetxeak	0	
Araubide bereziko ikastetxe arautuak: kontserbatorioak	1*	
Arabide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola publikoak	1*	
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola pribatuak	0	
Elkarteak	1	

* Abesbatzaren profilaren eta guztizkoaren araberako batura ez dator bat abesbatzetako batek profil mistoa delako: izan ere, aldi berean kontserbatorio eta musika-eskola publiko batekoa da.

Urtean 20 emanaldi baino gehiago eskaini dituzten abesbatzak:

Abesbatzaren profila	Abesbatza kopurua	Guztira
Araubide orokorreko ikastetxeak: ikastetxe publikoak	0	2
Araubide orokorreko ikastetxeak: itunpeko ikastetxeak	0	
Araubide bereziko ikastetxe arautuak: kontserbatorioak	0	
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola publikoak	0	
Araubide bereziko ikastetxe arautu gabeak: musika-eskola pribatuak	0	
Elkarteak	2	

Oro har, gabezia handiak ikusten dira Euskal Autonomia Erkidegoko haurren eta gazteen abesbatzen elkarten dinamizazioan, batez ere araubide orokorreko ikastetxeetan (ikastetxeak) eta araubide bereziko ikastetxe arautuetan (kontserbatorioak). Koru-jarduerak eskaintzen dituen gaitasunak eskuratzea, eta gizarte emozio- eta esperientzia-aberastasuna, neurri handi batean, hainbat formatutako emanaldi eta kontzertuen bidez gizarteari eta publikoari irekitzearen mende dago, bai eta abesbatzen arteko topaketen eta elkartrukeen bidez ere, are gehiago haurren eta gazteen etapan. Beraz, haur eta gazteen euskal abesbatzen sarea suspertzeko, jarduera hori gizarte osoari modu integrarean erakusteko konpromisoa hartu behar da.


Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzek eskainitako emanaldien guztizko kopuruari, kokapenari eta kudeaketa-motari dagokienez, datuek erakusten dute azken urtean guztira 710 emanaldi eskaini direla, eta horietatik %70 baino gehiago tokikoak izan direla, hau da, elkarteek beren udalerrian eskaini dituzte; %15 probintzia-mailan eman dira; %4 autonomia-erkidegoan; %7 estatuan; eta %2 nazioartean es-

kaini dira. Datu horiek haur eta gazte abesbatzen mugikortasunari buruzkoak dira, edozein formatutakoak direla ere. Ikus daitekeenez, taldeen %87k ez zuen kontzerturik eskaini beren probintziatik kanpo, eta soilik %9k izan zituen kontzertuak edo konpromiso artistikoak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Bestalde, bildutako datuek adierazten dutenez, Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzek eskainitako emanaldi guztien bi heren autogestionatu egin ziren, hau da, abesbatzaren beraren esku egon zen programazioa, antolaketa, ekoizpena eta garapena, kanpoko eragileen esku-hartzerik gabe.


Ondorengo taulan emanaldien guztizko kopuruaren zerrenda jasotzen da, kokapenaren eta kudeaketa-motaren arabera sailkatuta:

	Autokudeatuak	Hirugarrenek ekoizitakoak	GUZTIRA
<i>Tokian</i>	393	118	511
<i>Probintzian</i>	45	62	107
<i>Erkidegoan</i>	8	24	32
<i>Estatuan</i>	16	31	47
<i>Nazioartekoak</i>	4	9	13
	466	244	710

2022ko emanaldien kokapena




2022ko emanaldien kudeaketa mota




Kudeaketa motari dagokionean emanaldien kopuruari buruz lortutako datuak kontuan hartuta ikusten da, lehenik eta behin, abesbatzek beren udalerrian eskaintzen dituzten kontzertuen %77 autokudeatu egiten direla. Udalerritik kanpo, aldiz, beti da handiagoa hirugarrenek ekoiztutako emanaldien kopurua autokudeatutakoena baino: udalerritik kanpoko emanaldien kasuan, baina probintziaren beraren barruan, %58 hirugarrenek ekoiztutakoak dira; probintziatik kanpo baina Autonomia Erkidegoaren barruan eskaintzen diren emanaldien %64 hirugarrenek ekoiztutakoak dira; Autonomia Erkidegoetik kanpoko eta estatu-mailako emanaldien %66 hirugarrenek ekoiztutakoak dira; azkenik, nazioarteko emanaldien %69 hirugarrenek ekoiztutakoak dira. Horrela, ikusten da tokiko emanaldietan alde nabarmena dagoela kudeaketa motan udalerritik kanpo eskaintutako emanaldiekin alderatuta. Bildutako datuek kontzertuak (musikalak, kulturalak, instituzionalak edo bestelakoak) programatzen dituzten eragileen tipologiai buruzko informaziorik ematen ez duten arren, ondorioztatzen da jarduera handiena duten haur eta gazte abesbatzak maizago eskatzen direla beste udalerriri eta probintzia batzuetatik, baita estatuko eta nazioarteko instantzietatik ere. Harrigarria da, hala ere, urtero eskaintzen diren jarduera gehienak abesbatzek beraiek eta beren udalerrian bertan kudeatzea.

2022ko emanaldien kopurua, kokapena eta gestio mota




Ondorengo grafikoetan emanaldien kudeaketa mota erakusten da, kokapenari dagokionean:


Tokiko maila




Probintzia-maila




Erkidego-maila



Estatu-maila




Nazioarteko maila




■ Autokudeatuak
■ Hirugarrenek ekoiztutakoak

Ondorengo grafikoetan, emanaldien kokapena erakusten da, kudeaketa-motari dagokionean:

Autokudeatutako emanaldiak



Hirugarrenek ekoiztutako emanaldiak



Datuek adierazten dute, beraz, Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen kontzertu-jarduera batez ere endogamikoa dela, hau da, gehienbat abesbatzak kokatuta dauden udalerrri edo probintziara mugatzen dela. Egoera hori iraultzeko, komenigarria litzateke koru horien mugikortasuna sustatzeko moduak aztertzea, topaketen eta elkartrukeen bidez. Aldi berean, badirudi beharrezkoa dela tokiko udalek beren udalerrriko abesbatzak barne hartzen dituzten jardueren programazioan duten inplikazioa indartzea, adibidez, inplikazio handiagoa erakutsiz beren herriko haur eta gazte abesbatzek presentzia

handiagoa izan dezaten ekitaldi publiko eta instituzionaletan. Horrek bere posizionamendu publiko eta soziala indartzeaz gain, lotura sozial eta kultural egonkorragoak eta emankorragoak sortuko lituzke udalerrian bertan, udalerritik kanpo ere proiektatzeko aukerekin.

Hala eta guztiz ere, haur eta gazte abesbatzen mugikortasuna garrantzitsua da hainbat arrazoirengatik. Lehenik eta behin, abesbatzaren konpromiso artistikoak areagotu eta dibertsifikatzean, taldearen dinamizazio handiagoa lortzen da, eta horrek, beti, taldearen kohesioa areagotzen du, eta kapital soziala aberasten du. Konpromiso horiei lotutako jarduerak, bestalde, giza baliabideak eta baliabide materialak inbertitu beharko ditu taldeen gaitasun-mailak handitzeko. Horrek guztiak, azken finean, haur eta gazte abesbatzen sarea indartuko luke eta, aldi berean, kanpoko proiektzioa bultzatuko luke.

3. multzoa. Zuzendaritzaren profila

Zuzendarien formakuntza

Atal honetan haur eta gazteen abesbatzetan musika-zuzendaritza beren gain hartzen duten pertsonen formakuntza-profila aztertuko da. Gaur egun, goi-mailako formakuntza espezializatua eskaintzen duen erakunde bakarra, Goi-mailako Arte Irakaskuntzen Europako esparruarekin lerrotatuta, Musikene da, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Zentroa. Kalitate handiko formakuntza da, baina sarbidea oso mugatua du. Azken bi deialdietan, ikasturte bakoitzean bi plaza baino ez dira eskaini zuzendaritzako espezialitatean sartzeko.

Arautu gabeko formakuntzaren esparruan, Euskal Herriak badu Abesbatzen Elkarteak az-

ken hamarkadetan bere Koru Zuzendaritzako Akademiaren bitartez eskaintzen duen formakuntza. Akademia horrek, 2023an, 41. edizioa ospatu du. Urte hauetan guztietan, Ikastegiak kalitate handiko formakuntza-lana gauzatu du, ikasle goa egungo beharretara egokituz eta Euskal Herriko zein Estatuko zuzendarientzako formakuntza-gune bat eskainiz. Ikastaroak hiru mailatan antolatuta daude, maila bakoitzerako irakasle-talde berezi batekin, eta, beraz, irakaskuntza-metodologiak egitura finkatua du.

Azterlan honetan lortutako datuetan ikus daitekeenez, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatzen duen Koru Zuzendaritzako Akademiako edizioen batean 59 zuzendarik parte hartu dute ikasle gisa. Horien artean: 8k 1. maila amaitu dute, 28k 2. maila amaitu dute eta 23k 3. maila amaitu dute. Beste 51k, gainera, Euskal Herriko abesbatzen federazioek eskaintako bestelako ikastaro batzuk egin dituzte.

Lortutako emaitzetan ere goi-mailako tituludunen kopuru handi bat dagoela ikus daitekeen arren –22 guztira, Zuzendaritzako Goi Mailako Gradua eta Zuzendaritzako Goi Mailako Titulua (66ko Plana) kontuan hartuta–, egia da, halaber, horiek direla, askotan, hainbat abesbatza zuzentzen dituztenak, eta, beraz, goi-mailako tituludunen kopurua askoz ere txikiagoa da zifra absolutuetan.


Azpimarratzekoa da gure haur-eta gazte-taldeen musika-zuzendaritza beren gain hartzen duten pertsonen artean koru-zuzendaritzari buruzko formakuntza espezifiko ez dela espero zitekeen bezain handia. Horrela, datuek erakusten dutenez, beste esparruetako musika-formakuntza (kantua, musika-pedagogia edo beste musika-espezialitate batzuk) koru-zuzendaritzako espezifikoaren nahiko parekoa da, eta hortik ondorioztatzen da une honetan gure abesbatzen musika-zuzendaritza beren gain hartzen duten profesionalen artean berriazko formakuntza-indize handiagoa faltako litzatekeela.

Tituluak	Maila	Zuzendari kopurua
Koru zuzendaritza	Goi Mailako Gradua	14
	Goi Mailako Titulua (66ko plana)	8
	3. maila	17
Kantua	Goi Mailako Gradua	13
	Goi Mailako Titulua (66ko plana)	7
	Gradu Profesionala	20
	3. maila	11
Musika-pedagogia	Goi Mailako Gradua	17
	Goi Mailako Titulua (66ko plana)	13
Beste musika espezialitate batzuk	Goi Mailako Gradua	14
	Goi Mailako Titulua (66ko plana)	31
	Gradu Profesionala	25
Zuzendaritza-akademia	1. maila	8
	2. maila	28
	3. maila	23
Euskal Herriko abesbatzen federazioen ikastaroak		51
Inolako titulazio espezifikorik gabe		10
Titulaziorik gabe, baina Akademiako ikastaroak egin dituzte		7
Titulaziorik eta Akademiako edo bestelako ikastarorik gabe		1

Egia da Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak formakuntza-arloan egin duen lana oso baloragarria dela, baina egia da, halaber, zuzendari potentzialen etengabeko formakuntza gisa, ez dela nahikoa, edizioak deialdi bakar batean egiten baitira udan. Hori dela eta, nabarmendu behar da koru-zuzendaritzako espezialisten eta, zehazki, haur eta gazteen taldeen eskariari erantzun diezaioketen zuzendariak edukitzeko, beharrezkoa izango litzatekeela gaur egungo eta are gehiago etorkizuneko beharrak asetzeko gai izango den formakuntza-espazio bat sortzea, batez ere burutu beharreko ekintzen arabera,

Euskal Autonomia Erkidegoan adin goiztiarretan abesbatza-jarduerak gora egiten duenean.

Zuzendarien ikasketa profila



Zuzendaritzan eta berariaz korala den pedagogiaren arloan formakuntza oso espezializatua duten profesionalak egoteak koru-jardueraren norabide anitzeko garapena ahalbidetu, erraztu eta sustatuko du, eta, horri esker, jarduera kuantitatiboki handitzeaz gain, kalitatea pixkanaka handitu egingo da, parte-hartzea areagotuko da eta abesbatzen maila handiagoa izango da.


Lan-araubidea

Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen musika-zuzendaritza beren gain hartzen duten pertsonen lan-profilari dagokionez, oro har, beren lana modu arautuan betetzen duten profesionalak direla esan daiteke. Kasuen ia %80an, profesionalaren eta zerbitzua jasotzen duen erakundearen arteko kontratu-harremana dago, kontratu espezifiko baten bidez edo zentroko plantillaren zati gisa. Une honetan ordainsari-mailak ezagutzen ez badira ere, lortutako datuek koru-zuzendaritzaren profesionalizazio-joera zehatza dagoela pentsatzeko aukera ematen dute, baita espezializazio-maila handirik ez dagoen kasuetan ere.

Jasotako 133 erantzunen artean, profesionalen %10 inguru autonomo gisa alta emanda dago eta %20 funtzionarioak dira. Funtzionarioen kasuan, zehaztu beharko litzateke ea beren lana ikastetxe publiko batean egiten duten irakasleak diren (araubide orokorreko edo bereziko irakaskuntzetakoak) eta haien koru-jarduera dagokien ikastetxeari lotuta dagoen zuzenean. Aurrerago adierazten diren alderdi batzuk ere zehaztu beharko lirateke.

“Borondatezko lotura” gisa tipifikatutako kasu dagokienean, jarduera gauzatzen duen pertsonak zuzendaritza-lana eremu *amateurrean* garatzen duen edo definitutako profil sozialeko jarduera den egiaztatu beharko litzateke.

Zuzendarien lan-araubidea



Lan-kontratu mota	Zuzendari kopurua	Erantzunak
Kontratua	78	133
Autonomoen araubidea	12	
Funtzionarioak	27	
Boluntarioak	16	

Ondorengo azterlan batek zehatzago aztertu beharko litzuzke jarraian adieraziko diren alderdi batzuk, koruko zuzendarientzako lan-araubide espezifiko bat tipifikatzea ahalbidetuko lukeen prozedura bat ezartzeko. Jarraian, alderdi aipagarrietako batzuk azalduko ditugu:

- Gaur egun dauden kontratuen kasuan, komenigarria litzateke aztertzea ea nola-baiteko uniformetasun-tarterik ba ote dagoen zuzendaritza-lanaren ordainsariari dagokionean. Hala ez balitz, profesionalaren espezializazio-maila kontuan hartuko luketen tarifak ezarri beharko lirateke.
- Koru-zuzendaritzako lana ikastetxe batean garatzen duten funtzionarioen kasuan, beharrezkoa litzateke zehaztea zuzendaritza-lan hori ikastetxeari eskainitako ordutegiaren barruan edo hortik kanpo dagoen. Koru-jarduera irakaslearen ordutegian jasota ez badago, egoera hori konpontzea komeni da, etorkizunean ordutegian jaso dadin edo, bestela, berariazko osagarriren bat jaso dadin koru-jarduera ikastetxean egiteagatik eta koruak jarduera horren jarraipenean eta garapenean parte har dezan.
- Boluntarioei dagokienean, komenigarria litzateke jardueragatik ordainsaririk jasotzen ez duten pertsonak (beren ekarpen profesional eskuzabala eskatzen duen gizarte-proiektu batean modu kontzientean laguntzen dutelako) burutzea lana. Kasu horietan, oso garrantzitsua izango litzateke, lankidetzara eskuzabala izan arren, jarduera garatzen duen pertsona beharrezko espezializazioa duen profesional bat izatea. Bestela, egokia litzateke administrazioek baliabideak ematea erakunde horiei, profesional espezialisten laguntza izan dezaten beren abesbatza-jarduera garatzeko. Kontuan izan behar da boluntarioen bitartez gauzatutako proiektuen kasuan, gizarte-proiektu bati lotuta daudenez, garrantzi berezia duela koru-jarduera garatzen duen pertsonak koru-praktikaren kalitatea bermatuko duen formakuntza espezializatua izatea. Koru-jarduera musikaz haraindiko helburuak lortzeko tresna gisa erabiltzen duen gizarte-proiektu bat benetan eraginkorra izan dadin, beharrezkoa da koru-praktika hori goi-mailako profesionalak garatzea.

4. multzoa.

Egitura eta antolaketa


Abesbatzek hainbat behar espezifiko dituzte, bai beren jardueraren ohiko garapenerako, bai hazteko eta musika-proiektu gisa finkatzeko. Ezin ahaztu dezakegu hasiera batean abesbatzak praktika musikal kolektiborako gune gisa sortzen direla, hori ezaugarri kualitatibo nagusietako bat izanik. Nahiz eta egia izan jarduerak musikal izan ohi dela jardueraren helburu nagusia, jardueraren inguruan sinergia batzuk sortzen dira, garrantzi handiko oinarri soziologikoa duen konglomeratu oso bat osatzen dutenak. Aldagai horiek kontuan hartuta, abesbatza bakoitzak konplexutasun-maila desberdinak izan ditzaketan antolaketa-egiturak eta -ereduak ditu. Edonola ere, hori ezin daiteke alde batera utzi, haurren abesbatzen jarduera garatzeko eta ezartzeko erabakigarria izango baita.

Entsegu-lekua

Arestian azaldutakoaren arabera, edozein abesbatzak eguneroko bilakaeran duen lehentasunetako bat da entseguak garatzeko gune bat edukitzea. Azken aldian, eta pandemiak sortutako zirkunstantzien ondorioz, espazio jakin batzuen erabilera mugatzeak abesbatzetan eragin oso negatiboa izan duela egiaztatu ahal izan dugu, eta, kasu batzuetan, horietako batzuk desagertu egin direla, aldi baterako behintzat.

Entsegu-lokal mota	Koru kopurua	Erantzunak
Lokala jabetzan	4	134
Udalak utzitako lokala	16	
Erakunde pribatuek utzitako lokala	3	
Kide den ikastetxeke lokala	107	
Parrokia-lokala	2	
Besteak: alokairua	2	

Entsegu-lokal mota



Hori esanda, eta azterlan honetan lortutako datuak kontuan hartuta, Euskal Herriko haurren abesbatzen %80 inguruk erreferentziatzat beren ikastetxea hartzen dutela ikusten da. Izan ere, 1. multzoan jasotako datuetan ikusi den bezala (ikus goian), koruen %81 irakaskuntza-zentroetakoak dira, erregimen orokorrekoak zein berezikoak. Datuetatik abiatuta, beste erakunde batzuek espazioak lagatzeari dagokionez izan ditzaketen beste aukeretako edozeinek garrantzi txikiagoa duela egiazta daiteke. Ehuneko askoz txikiagoan bada ere, udalak ondorengo erakundeek izango lirateke koru-jarduera garatzeko espazioak lagatzeari dagokionean.


Matrikulazio-araubidea

Abesbatzen barne-antolamenduaren beste alderdi garrantzitsuenetako bat taldea osatzen duten kideen eta abesbatzaren arteko lotura ekonomikoa da. Haur-taldeen kasuan, azterlan honetan egiazta daitekeenez, kasu gehienetan ikastetxeei lotuta dauden abesbatzak dira. Zentzu honetan, bi lotura posible aurkitzen ditugu: koru-jarduera matrikula orokorrean sartuta dagoenean eta koru-jarduerarako matrikula espezifikoa bat ezartzen denean. Ehuneko txikiago batean bazkidekuota duten abesbatzak daude, eta antzeko porzentaia batean, matrikulazio-erregimen espezifikorik ez dutenak.

Titulazio ofizial eta homologatua da, MECESeko (Goi Mailako Hezkuntzako Kualifikazioen Espainiako Esparrua) 3. mailarekin eta EQFko (Kualifikazioen Europako Esparrua) 7. mailarekin bat datorrena. 120 ECTSko eskola-karga erdipresentziala du, eta sei modulutan egituratutako masterra da. Derrigorrezko irakasgaiak, hautazkoak, praktikoak eta sorkuntzakoak biltzen ditu. Musikeneko webguneak¹⁷ ez ditu irakaskaien eduki espezifikoak eta irakaskuntza-gidak zehazten, eta, beraz, zaila da baloratzea curriculum koruaren errealitate zenbateraino egokitzen den. Hala eta guztiz ere, irakaskaien tituluek ez dute bereziki aipatzen errealitate hori edo horrek eskatzen dituen kudeaketa-gaitasun espezifikoak, hala nola lan-esparruei buruzko legeria, elkartearen araubidea, mezenasgoa edo kontratazio publikoari lotutako gaiak. Gainera, webgune horretan adierazten denez, kreditu bakoitzeko 65 euroko kostua duen masterra da, eta masterra osatzeak 7.800 euroko guztizko ordainketa ekarriko luke, eta horrek euskal unibertsitate publikoak eskaintzen dituen ezagutza-

¹⁷ <https://musikene.eus/masters/musika-arloko-bitartekaritza-kudeaketa-eta-zabalkundeko-masterra/?lang=eus> (2023ko maiatzaren 23an kontsultatua).

ren adar bereko beste master batzuen batez besteko prezioa baino askoz ere gorago jartzen du¹⁸.

Musika-proiektuak zabaltzeko graduondoko ikastaroa

Ikastaro propioa da, homologaziorik gabekoa, 4 orduko bost lanalditan banatutako 20 orduko karga duena. Webgunean¹⁹ dagoen deskribapenak honela dio:

Musikari profesionalentzat ikastaro praktikoa, norberaren edo besteen musika-proiektuak diseinatzeko, garatzeko eta ezagutarazteko lagunduko dieten tresnak eskuratu ahal izateko.

Helburu nagusia komunikazio-estrategietan prestatzea da, lan praktikoa eta pertsonalizatuan oinarritutako metodologiarekin. Saiotetan, benetako adibideen azalpen orokorrak eta ikasle bakoitzaren proiektuarekiko arreta indibidualizatua uztartuko dira.

Edukiak ez daude irakaskuntza-gida bakar batekin ere lotuta, eta, oro har, proiektuak diseinatzera eta ekintzailatzera bideratuta daude, baina ez dira kultura-elkarteen edo kultur-taldeen kudeaketarekin edo administrazioarekin zuzenean lotutako gaiak buruzkoak. Ikastaro horrek 700 euroko kostua du.



Indarrean dauden formakuntza-planak aztertu ondoren, ondorioztatzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoan kultura-kudeaketaren eremu espezifikoan eskura dagoen formakuntza presentzialak ez diela erantzuten koru-errealitatearen premiei. Horregatik, eta alde batera utzi

¹⁸ Hona hemen Euskal Herriko Unibertsitateko master ofizialen prezioen taula: <https://www.ehu.es/eu/web/masterrak-eta-graduondokoak/unibertsitate-masterrak/aurretiko-izen-ematea-eta-matrikula/prezioak/masterren-prezioen-aula> (2023ko maiatzaren 23an kontsultatua).

¹⁹ Vide: <https://musikene.eus/cursos-de-especializacion/musika-proiektuak-zabaltzeko-graduondoko-ikastaroa/?lang=eu> (2023ko maiatzaren 23an kontsultatua).

gabe kudeatzaileek gaitasun hobea dutela beren jarduerara betetzeko lanpostu horietara bideratutako formakuntzarekin, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak onartzen du abesbatzen errealitateari aplikatu beharreko araudia nahikoa espezifikoa eta konplexua dela, eta horrek beren jardueraren edozein alderdiri buruzko zalantzak (elkartearen funtzionamendua, zerga-araubidea, lan-araubidea eta gizarte-segurantzakoa, etab.) argitu ahal izateko abesbatza federatuei lege-aholkularitzako zerbitzu bat abian jartzea aholkatzen duela.

Espezifikoki, Elkarten Erregistroko inskripzioa kudeatzeko zerbitzua eskainiko da, bai eta sortu berri diren koru-erakundeen IFZ lortzeko zerbitzua ere.

Gainera, jarduera horretan kudeatzaileen lana errazteko dokumentuak prestatuko dira, esaterako, estatutu-ereduak, akten ereduak eta abar.

Euskal Herriko musika koralaren ingurunea nagusiki amateurra denez, proposatutako ekintzaren bidez Administrazio Publikoekiko harremanetan Elkarteko kide diren abesbatzak kudeatzeaz arduratzen diren pertsonen gaitasunak hobetu nahi dira. Horrela, “Abesbatzei aplikatutako kultura-kudeaketaren legeko alderdiak” formakuntza-ibilbidea sortzea proposatzen da, honako eduki orokor hauekin:

1. Elkarteak:
 - a. Sortzeko prozesua eta Elkarten Erregistroarekiko betebeharrak.
 - b. Elkarten barne-funtzionamendua.
 - c. Zerga-araubidea (IFZ; Informazio Betebeharrak; BEZ; Sozietateen gaineko Zerga).
2. Mezenasgoa (Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako Foru Arauak).
3. Administrazio-prozeduraren oinarritzko alderdiak.
4. Kontratazio publikoa eta dirulaguntzak (bi figuren arteko bereizketa kontzeptuala; dirulaguntzen prozedura; kontratazio publiko artistikoa).

5. Erreferentziazko lan-esparruen legezko aspektuei buruzko formakuntza: autonomoen araubidea, legeria.

Lege-aholkularitza hori abian jartzeko, lege-arloan adituak diren eta EAEko abesbatzen errealitatearekin eta egiturarekin ohituta dauden langileak egongo dira.

Koru-zuzendaritza

Gaur egun, hainbat formakuntza-ibilbide dago abesbatza-zuzendaritzako edozein profesionali eskatzen zaizkion gaitasunei dagokienean. Ondorengo ataletan garrantzitsuenak deskribatzen dira.

Goi Mailako Irakaskuntza Espezifikoak: Koru Zuzendaritza eta Orkestra Zuzendaritza

Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiak (Musikene) zuzendaritzan prestatzeko bi titulu eskaintzen ditu gaur egun: Koru-Zuzendaritzako Gradua eta Orkestra-Zuzendaritzako Gradua. Goi-mailako irakaskuntza horiek esku-men-mailan araututa badaude ere eta Unibertsitateen Legeak ezarritako eskakizunak betetzen badituzte ere, nolabaiteko desadostasuna dago irakaskuntza horien helburuen edo formakuntza-asmoen eta inguruko koru-errealitatearen artean. Deigarria eta kezagarria da Koru Zuzendaritza Graduaren eta Orkestra Zuzendaritza Graduaren ikasketa-planetan²⁰ haur edo gazte taldeen zuzendaritzarekin edo koru- eta ahots-pedagogiarekin lotutako irakasgairik ez egotea. Besteak beste, honako ahulgune hauek antzeman dira:

- Musikenen eskainitako Koru- Zuzendaritza eta Orkestra- Zuzendaritza Graduaren promozioak ikasturte bakoitzeko 2 ikaslerak mugatuta daude. Txosten honetan bildutako datuei erreparatu gero, ikusten

da haurren eta gazteen koru-errealitatea mantentzeko eta indartzeko koru-zuzendaritzan gaitasun espezifikoak dituzten askoz profesional gehiago behar direla.

- Aipatu Zuzendaritzako Graduaren ikasketa-planetan haur eta gazte abesbatzen zuzendaritzarantzarako orientazio falta sumatzen da, beraz, graduatuek ez dute ezaugarri horiek dituzten taldeekin lan egiteko tresna pedagogiko eta tekniko espezifikorik.
- Oro har, haur eta gazteentzako abesbatza-zuzendaritza ez dago jasota goi-mailako irakaskuntzetako, edozein musika-espezialitatetako curriculumetan.

Bitxia bada ere, Musika Pedagogiako Graduaren honako irakasgai hauek daude: “Ganbera-abesbatza” (2. maila, 2 ECTS; 3. maila, 2 ECTS), “Koru- eta instrumentu-zuzendaritza” (3. maila, 3 ECTS; 4. maila, 3 ECTS) eta “Haurren abesbatza-kantua: errepertorioa eta didaktika” (4. maila, 3 ECTS). Formakuntza korala alderdi pedagogikoan funtsezko tresna bada ere, beharrezkoa da haurren eta gazteen koru-zuzendaritza Koru Zuzendaritza Nagusiaren funtsezko zati banaezintzat hartzea, eta ez soilik Musika Pedagogiaren gehigarri gisa.

Lortutako datuetatik ondorioztatzen den analisiaren arabera, euskal abesbatzen ehunak ez du gaitasun espezifikorik haurren eta gazteen abesbatza-zuzendaritzan, eta, beraz, pentsa daiteke Koru Zuzendaritza goi-mailako irakaskuntzen egungo antolamenduak ez diela erantzuten euskal abesbatzen beharrei. Elkartearen ustez, beharrezkoa da erreforma txikiak egitea, ikasketa-planak berariazko edukien eta helburu errealisten arabera diseinatzeko. Horretarako, bi ekintza zehatz proposatzen dira:

- Haur eta Gazte Abesbatzen Zuzendaritzako Didaktika edo Pedagogia irakasgai bat sartzea Koru Zuzendaritza Goi Mailako ikasketa-planean. Irakasgai horretan gaitasun espezifikoak ezarriko dira haurren ahotsa errespetatu eta ulertuko duen kantua behar bezala irakasteko –

²⁰ Gradu horien ikasketa-plana hemen aurki daiteke: https://musikene.eus/wp-content/uploads/2023/09/IKASKETA_PLANA_2324.pdf (2023ko maiatzaren 23an kontsultatua).

arreta berezia jarriko da ahots-mutuko prozesuetan-, eboluzio-etapa edo gaitasun-maila bakoitzerako errepertorioa aukeratzeko orientazioa emango da, euskal ondarea zainduko duena. Era beran, haur eta gazteek obrak irakurtzen, prestatzen eta buruz ikasten ikas dezaten, entseguen gai dinamikoei eta kudeaketari dagokionean lan trinkoa egingo da.

- Haur eta Gazte Abesbatzen Zuzendaritzan Master bat sortzea, sarbidea Musika Pedagogiako, Kantuko eta Koru- eta Orkestra-Zuzendaritzako Goi-Mailetatik izango duena. Helburu nagusia eta garrantzitsuena goi-mailako hezkuntza osatu edo beren karrera profesionala haurren koru zuzendaritzara bideratu nahi duten musikako profesional guztiei formakuntza espezifiko eta espezializatua eskaintzea izan behar du.

Goi-Mailako Irakaskuntza Orokorrak: Hezkuntzako Gradua

Goi-mailako irakaskuntza orokorreari dagokienez, Euskal Herriko Unibertsitateak eskainitako Lehen Hezkuntzako Graduak eta Haur Hezkuntzako Graduak Musika Hezkuntzaren Aipamena dute. EHUren hezkuntza-eskaintzan²¹ adierazitakoaren arabera, “Aipamen” horrek esan nahi du 30 ECTS gainditu behar direla laugarren ikasturteko lehen lauhilekoan, hau da:

- Ahots Hezkuntza eta Kantua (6.0 Kreditu)
- Entzumen Hezkuntza (6.0 Kreditu)
- Erritmoa, Mugimendua eta Dantza (6.0 Kreditu)
- Hizkuntzen Elkarrekintza. Ikus-entzunezko Kultura. Azterketa Genero Ikuspegitik (6.0 Kreditu)
- Prestakuntza Instrumentala (6.0 Kreditu)

Ikus daitekeenez, nahiz eta irakaskuntza-gidok eduki interesgarri batzuk dituzten, ikasketak ez du berariazko formakuntzarik jasotzen koru-kantuari, haur-ahotsari edo musika-didaktikari dagokionean, eta ez du zehazten matrikulatutako ikasleek lortu beharreko gutxieneko gaitasun-maila. Hala ere, “Musika Hezkuntzako Aipamena” delakoari dagozkion kredituak onartzeak Lehen Hezkuntzako maila guztietan Musika irakasgaia emateko gaikuntza ofiziala ematen du. Hori bereziki deigarria eta kezagarria da funtsezko bi gertakari kontuan hartzen badira: lehenengoa, haur hezkuntzako formazio integralerako lehen tresna, bai alderdi musikalean, bai emozioetan eta harremanetan, ahotsa dela; bigarrena, aipamen horretara iristeko ez dela beharrezkoa alde aurretik inolako musika-ezagutza edo -formakuntzarik izatea. Analogia gisa, hitz egiten, irakurtzen eta idazten ez dakien pertsona bati “hizkuntza-irakasle” titulua ematen ari balitzaio bezala da.

Horregatik guztiagatik, goi-mailako irakaskuntza orokorre eskaintzen duten formazio-bideak gabezia larriak ditu oinarrian, eta, beraz, ez da nahikoa ahots- eta koru-hezkuntza barne dituen musika-hezkuntzako profesionalak prestatzeko. Egoera hori iraultzeko, hainbat bide azter daiteke gaur egun:

- Araututako musika ikasketak (Gradu Profesionala) nahiz arautu gabeko musika-irakaskuntzen (musika-eskolak) tituluak eta goi-mailako irakaskuntza orokorren tituluak baliozkotzeko arauak ezartzea.
- Musika Hezkuntzako Aipamena egin ahal izateko sarbide-proba bat planteatzea. Horrela, formazio espezifikoagoa eta gaitasunak eskuratzera bideratuagoa egituratu ahal izango da.
- Irakaskuntza orokorreko Hezkuntzako Graduarekin lotzea Goi Mailako musika ikastegiekin (Musikenekin, esaterako) eskainitako formakuntza. Inkongruente samarra da indarrean dagoen legediak ez onartzea Musika Pedagogiako Gradua

²¹ Hala adierazten da bere web orrian: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/lehen-hezkuntzako-gradua-bizkaia/aipamenak-eta-ibilbideak> (2023ko apirilaren 28an kontsultatua).

(300 ECTS) egin duen pertsona bat ofizialki gaituta egotea Lehen Hezkuntzan Musika irakasgaia emateko, baina bai, ordea, aldez aurretik musika-ezagutza eta -formakuntzarik gabe, unibertsitate-irakaskuntza orokorreko Hezkuntza Graduaren Musika Hezkuntzako Aipamena (30 ECTS) burutu duen pertsona bat.

Araubide bereziko irakaskuntza arautua: kontserbatorioak

Gaur egun, kontserbatorioetan abesbatzen presentzia Korua irakasgaira mugatzen da, derri-gorrezkoa izanik Oinarrizko Graduak 3. eta 4. mailako ikasle guztientzat, eta nahitaezkoa, era berean, gutxienez bi ikasturtez, Gradu Profesionaleko ikasleentzat, baldin eta espezialitateek ez badute taldeko irakasgairik (Kantua, Klabea, Organoa eta Pianoa; Gitarra elektrikoa eta Baxu elektrikoa; Moko-txirula eta Zango-biola; Zia-instrumentuak; Txistua). Hala ere, oro har, nolabaiteko atsekabea dago irakasgai honen antolaketan ofizialarekin, funtsezko hiru arrazoi-rengatik:

- Eskolen iraupena mugatua denez eta espezialitateei dagozkien taldeak bat ez datozenez, ia ezinezkoa da talde horiek benetan abesbatza gisa funtzionatzea.
- Nolabaiteko frustrazioa sortzen da, bai irakasleen artean, bai ikasleen artean, azken horrek jada badituen musika-baliabideak (irakurtzeko gaitasunak, interpretatzeko gaitasuna, etab.) aprobetxatzeko ezintasunagatik, ahots-formakuntzarekin osatzeko eta elkarrekin abestuz garatzeko.
- Irakaskuntza arautuaren zorrotasunak taldea gelaz haratago dinamizatzea oztopatzen du, oro har zaila baita taldearen kohesioa sustatzearren eta indartzearen kontzertuak, irteerak edo koru-trukeak antolatzea.

Hala eta guztiz ere, egiaztatu da kontserbatorio arautuetan ez dagoela kanturako edo koru-zuzendaritzarako formakuntza-ibilbide espezifikorik edo berezirik, eta, gainera, kontserbatorio

abesbatzen egoera nahiko prekariora dela, eta ez duela ahalbidetzen horrelako taldeek behar duten dedikazioarekin eta intentsitatearekin lan egitea. Musika-ikasketa profesionalen curriculum eta ikasketa horietan sartzeko probak ezartzen dituen abenduaren 11ko 229/2007 Dekretuaren 11. artikulua honako hau xedatzen du: “5.– Ikastegiak beste hautazko irakasgai batzuk ere proposatu ahal izango dituzte, baina irakasgai horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezartzen dituen baldintza eta prozeduraren arabera onetsiak izan beharko dute”. Hala ere, bide hori erabiltzeak ez luke bermatuko kontserbatorioetako koru-formakuntzaren garapen egokia, formazioaren eta koru-zuzendaritzaren tratamenduak subsidiarioa eta espezializatu gabea izaten jarraituko lukeelako. Adibidez, kontserbatorioek Koru-Zuzendaritzako hautazko irakasgai bat sartzeko, 229/2007 Dekretuaren beraren eskakizunen arabera, astean hogeita hamar minutuko eskola-karga baino ez luke ekarriko; gainera, hautazko formazio horrek Abesbatza irakasgaiak dagoeneko duen osagarri gisako tratamendua indartu egingo luke.

Kontserbatorioetan koru-kantuaren baldintzak hobetzeko ekintzak, beraz, irakasgaia jarduera subsidiario gisa hartze eta tratatze hori arintzerara bideratu behar dira. Gradu Profesionalaren antolaketak eskola-karga handitzea ahalbidetzen ez badu ere, interesgarria litzateke Korua irakasgaiaren derrigortasuna Oinarrizko Gradu osora zabaltzea. Gainera, ahots-gaitasuna garatzeko eta koru-kantuarekiko interesa eta ilusioa sustatzeko une ebolutibo egokiena da. Horrela, musika-eskoletan nagusitzen den ahots- eta abesbatza-formakuntzara bideratutako lan-erregimenaren antzekoa ezarri nahi da Oinarrizko Graduaren.

Araubide bereziko irakaskuntza arautu gabeak: musika-eskola publikoak eta pribatuak

Araubide bereziko irakaskuntza arautuetan (kontserbatorioak) gertatzen denaren antzera, araubide bereziko irakaskuntza arautu gabeetan

(musika-eskola publikoak eta pribatuak) ez dago koru-zuzendaritzako formakuntza-ibilbiderik. Hala ere, Euskal Autonomi Elkartearen “Musika Eskola” direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarritzko arauak ezartzen dituen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuak, honako hau xedatzen du:

- “16. atala: Aukeran eta osagarri legez, Musika-eskolek beste edozein irakaskuntza eman ahal izango dute ikasleak hobeto menderatu ditzan bai funtsezko irakaskuntza eta bai musika bera ere orokorrean.”
- “20. atala: Musika-eskolek autonomia osoa izango dute ikastaroen plangintza eta eskaintza egiterakoan, gai bakarrekoak badira zein ez. Berdin izango da bere eskaintza ugaritzeko, ikasleen formakuntzarako, irakasleen hobekuntzarako eta inguruko gizartearen kultura-maila jasotzeko izan daitezten musika-alorreko jarduera guztietarako ere.”
- “21. atala: Berariazko gai eta gai independente legez hartuta, osagarritzko irakaskuntzak emateko, hala nola, harmonia, konposizioa edo beste batzuk, hezkuntza-administrazioak propio emandako baimena beharko da, irakaskuntza horiek ikastetxeko ohizko eskaintzaren zati bat bailiran eta ez aldian aldikoa eta tarteka proposatutako ikastaro bezala ematen badira.”

Nahiz eta aipatu dekretuak horretarako askatasuna eta aukerak eskaintzen dituen, koru-heziketaren alde egiten duen musika-eskola gutxi dago gaur egun, eta, egiten dutenak, musika-irakaskuntza arautuen eredia erreproduzitzera mugatzen dira oro har, eredu horrek korua irakasgai osagarri gisa dutelarik eta ez musika-formakuntza hedatzeko eta garatzeko ardatz. Horrela, musika-eskola askotan, publiko zein pribatuetan, Kantuaren eta Koralarren Espezializazioa desagertuz joan da, hein batean zuzendaritzen pizgarririk ezagatik.

Musika-eskoletan koru-kantuaren presentziaren pixkanakako galera horretan, behar bezala haztatu beharreko bi faktorek eragiten dute:

- Koru Zuzendaritzako goi-mailako irakaskuntzen azterketan nabarmendu den bezala, berariazko formakuntza duten profesionalen faltak asko zailtzen du irakaskuntza ertainen eta arautu gabeen eremuko kalitatezko koruko formakuntza-jardueraren eskaintza.
- Duela gutxi arte, gainera, pizgarri ekonomiko gutxi zegoen dirulaguntzatan, beste edozein jarduera instrumental lehenesten baitzuten Korua irakasgaiaren gaitetik. Izan ere, horrek koru-formakuntzari dagokionean musika-eskolen hezkuntza-eskaintza gutxitzea ekarri ahal izan du. Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak partzialki konpentsatu du gertaera hori, zazpigarren Xedapen Iragankorrak horrela dioelarik: “Musikaren irakaskuntzako udalzentroen kasuan, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak definituko du eskaini beharreko zerbitzuen estandarra eta horren arabera dagokion herena finantzatu du. Hartarako, egungo finantzaketa gero eta gehiago igotzen joango da lege hau onetsi ondorengo hiru urteetan, harik eta gorago aipatutako kopuru horretara iritsi arte.” Aurreko legeriaren aldaketa partzial hori musika-eskoletan ahots- eta abesbatza-formakuntza sendotzeko aurrerapauso bat bada ere, komenigarri litzateke Xedapen hori iraunkorra izatea eta musika-eskola guztietara zabal-tzea, ez bakarrik udal musika-eskoletara.

Arautu gabeko musika-formakuntza

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan arautu gabeko koru-zuzendaritzako hainbat formakuntza-bide dago, azken urteotan euskal abesbatzetan dauden beharrak asetzen saiatu direnak. Jarraian, arautu gabeko formakuntza-bide nagusiak zehazten dira:

- Zuzendaritza Akademia, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek antolatua.
- Haur Abesbatzen Pedagogia eta Dinamizazio ikastaroa, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek antolatua.
- Euskal Herriko Abesbatzen Federazio desberdinek eskaintako ikastaroak (BAE, GAF, AAE, Arabatxo).
- Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartek antolatutako ikastaroak.
- Hezkuntza-komunitatearentzako formakuntza-planak, esaterako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatutako “Prest_Gara” plana.

Formakuntza-eremu hori espezifikoa eta espezializatuagoa den arren, arrazoi desberdinetatik hainbat oztupo sortzen da kudeaketari eta baremazioari dagokionean:

1. Kanpo-erregulaziorik ez dagoenez, zaila da eskumen-mailak ezartzea eta homogeneizatzea.
2. Agian, ikastaroen eskaintzaren aniztasunaren korrelazio gisa, eta Zuzendaritza Akademia izan ezik, maila bakoitzean nolabaiteko antolamendua baitago (I, II eta III), ez dago ikuspegi integralik formakuntza-bide desberdinen artean.
3. Finantzatzeko zailtasunak daude ikastarohoriek eskuratzeari eta kudeatzeari dagokionean.

Oro har, arautu gabeko formakuntza-eskaintzan argi ikusten da koru-zuzendaritzari dagokionean formakuntza jarraitua, sakona eta espezializatua falta dela, eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen da formakuntza-ibilbide egituratu eta integrala eskaintzea, zuzendariak haur eta gazteen abesbatza-zuzendaritzarako berariazko gaitasunak eskura ditzaten.



Hala eta guztiz ere, formakuntza arautuak hainbat oztupo ditu euskal koru-ehunaren beharrei erantzuteko beharrezkoak diren gaitasunak bermatuko dituen formakuntza-ibilbide bat

ezarri ahal izateko. Izan ere, koru-zuzendarien formakuntza areagotzeko eta sakontzeko bide emankor eta baliotsuenetako bat koru-zuzendaritzako formakuntza-ibilbide bat planteatzea da, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen eta arautu gabeko musika-irakaskuntzako zentron baten artean hitzartua, probintzia bakoitzeko bat, hain zuzen ere egungo legediak irekitzen dituen aukerengatik. Ildo horretan, urriaren 27ko 289/1992 Dekretua nahiko malgua da formakuntza euskal abesbatzen beharretara egokitu ahal izateko, abesbatzak gaitutako profesionalen eta haurren eta gazteen ahots-formakuntzari dagokionez gaitasun espezifikoa dituztenekin doitzeko helburu nagusiarekin. Horrek Goi Mailako Musika Irakaskuntzen gabeziak estaltzea ahalbidetuko luke; izan ere, horiek huts egiten dute helburu horretan, gaur egun, promozio bakoitzeko²² 2 ikasle besterik ez baitituzte hartzen. Hitzartutako formakuntza-bide horren edukiak eta modua Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek eta Administrazio Publikoak elkarlanean garatuko dituzte. Aldi berean, eta osagarri gisa, lanean ari diren zuzendariak etengabeko formakuntzarako dirulaguntzak emateko bideak bilatu beharko dira.

Dinamizazio-plana

“Dinamizazio-planak” haur eta gazte abesbatzen esparruan garatzen diren jarduerak bultzatzeko sustatzen diren ekimen guztiak jaso beharko ditu, bai Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek kudeatutakoak, baita beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin lankidetzan burutzen direnak. Plan honen helburu nagusia haur eta gazteen dinamika korala sustatzeko pizgarriak eskaintzea da. Horretarako, hainbat ekintza-eremu aurreikusten da:

²² Hori da Musikene, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren kasua, Koru eta Orkestra Zuzendaritza Titulurako ikasturte bakoitzeko bi plaza baino ez baititu eskaintzen.

- Autosustatutako jarduera bultzatzea, adibidez abesbatzen arteko elkar-trukeen eredu.
- Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak antolatu eta ekoiztako haur eta gazte abesbatzetzako berariazko jarduerak sustatzea.
- Kultura sustatzaileengan eta kultur-programazioen arduradunengan jardutea eta adostutako praktika bat sortzea.

Jarraian, haur eta gazteen abesbatzen jarduera dinamizatzeko eta hedatzeko hainbat proposamen planteatzen da:

1. Sorkultzarako eta dinamizatzeko proposamen zehatzak: Haur Abesbatza, Nerabe Abesbatza, Gazte Abesbatza.
2. Hedapen soziokulturaleko jarduera: Kantari Eguna.
3. Kontzertuak eta jarduerak koordinatzeko plana diseinatzea.

Euskal Herriko Haur Abesbatza

Haur eta gazte abesbatzen alderdi dinamiko eta konpetentzialei buruz bildutako datuetatik ondorioztatzen diren beharren azterketari erantzuteko asmoz, Euskal Herriko Haur Abesbatza sortzea planteatzen da, txandakako eredu bati erantzuten dion eta parte-hartze estandar gorenak betetzen dituen haurren abesbatza. Helburu nagusia 6 eta 12 urte bitarteko Lehen Hezkuntzako adin-tartean dauden kantariak dinamizatzeko da, koralisten arteko lankidetzak eta kezka-trukaketa bultzatzeko akuilu izan dadin. Ekimen hau, beraz, hiru probintzien (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) ordezkari diren abesbatzek parte hartzera irekita dago. Egokiena, parte hartuko duten abesbatzak ikasturte bakoitzean ezberdinak izatea litzateke, adin tarte horretan dauden haur guztiak ekimenean parte hartzeko aukera izan dezaten.

Lanerako plan orokorra bat etorriko litzateke ikasturteko egutegiarekin, eta lan dinamiko eta erreperitorioa prestatzeko hiru jardunaldik osatuko lukete, probintzia bakoitzean bana,

haurren abesbatza-zuzendaritzaren eremuan gaitutako profesionalak zuzendutako prestaketa-saio eta tailer espezifikoak barne. Helburua abesbatzen arteko formakuntza, dinamizazioa eta sinergiak sortzea bada ere, Kantari Eguneko kontzertu nagusian elkarrekin parte hartzea da eskumenean helburua.

Hala eta guztiz ere, parte hartzea eta elkartrukea lehenesten dituen ekimena izanik, jardueren plangintza eta definizio zehatza, nahiz helburu espezifikoak eta erreperitorioaren aukeraketa, parte hartzen duten abesbatzetzako arduradunen konpromisotik, inplikaziotik, elkarlanetik eta adostasunetik sortu behar dira. Horretarako, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak bitartekotza- eta orientazio-lanak egingo ditu, kudeaketari, administrazioari eta logistikari dagozkion lanak errazteko.

Euskal Herriko Nerabe Abesbatza

Haurren koruaren antzera, eta kontuan hartuta Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara igarotzea dela kantarien galera handiena eta deigarriena dakarren etapa 1. blokeari dagozkion datuetatik ondorioztatzen denez (ikus 2.3. Emaizten azalpena, analisisa eta balorazioa), Euskal Herriko Nerabe Abesbatza sortzea proposatzen da, 13 eta 17 urte bitarteko hiru probintzietako hainbat abesbatzetzako abeslari aktiboez osatua. Koru honek urtebeteko txandakako eredu bati jarraituko dio, eta helburu nagusi hauek izango ditu: gure gazteen ahots- eta abesbatza-formakuntzan laguntzea, taldeen kohesioa indartzea, abesbatzek nerabeekiko duten konpromiso soziokulturala sustatzea eta ahots berriak sar daitezen sustatzea.

Oraindik eskolatzeko aldian dauden nerabeak izanik, antolaketa eta lanerako plan orokorra bat etorriko litzateke ikasturteko egutegiarekin. Plan orokorra honela antolatuko litzateke:

- Aukeratutako erreperitorioa partzialki irakurtzera bideratutako bi lan-jardunaldi.
- Lan koraleko eta elkarbizitzako bi aste-buru.

- Kontzertu-bira bat Euskal lurraldean eta atzerrian, nazioarteko abesbatzen jaialdiaren batean parte hartzeko aukerarekin.
- Kantari Eguneko kontzertu nagusian parte hartzea.

Nerabe Abesbatzako kideak 50 lagunera mugatuko dira logistika-arrazoiengatik, eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen eta adin-baldintza betetzen duten kideak dituzten abesbatzetako arduradunen arteko lankidetzaren prozesu baten bidez aukeratuko dira. Era berean, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak zuzendari nagusi bat eta formakuntza-prozesuan dagoen zuzendari laguntzaile bat izendatuko ditu, eta erreperitorioaren jarraibidea zehaztuko du zuzendariekin batera, taldearen beharrei ahalik eta ondoen erantzuteko.

Euskal Herriko Gazte Abesbatza

2016an sortu zenetik, Euskal Herriko Gazte Abesbatzak sendoa garatu du bere jardueran. Hala ere, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen usuz, ikerketa honetan lortutako datuen azterketak agerian uzten du 18 eta 25 urte bitarteko adin-tartearen formakuntzari eta dinamizazioari dagokion zentzuzko behar dagoela, eta horiek ez direla betetzen ari Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren egungo planteamenduetan. Horrela, abesbatzaren helburuak eta funtzionamendua birdefinitu behar dira, euskal koruen errealitateara egokitutako espazioa izan dadin eta dauden abesbatza gazteen jardueran hezi, sustatu eta indartzeko helburuarekin, bai musika mailan, bai esperientzia mailan.

18 eta 25 urte bitarteko gazteen egoera berezia dela eta, abesbatza horren funtzionamendu-eredua bi ikasturte osotara zabaldu behar da, jardueran udan zehar zabalteko aukerarekin. Lanerako plan orokorra honako hauek osatuko lukete:

- Erreperitorioiko irakurketa partzialeko hiru jardunaldi, probintzia bakoitzean bana.

- Lan koraleko eta elkarbizitzako hiru aste-buru, probintzia bakoitzean bana.
- Urtero kontzertu bira bat Euskal Herrian eta atzerrian, nazioarteko abesbatzen jaialdietan parte hartzeko aukerarekin.
- Kantari Eguneko kontzertu nagusian parte hartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gazteen Abesbatzako kideak aukeratzeko –gehienez ere 50 partaide izango dira–, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen eta adin-baldintzak betetzen dituzten kideak dituzten abesbatzetako arduradunen arteko lankidetzaren prozesu bat gauzatu da, horietako bakoitzari plaza libre batzuk esleituko zaizkiolarik. Komunikazioen kudeaketa, beraz, abesbatza bakoitzeko zuzendarien ardura izango da, horien inplikazioa eta parte-hartzea funtsezkoa izanik proiektua bide onetik joan dadin. Era berean, Elkarteak izango da, bi urteko aldi bakoitzerako txandakako ereduari jarraituz, zuzendari nagusi bat eta formakuntza-prozesuan dagoen zuzendari laguntzaile bat izendatuko dituena, bai eta erreperitorioaren jarraibidea zuzendariekin batera markatuko duena ere, taldearen beharrei ahalik eta ondoen erantzuteko. Horrela, zuzendari nagusiak tutoretza- eta babes-lanak egingo ditu zuzendari laguntzailearekiko.

Kantari Eguna

Euskal abesbatzen mugimendua hedatzen laguntzeko, gizartean duen presentzia sustatzeko eta gure abesbatza-tradizioa indartzeko helburuarekin, Euskal Herriko Abesbatzen Elkarteak “Kantari Eguna” sortzea eta antolatzea planteatzen du. Lurraldeko abesbatza guztientzako topaketa jardunaldi bat, publikoari eta koralistei irekitako kontzertu, tailer eta jarduerak garatuko dituena.

Jardunaldi hori urtero burutuko da, txandaka, hiru probintzietako bateko herriren batean. Herri horrek, hainbat kontzertu eskaini eta jarduerak garatzeko leku egokiak eta nahikoak edukitzea behar du: bai aire zabalean, bai eliza, klaus-

tro edo auditorioetan. Era berean, Euskal Herriko Haur Abesbatzak, Euskal Herriko Nerabe Abesbatzak eta Euskal Herriko Gazte Abesbatzak egindako lana erakusteko aukera izango da.

Horrela, Kantari Eguna euskal koru- eta kultur-ondarea gizartean integratzeko eta transmititzeko jardunaldi gisakoa izango da.

Haurren eta gazteen eremuko jarduerak eta kontzertuak koordinatzea

Haur eta gazte abesbatzen sarea indartzeko zeharkako proposamen gisa, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek koordinazio- eta euskarri-lanak egingo ditu probintzietako federazioek programatutako ekitaldi eta dinamizazio-jarduera guztietarako. Koordinazioari dagokionez, honako hauek dira jarduera-ildo nagusiak:

1. Haur eta gazte abesbatzentzako kontzertuak kudeatzea eta sustatzea.
2. Ekitaldi horien programazioan musika- eta kultura-mailan errotuta dauden hainbat erakunderekin hitzarmenak finkatzeko zuzeneko ekintza. Horrela, haur eta gazteentzako abesbatzak bultzatzeko eta erakartzeko funtzioa beteko lukete. Adibide gisa aipa genituzake Donostiako Musika Hamabostaldia, Kursaal Eszena, Donostia Kultura, Bilbao Musika, Euskadiko Orkestra, Bilbao Orkestra Sinfonikoa, Kutxa Fundazioa, Vital Fundazioa, BBK Fundazioa, OLBE (Operaren Lagunen Bilboko Elkartea), Arriaga Antzokia, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa, Aldundiak, Udalak eta Tokiko Erakundeak. Beharrezkotzat eta premiazkotzat jotzen dugu erakunde eta eragile publiko horiek guztiek, beren kokatze eta errotze soziokulturaletik abiatuta, inplikazioa eta trakzio-konpromisoa erakustea koru *amateurren* egiturekiko eta haur eta gazteen abesbatzekiko. Haurren eta gazteen kultura-hezkuntzari arreta ematea guztioi dagokigun gizarte-erronka bat da, horien menpe egonik gainera, sustatzaile eta era-

kunde horien eta etorkizuneko bazkideen iraupena.

3. Abesbatzak antolatzeke beste eredu batzuei buruzko ikerketa sustatzea, estatuan eta nazioartean, puntu komunak aurkitzeko, sinergiak bilatzeko eta kudeaketari eta dinamizazioari dagokionean litezkeen lankidetzak proposatzeko.

Kontzertuen eta ekitaldien sustapena, halaber, bi norabidetan egin beharko da beti: berezko abesbatzak dinamizatzeko eta berezko abesbatzentzat erreferente izan daitezkeen Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko abesbatzak ekartzeko.

Azkenik, eta kontzertuak sustatzearekin eta antolatzearekin batera, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartek uste du gaur egun funtsezko bi bide daudela abesbatza-formakuntzan eragiteko, eta horiek hausnartu, aztertu eta garatu egin behar dituela Administrazioak. Horretarako, Elkartek bere baliabide material eta giza baliabide guztiak jartzen ditu eskura:

1. Lehen eta Bigarren Hezkuntzan Musika irakasgaia berregituratzea eta duintzea. Horrek esan nahi du irakaskuntza orokorren esparruan musika-irakaskuntzan aritu nahi duen edonorentzat eskakizun formalak eta eskumen-espektatibak berriz definitzearekin hertsiki lotutako neurriak hartu behar direla, eskolatzeko adinean dauden euskal herritar guztiek kalitatezko musika-hezkuntza jaso dezaten.
2. Koru-jarduera eskolaz kanpoko jardueren eskaintza egonkorraren barruan sartzea euskal ikastetxeetan, "Eskola Kirola" programaren antzekoa sortzeko aukerarekin. Aukera horretan, federazioen eta aldundien arteko lankidetzak funtsezkoa da koru-ehunaren beharrei erantzun ahal izateko, bai eta elementu bultzatzailea eta dinamizatzailea, zaletasuna sortzen duena.

Euskal hezkuntza-erakundeetan musika-formakuntzaren erronkari kaudimenez heltzeko gaitasunaren mende dago gure ondare koralaren

etorkizuna, gure kulturaren ezaugarrietako bat izan dena eta izaten jarraitzen duena.

IKTen komunikazio- eta garapen-plan integrala

Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzak indartzeko proposatutako ekimen guztiak modu kohesionatuan garatu daitezten, eta bai gizar-tearen gehiengoak, bai kultura- nola gizar-te-eragileek halakotzat har dezaten, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen ustez, premiazkoa eta beharrezkoa da haurren eta gazteen koru-tes-tuingurura egokitutako IKTak Komunikatzeko eta Garatzeko Plan Integral bat idaztea. Plan hori hiru norabidetan garatu beharko da:

1. Koru-jarduera hedatzeko, zabaltzeko eta posizionatzeko Plan bat, ikus-entzunezko materiala eta material didaktikoa sortuz abesbatzen barne-eremuan eta dagozkien ikastetxeetan erabili ahal izateko nahiz talde horien hurbileko ingurunera eta, oro har, gizartera transmititzeko. Plan horren helburua koru-jarduera ezagutaraztea eta haren onura emozionalak, sozialak eta artistikoak herritarrei zabaltzea litzateke. Sortutako materiala sarean zabaldu ahal izango da, baita araubide orokorreko zein bereziko ikastetxeetan, informazio-saioak ere antolatuz.
2. Txosten hau berariaz zabaltzeko plan bat, kontzertuen eta jardueren formakuntzan eta programazioan parte hartzen duten erakunde publiko, entitate, eragile eta kudeaketa-profesional guztiek Euskal Herriko haurren eta gazteen abesbatza-errealitatearen berri izan dezaten. Era berean, plan horrek gizartera hedatuko du, osorik edo zati batean argitaratuz, infografien eta *ex profeso* sortutako materialaren bidez hedatuz, eta edukiak esparru akademikoagoetan transmitituz, kongresuetan erakusketak eginez eta aldizkari espezializatuetan artikuluak argitaratuz, hasitako ikerketa-bidea zabaltzeko helburuarekin.

3. Baliabideak eta prozedurak garatzeko plan bat, haurren eta gazteen abesbatza-sektoreari lotutako eten digitala hausteko. Plan horrek honako hauek garatzeko proposamenak jasoko ditu: abesbatza-taldean barneko eta kanpoko kudeaketa-, harreman- eta komunikazio-aplikazioak, partituren euskarri digitalak doitzea, dituen beharrei erantzuteko sektorerari berriaz bideratutako aplikazio mugikorrek garatzea, eta abesbatza-jarduerari gamifikatzeko ekimenak.

IKTak Komunikatzeko eta Garatzeko Plan Integral hori gauzatu ahal izateko, lehenik eta behin, sektorearen egungo beharrak zehaztu behar dira, eta helburuak lortzeko bete beharko diren adierazleak argi eta garbi adierazi behar dira. Helburu horiek zehazteko, Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen zuzendaritzaz eta kudeaketaz arduratzen diren pertsonen ekarpenak jasoko dira, eta, horretarako, beharrezkoa izango da probintziako abesbatzen federazioen elkarlana eta inplikazioa.

Hona hemen komunikazio-plana garatzeko gidoi orokor bat:

1. “Euskal Herriko eredu zko abesbatza” markaren narratiba definitzea eta garatzea, Euskal Koru Erreferentzialaren Estatutuan adierazitako helburuei eta ideiei lotuta.
2. Xede gisa ezarritako publiko eta entzuleria bakoitzari egokitutako diskurtsoak garatzea:
 - 2.1. Ahotsak erakartzea.
 - 2.2. Abesbatzen talde federatuak eta ez-federatuak sustatzea.
 - 2.3. Programatzaileak, kultura-eragileak eta erakundeak.
 - 2.4. Gizartea, oro har.
3. Marka-narratiban eta publiko objektibo bakoitzari zuzendutako diskurtsoetan oinarritutako komunikazio-estrategia garatzea. Proposamenak helburu den publiko objektibo bakoitzera iristeko komenigarritzat jotzen diren ekintzak jaso beharko ditu. Lan-meto-

dologiak, gutxienez, honako hau jaso behar-ko du:

3.1. Abesbatzen errealitatea aztertzea, txosten honen emaitzen bidez.

3.1.1. Gaur egun garatzen diren balioen, eskaintzaren, komunikazio-ekintzen eta abarren azterketa, zuzendariekin, kudeatzaileekin eta sustatzaileekin batera lan egiteko saioak barne.

3.1.2. Komunikazio-ekintzetan nabarmendu beharreko balioak eta ezaugarriak identifikatzea.

3.1.3. Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen, probintziatako federazioen eta abesbatzen posizionamenduaren (kanpoko pertzepzioa) azterketa.

3.2. Hausnarketa estrategikoa.

3.3. Marka-dosier bat entregatzea.

ERANSKINAK



I. ERANSKINA. ELKARRIZKETAK ETA HAUSNARKETAK

Eranskin honetan haur eta gazte abesbatzen euskal ehunari lotutako hainbat profesionalen ekarpenak eta hausnarketak jasotzen dira, bi talde handitan sailkatuta:

- Kultur programazioko eta musika eta korua kudeatzeko bederatzi profesional:

Iñigo Alberdi Amasorrain, Bilboko Koralelkarteko gerentea.

Joxean Llorente, Getxoko Andrés Isasi musika eskolako zuzendari kudeatzailea 1995 eta 2022 urteen artean, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko presidente ohia, Jatorki Abesbatzako lehendakaria eta Jatorki Ahots Zuriak elkarteko zuzendaria (Bilbo).

Pello Leñena, Eresbil – Musikaren Euskal Artxiboko zuzendaria.

Borja Pujol Zabala, Bilbao Orkestra Sinfonikoaren zuzendari teknikoa.

Mikel Mate, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko (EHME) lehendakaria.

Carlos Benito, Donostia Musika elkarteko presidentea.

Cesidio Niño, OLBEko (Operaren Lagunen Bilboko Elkartea) zuzendari artistikoa.

German Ormazabal, Euskal Herriko Gazte Orkestraren (EGO) koordinatzaile nagusia.

Santos Sarasola, Santo Tomas Lizeoako (Donostia) zuzendaria 1975-2005 bitartean eta Easo Abesbatzako (Donostia) presidentea 2005-2016 bitartean.

- Haur eta gazteentzako abesbatza-zuzendaritzako hamasei profesional:

Aitor Biain, Ganbara Faktoriako zuzendaria (Oñati).

Esteban Urzelai, Espainiako Abesbatza Nazionaleko zuzendariordea eta Orfeoi Gazteko zuzendari ohia (Donostia).

Maddalen Dorransoro, Landarbaso Dizdizka eta Landarbaso Kontariko zuzendaria (Errenteria).

Basilio Astúlez, Leioa Kantika Korala, San Juan Bautista Abesbatza eta Vokal Taldeko zuzendaria, eta Musikeneko (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia) Koru Zuzendaritzako irakaslea.

Klara Mendizabal eta **Leticia Vergara**, Orfeoi Txikiko eta Orfeoi Gazteko zuzendariak (Donostia).

Javier Busto, musikagilea, abesbatza-zuzendaria eta medikua.

Imanol Elizasu, Zaria Kantu Eskolako zuzendaria (Errenteria).

Aitor Sáez de Cortázar, Arabako Abesbatzako zuzendaria.

Nora Chena, Olabide abesbatzako zuzendaria (Gasteiz), Arabatxo (Arabako Haur Abesbatzen Federazioko presidentea).

Julia Foruria, Gaudeamus Koralarren zuzendaria (Gernika).

Maitte Oca, koruko irakaslea eta zuzendaria (Hondarribiko Musika eta Dantza Eskola eta Musikene).

Gorka Miranda, Easo Abesbatzako zuzendari artistikoa eta "Pasaia Musikal" Pasaiaiko Udal Musika Fundazio Publikoko zuzendari kudeatzailea.

Enrique Azurza, Bilboko Koralkartearen, KEA Ahots Taldearen eta Tolosako Hodeiartz Abesbatzaren zuzendaria; Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen presidentea ohia.

Txaber Fernández, Arriaga Kontserbatorio-ko abesbatza irakaslea (Bilbo).

Mertxe Astuy, Jesus Guridi Kontserbatorio-ko abesbatza irakaslea (Gasteiz).

Jorratu beharreko gaiari buruzko aurreiritzirik egon ez dadin, ekarpen guztiak Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen errealitateari buruzko galdera ireki bati erantzunez egin dira, eta, beraz, ez dute alde aurretik ezarritako galderasortarik jarraitzen. Hausnarketa horiek, esperientzia eta bizipen pertsonalen isla diren heinean, berez balio handia dute, eta ikuspegi askotatik koruaren errealitateari hurbiltzeko aukera ematen dute; izan ere, batetik, azken hamarkadetako euskal abesbatzen mugimenduaren berezitasunen atzera begirako ikuspegi eskaintzen dute, eta, bestetik, etorkizunerako planteatzen diren erronken azalpena. Horietan behin eta berriaz aipatzen diren gai eta kezka batzuk ikus daitezke. Hona hemen:

- Koru-kantuaren garrantzia emozio- eta musika-adierazpenaren garapenerako eta gizarte-koherenarako, batez ere haur eta gazteen etapan.
- Euskal koru-komunitateak kultura-elementu bereizgarri gisa duen garrantzia,

historian zehar kalitate artistiko handia lortu duen tradizioan oinarritua.

- Euskal abesbatzetan pixkanaka errotze soziokulturala eta elkartze-dinamika galtzea, eta, horren ondorioz, adin goiztiarreko jarduerarekiko interesa galtzea, horrek oinarritzko koruen ahultzea eragiten duelarik.
- Azken urteotan aisialdi-ereduan izandako aldaketan eragina, abesbatza- eta elkartze-dinamikaren galeran.
- Generoari dagokionean, desproporzioa abesbatzetan, oro har, eta haur eta gazteen taldeetan bereziki, mutilen parte-hartzea neskena baino askoz txikiagoa baita.
- Abesbatza-zuzendariaren figura duintzeko eta profesionalizatzeko beharra.
- Koru-zuzendarientzako etengabeko formakuntza espezifikoren beharra, eta laguntza eta espezializazio berezia haur eta gazteentzako koru- eta musika-pedagogian.
- Koru-egiturak egonkortzeko eta profesionalizatzeko beharra.
- Irakaskuntza orokorrean musika irakaskari duintasuna emateko beharra, bai eta irakasle izateko baldintza teknikoei, pedagogikoei eta artistikoei ere.
- Ahotsa lehen mailako transmisio eta komunikazio emozional eta musikalerako tresna gisa balioesteko beharra, Lehen Hezkuntzan zein Bigarren Hezkuntzan derrigorrezko hezkuntzaren curriculum zeharka sar dadin.

Hala eta guztiz ere, haien hausnarketak Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzen jarduerarako leiho irekia dira, eta, beraz, kontuan hartu beharrekoak sektorea indartzeko sustapen-proiektuak eta dinamizazio-proposamenak diseinatzerakoan.

Kultura-programazioetako eta musika-koruen kudeaketako profesionalak

Iñigo Alberdi Amasorrain

Bilboko Koral Elkarteko gerentea

Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta gazte abesbatzak indartzeko dekalogo.

1. Gazteekin eta hurrekin koruan aritzea inoiz baino beharrezkoagoa eta positiboagoa da.
2. Abesbatzak aniztasuna sustatzen duten askatasun- eta sormen-esparruak dira.
3. Lehenengo helburua koru-jarduera ikaste-txeetara eramatea izan behar du.
4. **“Eskola bat, koru bat”**: Lehen Hezkuntzan, Bigarren Hezkuntzan eta Unibertsitatean.
5. Bigarren Hezkuntzako eta Unibertsitateko abesbatza-jarduerari kredituak aitortu behar zaizkio.
6. Abesbatza gazteen sare bat sortu behar da eta haur eta gazte abesbatzen topaketak burutu behar dira.
7. Herrietako abesbatzek eskola-abesbatzen sarearekin lankidetzan jardun behar dute.
8. Musika-erakunde publikoek, orkestrak, antzokiak eta jaialdiak barne, koru-sare horrekin lankidetzan jardun behar dute.
9. Koruaren etorkizuna iragana ez bezalako izango da.
10. Zuzendari prestatuak eta formaziodunak, zentro irekiak, lankidetzak-erakundeak eta irudimen handia behar ditugu.

2023ko urtarrilaren 4a

Joxean Llorente

Getxoko Andrés Isasi musika eskolako zuzendari kudeatzailea 1995 eta 2022 urteen artean, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteko lehendakaria,

Jatorri Abesbatzako lehendakaria eta Jatorri Ahots Zuriak elkarteko zuzendaria (Bilbo)

Voltairek euskal herriari buruz zioenez, Pirinioen inguruan kokatua, kantatzen eta dantzatzen duen herria da. Hala ere, “*zer dira hiru euskaldun elkarrekin?, orfeoi bat*” esaera herrikoia gorabehera, eta bakarrik edo elkarrekin kantatzeko jarduera gure historian zehar egon zela agerikoa den arren, eta eliz kaperetako jarduerak salbu (Santiago Bilbon 1577an), ez dugu horren berri aurkitzen Enrique Diegok Bilbon (Bizkaian) sortutako Santa Zezilia orfeoiaren existentziaren datu frogagarria arte 1869. urtean. 1886an, Durangoko euskal jaiak zirela eta, Cleto Alañak eta Cleto Zabalak hainbat kapera batu zituzten Bilboko orfeoia sortzeko, urte horretako abuztuaren 3an Bilboko Koru Elkartea izena hartu zuena, José Antonio Arana Martijak Música Vasca liburuan jasotzen duen bezala. Bizkaian behintzat, beraz, abesbatza-jarduera antolatua 150 urte ingurukoa izango litzateke.

Haur eta gazteentzako musika koralari dagokionez, Pedro Bilbao apaizak gaur egun desagertuta dagoen Iturribideko Patronatu zaharra bezala ezagutu zen horretan 1918an Iturribideko Tipleen Eskolania sortu izanean dugu lehen erreferentzia. Víctor Zubizarretak 1926an Schola Cantorum sortu zuen Bilbon. Haur eta gazteentzako musika-talde ugari egon zen erlijio-kultuko zentroetan. Gizartearen gero eta sekularizazio- eta laiktasun-prozesu handiagoa dela eta, denborarekin praktika hori murriztu egin da, eta eliza gutxi eusten diote, nolabait, beren jarduera koral espezializatuari. Fenomeno sekularizatzaile hori Europako beste herrialde batzuetan hasi zen Espainiako estatuan baino lehenago, Francoren diktadurapean definizioz eman zen lotura konfesionalaren eta estatuaren ondorioz, eta horren ondoren ez zen “ordezkapen-efekturik” gertatu adin horietako musika-jarduerari dagokionez.

Gaur egun, zaila da haur/gazte nortasuna duten abesbatzek denboran irautea, baldin eta ez badute erakunde edo talde “handiago” baten babesik, eta horrek egonkortasuna eta euskarria ematen

badie, gutxienez, proiektuei, zuzendaritza-lidergoari eta oinarritzko azpiegiturei; adibidez: ikastetxeak, abesbatzak edo aipatutako izaera erlijiosoko zentroak (hezkuntzakoak edo kultuzkoak), edo musika-irakaskuntzako zentro espezializatuak. Aurrerago itzuliko naiz honetara.

Lerro hauek idazteko neure buruari ezartzen diodan AMIA diagnostiko labur honen barruan, nire ustez haurren eta gazteen abesbatza-jardueraren denboran betikotzen laguntzen ez duten ahuleziak eta mehatxuak aipatuz jarraitzen dut.

Gizarteak ondo baino hobeto onartzen du “osasuna = kirola” ekuazioa. Eta, hain zuzen ere, jarduera fisikoa esponentzialki handitu da gure artean, bizitzan zehar garapen eta hazkunde pertsonalaren ezinbesteko zati diren beste jardueraren mota batzuk lekuz aldatu ondoren, hala nola osasun emozionala bera, non zuzenean eragiten dion hezkuntza artistikoari eta, horren barruan, musikari.

Izan ere, pertsonak, jaiotzen denean, eta jaio aurreko fasean ere, erantzuten dion lehen estimuluetako bat soinua eta zarata dira. Gomendagarria da, halaber, gero eta helduagoak izan ahala, erritmoari, dantzari, musika-praktika koralaria edo instrumentalari lotutako jardueraren fisikoa. Neurozientziak aurreratzen digun musika-hezkuntzaren garrantziari eta abesbatza batean kantatzearen bertutei buruzko etengabeko aipamenak ikusi besterik ez dago.

Musika korala praktikatzeko, beharrezkoak dira konstantzia, lana, ahalegina eta konpromisoa, gutxieneko emaitza lortzeko. Gure haurrak, nerabeak eta gazteak gainaktibitate baten mende daude, eta horrek ez du jardueraren mota hori egitea errazten. Eta musika ere ez da arrotza gure kultura-ondarearekin zerikusia duten bestelako jarduerak duten “bokazio” faltatik, dantza tradizionalerako, eta, oro har dantzako, adierazpen artistikoko taldeetan ikus daitekeen bezala. Are gehiago gizonezkoen esparruan.

Politika publikoaren ikuspegitik, abesbatzaren musika-jardueraren orokorra bi estamentutan lantzen da:

- Jaurlaritzako Kultura Saila, Aldundietako Kultura Sailak, udal-arloko kultura sailak.
- Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, derrigorrezko irakaskuntzetako, araututako irakaskuntza espezializatuetako (kontserbatorioak) eta musika-eskoletako curriculumaren diseinuen bidez.

Gure administrazioen **kultura-politikan**, jardueraren hauek garatzen dira nagusiki:

- Elkarre-sareak antolatzen dituen zuzeneko dirulaguntzen edo kultura-programen bidez finantzatzea, eta finantzaketa-lehertara lehiatzea.
- Entsegu-lokalak lagatzea.
- Euskal Herriko Gazte Abesbatzaren proiektua babesten du.

Gure administrazioen **hezkuntza-politikan** oinarrituta, musikaren irakaskuntza derrigorrezko irakaskuntzetan eta irakaskuntza espezializatuetan banatuta dago:

Derrigorrezko irakaskuntzaren curriculumean presentzia urria du, eta, beraz, hezkuntza-komunitateak ez du oso ondo baloratzen. Izan ere, jakin badakigu beste garai batean familien edo beste ingurune batzuen hezkuntzaren babespean geratzen ziren hezkuntza-aspektuak bete behar dituzten ikasleentzako formakuntza eskatzen duen sistema batean curriculumak antolatzea zaila dela.

Nahiz eta derrigorrezko hezkuntzako ikastetxeek beren autonomia duten arlo artistikoan ere formaziozko zatitza jotzen dituzten jarduerak antolatzeko, errealitateak ez du erakusten ikasleekin musika korala lantzea aukera nagusien artean dagoenik.

Irakaskuntza espezializatuan, musika koralararen praktika curriculumaren diseinuan islatzen da, irakaskuntzan titulazio ofiziala lortzeko curriculumean jasotako ikasgai gisa. Praktika hori ikastetxearen identifikazio-zutabeetako batean sortzea, askotan, jardueraren horren irakasleen borondatearen eta bokazioaren mende dago. Talde honek ikusmenaren eta entzumenaren ikuspegitik erakargarriagoak diruditen beste talde mota

batzuekin lehiatu beharko du, hala nola, musika banda batekin, orkestra sinfoniko batekin, jazz konbo batekin, bakarlari instrumental batekin. Agian gutxi gara hainbesterako.

Titulazio ofizialera bideratuta ez dauden Euskadiko musika-eskolen sorrera eta funtzionamendua arautzen duen dekretuak, koru-praktika ere jasotzen du hezkuntza-eskaintzaren barruko baterako jardueratzat. Hala ere, dekretuaren espirituak gehiago erakusten du instrumentu-jardunaren sustapena, koruarena baino. Arrazoa argia zen: idazteko unean, gure ikastetxeetako errealitate instrumentalak instrumentu polifonikoen nagusitasuna erakusten zuen, hala nola pianoa, gitarra eta sinfonikoren bat, biolina kasu. Beharrezkoa zen musika-talde klasikoak (orkestrak, bandak) sortzen lagunduko zuten bestelako instrumentuen eskaintza eta eskaria bultzatzea, bai eta sustraiko musika eta dantza tradizionala eta musika modernoak hezkuntza-proposamen honetan jasotzea ere.

Errekonozimendurik ez izate horretan eragina du, halaber, artearekiko maitasunagatik jarduten dutenak egoteak, eta pertsona horiek lanez oso gainezka egoten dira. Hori arazo bat da. Gainera, gero eta zuzendari gutxiago gara. Lehen, urtean hamar edo hogeitaz lagunak amai zezaketen formakuntza; orain, bik bakarrik. Eta formakuntza-ikastaroak egin nahi dituztenentzat laguntza batzuk dauden arren, oso jende gutxi baliatzen ditu, ez dakit beldurratik edo ezjakintasunagatik. Nik beti animatzen ditut burbuilatik atera eta beste kantu eta formazio giro batzuk esperimentatzera, hori beti da aberasgarria.

2023ko ekainaren 12a

Julia Foruria

Gaudeamus Koralararen zuzendaria (Gernika)

Oro har, nahiko ezkorra naiz abesbatzen egoerari dagokionean. Koruetan abestea modatik pasatu dela iruditzen zait. Duela urte batzuk Gernikan sei abesbatza zeuden; orain bi baino ez daude. Urtero parte hartzen genuen kontzertuziklo bat ere bazegoen, baina desagertu egin da.

Gaudeamus Koralar²⁵ dagokionez, etsipengarria eta atsekabegarria da jende eta errekonozimendu falta ikustea. Egia da jaiotza-tasa gero eta txikiagoa dela, eta, beraz, haur gutxi dago eta, gainera, mila jardueratan banatuta daude. Nire ustez, familiek apur bat “itotzen” dituzte neska-mutilak eskolaz kanpoko jarduerekin. Gure koruan, adibidez, oso zaila da astegunetan entseguak egitea, Gernikako eskolek ordutegi desberdinak dituztelako eta irteteko ordutegiak eta eskola-egutegiak bat ez datozelako. Gaudeamuseko kide gehienak kontserbatoriotik pasatzen dira edo igaro dira, baina ez da kontserbatorioriko abesbatza ofiziala. Kontserbatorioan haur abesbatza bat dago, baina Maila Profesionalera

pasatzean, instrumentu polifonikoak jotzen dituztenek korua egin behar dute, eta, beraz, Gaudeamusera etortzen dira. Hala ere, horietako asko entseatzera bakarrik etortzen dira eta ez dituzte kontzertuak abesten, ez zaielako interesatzen; ez dira abesbatzan integratzen.

Zentzu horretan, uste dut diziplinak huts egingen duela. Oro har, ez haiek ez haien familiek ez dute abesbatzan parte hartzeko ardurarik, eta uste dute “huts egin daitekeela” entsegu batean, abesbatzan beste 40 pertsona daudelako. Nire kasuan, entsegu gehigarriak programatzen ditut ostiraletan, jende berria prestatzeko eta larunbatetako ohiko entseguetan arreta handiagoa jartzeko, baina ez dut ikusten interesik dagoenik, nahiz eta bidaiak, irteerak edo kontzertuak egin agertoki garrantzitsuetan, hala nola Bilboko Arriaga Antzokian. Gainera, horrelako ekitaldi garrantzitsu bat dagoenean, badirudi neska-mutil asko azken bi egunetan entseguetara etortzearekin konformatzen direla, baina ez diet uzten, ikaskideekiko errespetuagatik eta partiturak ez dakizkitelako. Koru batek ez du horrela funtzionatzen, guztion inplikazioa funtsezkoa da. Pertsona bat falta denean, hobeto edo okerrago egin, gainerako kideek hutsunea nabaritzen dute. Koruaren oinarria komunitatea da, berehalako emaitzarik lortzen ez duen sakoneko lana suposatzen duena.

Era berean, iruditzen zait gure lana gutxiago baloratzen dela beste jarduera batzuekin alderatuta, beti eskatzen zaigulako malgutasuna, futbol-taldeek, adibidez, ez dutena, eta hori haiek dedikazio-ordu gehiago eskatzen dituztelarik. Ordutegiak bat datozenean, koruak bere plangintza aldatu behar du beti, ez da inoiz alderantziz gertatzen.

Aitortzari dagokionez, triste da ikustea zure hirian bertan, “kulturaren hiri” gisa iragarrita, oraindik badirela Gaudeamus abesbatzaren berri izan ez dutenak, 30 urteko jardueraren ondoren zer egiten dugun edo nola lan egiten dugun ez dakitenak. Iaz kontzertu berezia antolatu genuen Gernikako bonbardaketaren 80. urteurrena ospatzeko, Jon Artetxe gernikarra-

²⁵ Txosten hau ixteko datan, 2023ko urriaren 4an, Gernikako Gaudeamus Korala abesbatzak bere jarduera bertan behera utzi du.

ren errepertorioarekin. Udalak ez zigun inolako laguntzarik eskaini, eta ez zen laguntzeko pres-tasunik izan. Ekitaldi ofizialetan parte hartzen dugu, baina gero badirudi ez garela existitzen. Erakundeekiko harremana asko aldatzen da une bakoitzean kargua duen taldearen arabera: batzuei gehiago interesatzen zaie kultura beste batzuei baino. Egiten dugun lana baloratze-ko hasierako interes hori baldin badago, posible da jarduerak eta ekimenak gauzatzea; bestela, ia ezinezkoa da. Dirulaguntzak jasotzeko adminis-trazio-baldintzak, gainera, gero eta zailagoak eta aspergarriagoak dira, eta askotan ez dute taldea-ren ibilbidea kontuan hartzen.

Bestalde, eskandalua da musikak eskoletan duen lekua: gero eta ordu gutxiago eskaintzen zaizkio, eta kasu batzuetan pena ematen duten jardue-kin betetzen dira (burura datorrit gela oso baten irudia flauta gozoa jotzen, eserita eta parte hartu gabe). Alde horretatik, uste dut kantua eskolan integratuta egon beharko litzatekeela, musika irakasgaiaren barruan, eta, behar izanez gero, melodiak edo koreografiak ikasi beharko lita-tekeela, baina ikasketa-planen barruan. Horre-tarako, ondo prestatu behar dira zuzendu nahi duten pertsonak, eta erraztasunak eman behar zaizkie musikako irakasleei zuzendari gisa treba daitezen ordu batzuk liberatuz, aparteko zama-rik gehitu gabe eta, gainera, gastuak ordainara-ziz. Aldi berean, iruditzen zait musikako irakas-leak ez direla inplikatzeko beren ikastetxeetan: oso erraz uzten zaituzte botata ikasturte amaie-rako jaialdian, edo aparteko orduak eskatzen dizkizute edozein arrazoirengatik...

Hala ere, konponbideak goitik etorri behar due-la uste dut, eta inposatu egin behar dela. Interes-garria litzateke, adibidez, Abesbatzen Elkar-teak abesbatza guztientzako nahitaezko jarduketan zirkuitu bat antolatu ahal izatea, maila artistikoa edozein dela ere, kontzertu berean haur, gazte edo helduen taldeak parte hartuz. Horrek, guz-tiontzako bultzada eta motibazioa suposatuko luke, familien eta gizartearen aurrean jarduera ikusaraztea lortzeaz gain.

Maite Oca

Irakaslea eta abesbatza zuzendaria (Hondarribiko Musika eta Dantza Eskola, eta Musikene)

Ez daukat informazio nahikorik Euskal Herriko haur eta gazte abesbatzen egoera orokorrari bu-ruzko datuetan oinarritutako erantzuna emate-ko, baina, agian, lekukotasunik eza da gai honen inguruan kontuan hartu beharreko elementue-tako bat. Hau da, haurren eta gazteen abesbatza-munduak masa-mailako komunikazioaren es-parruan (salbu eta Facebookeko, Instagrameko eta abarretako kontu espezifikoetan gertatzen bada) duen presentzia (edo gabezia) pixkanaka-ko *decrecendo* bat ikustea bezala da: kultura > musika > koru-kantua > haurren koru-kantua.

Nolanahi ere, nahiz eta kulturaren hedapen es-kasak ez duen laguntzen musika hutsetik harata-go doan jarduera gisa ikusarazten eta balioesten, uste dut hori ez dela gaur egun haur abesbatzek duten erronka nagusia. Normalean gertatzen den bezala, hainbat zirkunstantziren baturak eragiten du egoera bat indartzea edo lausotzea. Gure kasuan, hauek dira horietako batzuk: jaiotza-tasaren jaitsiera; eskolaz kanpoko jardue-ren eskaintza oso zabala; ostiraleko 16:30etatik aurrera beren aisialdia arriskuan jarri nahi ez duten familien ehuneko handi bat; berehalako emaitzak lortzeko jarrera (ia) obsesiboa (eta ez naiz haurrengan pentsatzen ari); ahaleginaren balioa... nora joan zen? Nork ezkutatu zuen?; irakaskuntza orokorreko curriculumetan, kan-tatzeak beste *decrecendo* progresibo bat egiten du Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara. Musika-eskoletan, ohikoa da beren alaba hara eramanez duten familietako batzuek, Musikak “gauza asko” ekartzen dizkiela uste dutelako, galdera hau tonu maltzurrez egitea: “Eta zer-gatik egin behar du korua ere?”. Ez dakit Abes-batzen Zuzendaritzako Gradua espezialitateko programazioetan haurren koru-kantuari buruz-ko atalen bat ba ote dagoen.

Ez dut gogoan Hondarribian *Eskifaia Txiki* zu-zentzen hasi nintzenean (1980an sortu zen, *Hondarribiko Eskifaia Abesbatza* abian jarri ondoren) haurren segmentuari zuzendutako

proposamen kolektiborik zegoenik, eta horrek erraztu egin zuen herritarren artean jarduerarekiko interesa piztea.

Bestalde, duela 40 urte inguruko bizitzak beste “tempo” batzuekin funtzionatzen zuen, eta, adibidez, obra baten muntaian izandako aurrerabidearen bilakaera gozamenerako motiboa zen haur taldearentzat, beharbada orduan hezkuntza-planteamendu hori familia- eta eskola-ingurunean ere ohikoa zelako. Familiak koruaren bizitzari buruz etengabe informatuta zeuden, baina ez zuten antolaketan edo zuzendaritzan parte hartzen, gurasoei, oro har, kosta egiten baitzaie begirada alabaregandik kentzea korua kolektibogisa ulertzeko, eta niretzat hori funtsezkoa zen (eta da). Zorionez, beti izan nuen haien konfiantza, eta uste dut haien seme-alabengan koruarekiko ikusten zuten jarrerak sostengatzen zuela.

Kontuan izan behar da, halaber, urte haietan kantatzea ohikoa zela. Eta ez naiz kantu koralarri buruz ari. Abestiek beren espazioa bermatuta zuten, modu naturalean edo espontaneoan, bai eskolan, bai etxean, kalean... Eta horrek alde handia dakar egungo gizarte-ohiturekin alderatuta.

Ikusten dudana beste desberdintasun bat da duela 30-40 urteko Gipuzkoako testuinguruan mugitzen ginen haur abesbatzak, gutxi ginen arren, bakoitzak bere nortasuna zuela erreperitorio motari, kantu estiloari, janzkerari, eszenaratzeari... dagokienez. Aspalditik dakusat nolabaiteko uniformetasuna abesbatza batzuen egiteko moduan, beren jarduteko moduagatik erreferentzetzat jotzen dituzten beste haur-talde batzuen proposamen musikalak, eszenikoak eta abar erreproduzitzen saiatzen baitira.

Begi-bistakoa dela uste dudana arren, “kontraindikazioen prospekturik gabe” gailu elektronikokoak sartu izana eta herritarren artean horiek erabiltzea (gehiegikeriaz ere) aipatuko dut era berean. Hain zuzen ere, garatzen ari diren automatismoengatik, eta bereziki haurren eta gazteen adin-tarteei eragiten dietelako, uste dut beharrezkoa dela gizarte- eta hezkuntza-proposamenak bultzatzea, bizi dugun panorama hain

lau eta indibidualista hori, bizipen artistiko eta emozionalaren bidez orekatzeko.

Zuzendariaren figurari dagokionean, gure ustez, onerako edo txarrerako, abesbatzaren bilakaera maila guztietan markatzen du abesbatza zuzentzen duenak: bokala, musikala, formakuntzakoa, emozionala, jarrerazkoa, estetikoak, eszenikoak...

Txundigarria da, baina hala da.

Zuzendaritza-ikastaroetan norbaitek “Ez, nik ez dut zuzentzen; beno, bai, baina haur-abesbatza bat...” esanez aurkezten duenean bere burua (eta esaldia eskuaren hegal moduko batekin laguntzen duenean), esan behar zaio, dauden abesbatza-talde mota guztien artean, guztietan garrantzitsuena eta zailena zuzentzen ari dela. Baita delikatuena eta sortzaileena, nekagarriena eta esker onekoena ere. Haurrekin lan egitea behe-ragoko kategoriakoa izatearen estereotipo hori irauli egin behar da. Eta abesbatzen mundutik bertatik hasi behar dugu, bide batez.

Beti defendatu izan dut haur-koru batek, *a priori*, “ez duela sabairik”, eta hura gidatzeko ardura dugun pertsonak garela, gure mugekin edo gaitasunekin, norabide egokiagoetara edo ez hain egokietara eramango dugunak. Logikoa denez, zuzendariaren formakuntza eta gaitasun didaktikoa hobetu ahala, bidea argiago zehaztuta egongo da, eta helburuak betetzen joango dira, lortu ezineko frustraziorik sortu gabe.

Baina, era berean, gaineratu nahi dut “ibiliz egiten dela bidea”; hau da, oinarritzko ezagutza batzuetatik abiatuta, eta zuhurtziaz, grinaz, ikasteko eta irakasteko gogoz, eta gure proposamen eta ekintzek taldean sortzen dutena arretaz eta hobetzeko borondatez behatuz, lan polita egin daitekeela beharrezko formakuntza osatzen doan bitartean.

Abesbatzen Elkartek ematen dituen urratsen atzean (gai honi eta beste batzuei dagokienez) dagoen dedikazioa eta profila ezagutzen ditut; beraz, uste dut, nahiz eta asko pentsatu, ez dudala ezer bereizgarri eta esanguratsurik ekarriko, baina hona hemen zenbait ohar:

- “Sekretua, pasioa da” (Elisa Roche).
- Nire ustez, mugimendu eraldatzaileak bi mailatan gertatzen dira, biak beharrezkoak eta osagarriak: batetik, instituzionala, eta, bestetik, pertsonala edo komunitarioa. Beraz, abesbatzen munduarekin modu batera edo bestera inplikaturak gauden guztiok urratsak eman ditzakegu egungo egoera iraultzen saiatzeko. Bartzuetan, egiten ari zarenarekin berriro ilusionatzea aurrerapen bat izan daiteke, eta, gainera, eragin biderkatzailea du ingurunean.
- Irakaskuntzen etapak eta modalitateak arautzen dituzten hezkuntza-legedietan, Haur Hezkuntzatik Hezkuntzako Gradura, eta musika-eskoletatik Musikenera, uste dut hobekuntza-eremu esanguratsua dagoela kantu kolektiboaren praktikaren tratamenduari dagokionez.
- Abestu beharreko obrak aukeratzea oso garrantzitsua da edozein abesbatzaren garapenean, baina are garrantzitsuagoa da haurren taldeen testuinguruan. Gure abesbatzetako haurrak jarduerari “imantatuta” egotea nahi badugu, errepertorioa arreta handiz eta mimoz bilatzea da zutabeetako bat. Ezaugarri desberdinetako partiturak behar ditugu (bide batez, konposizioan eta edizioan aritzen direnak beren espezialitateetako profesionalak direlako, erosi beharrekoak): folkloreak kanten harmonizazioak, poparen, rockaren eta abarren munduko abestiei buruzko moldaketak, eta, batez ere, testu iradokitzaileak dituzten material sortu berriak, haurrak izaki adimentsuak bezala tratatzen dituztenak.
- Asoziazionismoak garrantzi handiagoa izango balu musikan dihardugunon artean, haurren eta gazteen koru-kantua garatzeko onuragarriak diren proiektuak, trukeak eta bestelako ekimenak bultzatzen ere lagunduko luke.

Gorka Miranda

Easo Abesbatzako zuzendari artistikoa eta “Pasaia Musikal” Pasaia Udal Musika Fundazio Publikoko zuzendari kudeatzailea

Haur eta gazte abesbatzen mugimenduaren garrantzia ukazina da

Haur eta gazte abesbatzetan parte hartzeak esperientzia aberasgarri eta iraunkorra eskaintzen die haur eta gazteei euren ahots-prestakuntza eta musikala txikitatik garatzeko.

Hala ere, arlo musikalez haraindiko eragina dauka. Abesbatza batean kantatzeak ez du soilik parte-hartzaileen garapen sozial eta emozionala sustatzen, baizik eta taldean lan egiteko, beste haurrekin elkarlanean aritzeko eta komunikaziorako gaitasunak garatzeko aukera ematen die ere. Ingurune seguru honek emozioak adieraztea eta euren autoestimua indartzea ahalbidetzen die, eta diziplina eta konpromisoaren bidez heziketa integrala osatzen laguntzen du.

Gainera, koruetan parte hartzeak balioak eskuratzea bultzatzen du, hala nola lankidetzaren, errespetuaren, ardura eta enpatia. Haurrek eta gazteek modu aktiboan entzuten eta beren kideekin elkarlanean aritzen ikasten dute, eta horrek nagusi den indibidualismoari aurre egiten dion gizarte kontziente eta konprometitua osatzen laguntzen du.

Bestalde, haur eta gazte abesbatzen papera funtsezkoa da kultura ondarearen kontserbazio, sustapen eta transmisiorako. Koru-diziplinarekiko esposizio goiztiar eta aktiboaren ondorioz, abesbatza horietako kideak musikaren eta kulturaren kontsumitzaile irrikatsu bihurtuko dira, eta haien eragina familietara ere zabalduko da.

Azken batean, haur eta gazte abesbatzak tresna eraginkorrak dira gizarte-dinamika kohesionalak eta orekatuak sustatzeko, eta gizarte aberastuak beren parte-hartze aktiboarekin, ekitatiboarekin eta elkarlanarekin, gizarte aurreratu bat garatzen lagunduz.

Elkarte-mugimendu koralaren krisia

Abesbatzen munduak erronka garrantzitsuei egin behar izan die aurre azken hamarkadetan, besteak beste, parte-hartzea murriztea, sektorea zahartzea, finantza-arazoak, lidergo eraginkorraren eskasia, musika-lehentasunen aldaketak eta erakundeen babesik eza. Errealitate soziokultural berrira egokitzeko estrategiarik eza nabaria da, eta, nahiz eta abesbatzen sektorean dinamismo-eredu desberdinak sustatzen ari diren, badirudi horiek testuingurutik eta sektore hori sortu eta sendotu zen erreferenteetatik kanpo daudela.

Lehenik eta behin, ezagutzak transmititzeko eta koralista berriak prestatzeko konpromisorik eza nabarmena da, eta horrek mugimenduaren aniztasunari eta bizitasunari eragiten dio. Iraunkortasuna bermatzeko, funtsezkoa da komunitatearekiko konpromiso sakonagoa eta epe luze-rako ikuspegia ezartzea, benetako lidergo koralaren garrantzia aitortuz. Gaur egun, lidergo hori zuzendariaren ikuspegi pertsonalistegia ardatz duen eta kolektiboa alde batera uzten duen eredu batean oinarritzen da nagusiki. Horrek, batetik, iraun dezaketen eta prestakuntza, profesionalizazioa eta komunitate-dinamika sendoak sustatzen dituzten proiektuak zailtzen ditu; bestetik, sinergia endogenoak soilik sustatzen ditu, sortutako baliabide berri urriak kontsumitzen dituztenak eta koralista berriak etengabeko nonahitasunera eramaten dituztenak, sektorea autofagozitatzerara kondentatuz.

Hautemandako ahultasunaren aurrean, abesbatza profesionalak sortzea planteatzeko ideia sortu da. Hala ere, proposamen hori akatsa izan liteke, sektorearen oinarria indartu beharrean, are gehiago ahultzeko arriskua izango lukeelako. Funtsezkoa da oinarri hori finkatzea eta zabaltzea, eta, horretarako, haien kudeaketa- eta zuzendaritza-eremuak profesionalizatzea, abesbatza profesionalak sortzea kontuan hartu aurretik. Bestela, kalitate handiko abesbatza profesionalak izan genitzake, baina ez genuke horiek balioesteko eta baloratzeko moduko publikorik izango.

Krisi horren aurrean errepikatzen den beste planteamendu bat da koru-dinamikak indartzeko erantzukizuna erregimen orokorreko ikastetxeetara eramatea. Hala ere, arazoak eta eraginkortasun eskasekoak izan daitezke erregulazio-errealitateak sortzen dituen zailtasunak, baita errotze falta eta ikastetxe horietako irakasleen prestakuntzarik eta esperientziarik eza. Koru-kantua formalizatu gabeko hezkuntza-bideak eta -baliabideak erabiltzen dituzten balioen, ohituren, ondarearen eta prestakuntza-alderdien transmisioari hertsiki lotutako gertaera bat da, eta, transmisio esanguratsua izateko, beharrezkoa da irakasleek esperientzia pertsonala eta bizipenezkoa izatea eta eskola gainditzeko gaitasun handia izatea, prestakuntza oso espezifiko eta espezializatu izateaz gain. Eta araubide orokorreko ikastetxeek ez dituzte aukera horiek, araugintza-errealitateak, sustraitze-faltak eta irakasleen prestakuntza eta esperientzia espezializaturik ezak sortzen dituzten zailtasunengatik.

Haur eta gazte abesbatzen sektorea indartzeko gakoak

Mugimendu korala biziberritzeko ekintza posible bat elkartearen mugimendua araubide bereziko ikastetxeekin lotzea izan liteke. Horiek belaunaldien arteko errotzea landu dezakete eta, horrekin batera, transmisio-katea indartu. Era berean, zentro horien erregulazio-esparruak eskaintzen duen malgutasunari esker, testuingurura eta egoeretara erabat eta etengabe egokitu daitezke.

Hala ere, nire ustez, honako ekintza hauei ekin beharko litzaieke nagusiki:

- Haurren eta gazteen abesbatzetako arduradunen profesionalizazioan eta prestakuntzan eragitea, musikaren eta dinamikaren eskumen-alderdiei dagokienez.
- Lidergo eraginkorra eta prestakuntza- eta komunitate-estrategietan oinarritutakoa praktikatzeko duten zuzendarien ahalduntzearen alde lan egitea.

- Haurren eta gazteen abesbatza-mugimendua bultzatzen duten abesbatzen garapena sustatzea, haien kudeaketa- eta administrazio-arloak profesionalizatuz.
- Trakaktorizazio-politikak gauzatzea, kultura-sustatzaileen eta ikastetxeen ekimenen bidez, haur eta gazteen abesbatzen kantuaren aldeko ekimenak konbentzitu eta susta ditzaten, elkarteek horiek garatzeko konpromiso autonomoa har dezaten.
- Koru-sektorearen eta federazio-mugimenduen egituraketa eta kohesioa bultzatzea.

2023ko urria

Enrique Azurza

Bilboko Koralkartearen, KEA Ahots Taldearen eta Tolosako Hodeiertz Abesbatzaren zuzendaria; Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen presidentea ohia.

Joan den mendeko azken hamarkadetan, Euskal Herriko koru-tradizioak bultzada handia izan zuen, hainbat talderen sorrerarekin, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren babesean Euskal Herriko Abesbatzen Federazioen sorrerarekin (EAE Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren ekimenez sortu zen), eta zuzendariak eta errepertorioa prestatzeko antolatu ziren abesbatza-tailerrak eta ikastaroak egitearekin. Garai hartan, haurrentzako eta gazteentzako abesbatza ugari sortu zen.

Harrezkero, gure gizartea izugarri aldatu da, eta, horrekin batera, gure koru-mugimendua ere bai. Gaur egun, arazo larriak ditu: abesbatzak zahartzen eta horietako asko desagertzen ari dira, gizonezkoen ahotsik eza, eta gazteen eta haurren abesbatza gutxi izateak eragindako errelebo nahikorik eza.

Salbuespen nabarmenak gorabehera, koru-jarduerak, oro har, aspaldikotzat jotzen dira, modaz pasatakotzat, eta sakrifizio pertsonal handia eskatzen dute. Musikaren munduan bertan, eta hezkuntza-eremuan, instrumentua gailentzen

da abesbatzaren eta bokalaren gainetik, eta koru-jarduera bigarren maila batean geratzen da maiz, “sutsu menderaezin” batzuen esparrura mugatuta, “heroikoak” ez esateagatik.

Arazo guztiak ez datoz kanpotik. Nire ustez, autokritika bat egin behar da: oro har, euskal mugimendu koralk barne-antolaketa falta eta bultzada korporatibo eskasa izan ditu azken hamarkadetan aldaketak eta inbertsioak eskatzeko eta proiektu estimulatzaile eta ilusionatzaileak proposatzeko orduan. Uste dut azken urteotan nabarmen hobetu dela abesbatza-federazioen eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen kanpo-pertzepzioa (horren erakusgarri da txosten hau bera egotea), eta espero dut aurrerantzean gai izatea gure arazo nagusiei konponbideak proposatzeko.

Nire ustez, haur eta gazteen abesbatzetan gai izan behar dugu:

- Lehendik dauden taldeetan “harrobiko” abesbatzak sortzea edo indartzea sustatzeko.
- Kantu korala eskola eta institutueta praktikatzea nolabait sustatzeko.
- Musika Eskoletan kantu korala irakaskai intrusismoari aurre egiteko, horrek kalte handia eragin baitio kantu koralkaren irudiari hezkuntza-eremuan.
- Eskolako abesbatza-txapelketak edo -lehiaketak ezartzeko, kirolaren esparruan egiten den antzera, abesbatza-praktika sustatzeko bide gisa.

Epe ertainean, sektorearen bilakaera logiko gisa, koru-kantua profesionalizatzeko esparruak sortzeko eta gure inguruko beste herrialde eta eskualde aurreratuago batzuekin parekatzeko gai izan behar dugula uste dut.

Azken urteotan, prestakuntza handiko abeslari hautatuz osatutako kamera-abesbatzak sortu dira, zuzendari bikainen eskutik emaitza profesionalak ematen dituztenak. Bilakaera horretan, hurrengo urrats saihestezina abesbatza profesionalak sortzea izan behar du. Abesbatza horiek gure herrialdeko koru-piramidearen gailurra

izan behar dute, euskal koruaren tradizioa bikaintasun- eta berrikuntza-maila berrietan kokatu behar dute, gizarteak planteatzen dizkigun erronka berrien aurrean indartuz.

2023ko urria

Txabern Fernández

Arriaga kontserbatorioko Abesbatza irakaslea (Bilbo)

Lau urte daramatzat Gradu Profesionaleko ikasleek osatutako abesbatzak zuzentzen, eta hau da Oinarrizko Gradu ikasleei zuzentzen dieran lehen ikasturtea. Hala ere, orkestra-zuzendari-tzarekin lotura handiagoa dut abesbatzen munduarekin baino, eta iruditzen zait ez dudala sakon ezagutzen euskal abesbatzen errealitatea.

Oro har, Gradu Profesionaleko ikasleen artean interes handiagoa sumatzen dudala esango nuke, agian adin handiagoa dutelako. Funtsezko arazoa da irakasgaia ez dela tresna nagusiarekin garatzen, eta, askotan, instrumentu-espezialitateko irakasle batzuek ez diotela behar besteko garrantzirik ematen.

Egia da Kantuko Sailarekin kolaborazioak egiten ditugula, bere abesbatza propioa baitu, zarzuela eta opera ekoizpen txikiak burutuz. Adibidez, musikari gisa formakuntza integrala lortzeko tresna izaki, uste dut kantuari garrantzia eman beharko litzaiokeela.

Hala ere, nire esperientzia pertsonal eta hurbilak esaten dit haurtzaroaren eta nerabezaroaren artean galdu egiten direla abesteko ohitura eta gustua. Agian arrazoi bat da “melodia gal-tzen dela”. Haur txikiek etengabe abesten dituzte kantak (jolasean, ikaskuntzan...), ia beti, melodikoak. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen nerabezaroan eta, gainera, horri musika “errezi-tatua” entzuteko gustua gehitu behar zaio (rap, trap, etab.). Horri dagokionez, uste dut familie-

tan kantatzeko zaletasunak pisu handia duela etorkizunean kantatzeko gustuan.

2022ko azaroaren 15a

Mertxe Astuy

Jesus Guridi Kontserbatorioko Abesbatza irakaslea (Gasteiz)

Kantuko irakaslea naiz, eta 2022/2023 ikasturtean Oinarrizko Gradu Korua ikasgaiko sei talde eraman ditut, bakoitza hogeiki kide ingurukoa, eta Gradu Profesionaleko Korua irakasgaiko bi talde, bakoitza 23 kide ingurukoa. Guztira, ia 170 haur eta gazte. Baldintzek, oro har, apurbat “erreta” egotea eragiten dute.

Urte hauetan antzeman dudana arazo nagusia da gure haur eta gazteek ez dutela abesten, ez eguneroko bizitzan, ezta, askotan, instrumentu nagusia prestatzeko tresna gisa kontserbatorioan ere. Egia da musika asko entzuten dutela, bakoitzak gehien gustatzen zaion estilokoa, baina ez dute kantatzen. Horregatik, uste dut horietako askok sentitzen dutela ez direla gai abesbatza batean abesteko.

Bestalde, kontserbatorioko Korua irakasgaia “marizat” hartzen da, eta are larriago, baita irakasle batzuen aldetik ere. Izan ere, aparteko entsegu edo beste jarduera baterako denbora atera behar bada, irakasgai horri dagozkion orduak dira ordeztzen direnak.

Egia da, nire kasuan, batzuetan koruak “harrobi” gisa balio izan duela ikasle batzuk ostera kantua ikastera animatzeko. Edonola ere, eta horiek dinamizatze aldera, baliagarria izan liteke zonakako abesbatzen zerrenda bat edukitzea, nolabaiteko interesa erakusten duten neska-mutilak eskakizun ertaineko koru baten kide izatera animatzeko.

2022ko azaroaren 15a

II. ERANSKINA. ERROLDA-DATUAK AZTERTZEKO ERABILITAKO TAULAK

1. multzoa. Estatistika-datu orokorrak

Abesbatzaren izena	
Probintzia	
Udalerria	
Federazioa	Gipuzkoako Abesbatzen Federazioa
	Bizkaiko Abesbatzen Federazioa
	Arabako Abesbatzen Elkartea
	Arabatxo
	Federatu gabea
Abesbatzaren profila	Erregimen orokorreko irakaskuntza: ikastetxe publikoa
	Araubide orokorreko irakaskuntza: itunpeko ikastetxea
	Araubide bereziko irakaskuntza arautua: kontserbatorioa
	Araubide bereziko irakaskuntza arautu gabea: musika-eskola publikoa
	Araubide bereziko irakaskuntza arautu gabea: musika-eskola pribatua
	Elkarateak
	Besteak

2. multzoa. Alderdi dinamikoak eta eskumenekoak

Kideak	<i>1 aldagaia: sexua</i>	Mutilak
		Nesakak
	<i>2 aldagaia: adin-tartea</i>	6-12 urte
		13-18 urte
		19-23 urte
>24 urte		
Errepertorioa	Ahots kopurua	Ahots 1
		2 ahots
		3 ahots
		4 ahots
		>4 ahots
	Akonpainamendua	A capella
		Pianoa
		Organoa
		Orkestra
		Tresna-multzoa
	Osaketa	Ahots berdinak
		Ahots mistoak
	Emanaldiak	<i>1 aldaera: kokapena</i>
Probintziakoa		
Erkidegokoa		
Estatukoa		
Nazioartekoa		
<i>2 aldaera: kudeaketa mota</i>		Autokudeatua
		Hirugarrenek ekoitzia

3. multzoa. Zuzendaritzaren profila

Musika-irakaskuntza arautuen tituluak	<i>1 aldagaia:</i> irakaskuntza-mota	Koru-Zuzendaritza
		Orkestra-Zuzendaritza
		Kantua
		Musika-pedagogia
		Beste musika-espezialitate batzuk
	<i>2 aldagaia:</i> irakaskuntza-maila	Goi Mailako Gradua
		Goi Mailako Titulua (66ko plana)
		Gradu Profesionala
		Erdi Maila (66ko plana)
Arautu gabeko musika-irakaskuntzen akreditazioak	3. maila	Koru-Zuzendaritza
		Kantua
Ikastaroak	Zuzendaritza-Akademia (Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea)	1. maila
		2. maila
		3. maila
	Euskadiko abesbatzen federazioak	
Abesbatzen zuzendaritzarekin lotutako beste ikastaro batzuk		
Lan-arabidea	Autonomoa	
	Lan-kontrataduna	
	Bitarteko funtzionarioa	
	Karrerako funtzionarioa	
	Borondatezko lotura	

4. multzoa. Egitura eta antolaketa

Entsegu tokia	Kide den ikastetxean	
	Lokala jabetzan	
	Udalak lagata	
	Erakunde pribatuek lagata	
	Parrokia-lokala	
	Bestelakoak	
Matrikulazio-araubidea	Dagokion ikastetxeko matrikula orokorrean sartutako jarduera	
	Koruan parte hartzeko matrikula espezifikoak ordaintzea	
	Bazkide kuota bidezko ordainketa	
	Matrikulazio-araubideari lotu gabeko jarduera	
Abesbatzari lotutako profesionalak (zuzendaria izan ezik)	<i>1. aldagaia:</i> profesional mota	Egitura eta antolaketa
		Pianista edo erreperitorista
		Ahots teknika
		Beste profesional batzuk
	<i>2. aldagaia:</i> lotura-mota	Lanekoa
		Borondatezkoa
Finantzaketa	Dirulaguntzak	Udalak
		Aldundiak
		Eusko Jaurlaritzak
		INAEMek
		Besteak
	Aurrekontuaren jatorria (ehunekoa)	Barrukoa
		Kanpukoa

BIBLIOGRAFIA

- Anshel, A. & Kipper, D. A. (1998). The influence of group singing on trust and cooperation. *Journal of Music Therapy*, XXV(3), 145-155.
- Ariño, A. (2004). Asociacionismo, ciudadanía y bienestar social. *Papers: revista de sociología*, 74, 85-110.
- Bagüés, J. (1993). La música coral entre los vascos: una tradición vigente. *Cuenta y Razón*. Nov-Dic.
- Balsnes, A. (2012). Choral singing, health and quality of life: The story of Diana. *Arts Health* 4(3), 249-261.
- Balsnes, A. H. (2018). Singing for a better life: Choral singing and public health. In *Music and Public Health* (pp. 167-186). Springer, Cham. doi: 10.1007/978-3-19-76240-1_11
- Bailey, B. A., & Davidson, J. W. (2002). Adaptive characteristics of group singing: Perceptions from members of a choir for homeless men. *Musicae Scientiae*, 6(2), 221-256. doi: 10.1080/17533015.2012.656202
- Barrett, M. S., & Zhukov, K. (2022). Choral Flourishing: Parent and child perspectives on the benefits of participation in an excellent youth choir. *Research Studies in Music Education*, 1321103X2211150. <https://doi.org/10.1177/1321103X221115080>
- Beck, R. J., Cesario, T. C., Yousefi, A., & Enamoto, H. (2000). Choral singing, performance perception, and immune system changes in salivary immunoglobulin A and cortisol. *Music Perception*, 18(1), 87-106. doi: 10.2307/40285902
- Bolívar, G.A & Elizalde, A. (2011). Capital Social y Capital. *Polis, Revista de la Universidad Bolivariana*, 10(29), 2-8.
- Bonamino, A., Alves, F., & Franco, C. (2010). Os efeitos das diferentes formas de capital no desempenho escolar: um estudo à luz de Bourdieu e de Coleman. *Revista Brasileira de Educação*, 15(45), 487-499
- Clements-Cortés, A. (2014). Buddy's Glee Club Two: Choral singing benefits for older adults. *Canadian Journal of Music Therapy*, 20(1), 85-109.
- Bullack, A., Gass, C., Nater, U., & Kreutz, G. (2018). Psychobiological Effects of Choral Singing on Affective State, Social Connectedness, and Stress: Influences of Singing Activity and Time Course. *Frontiers in Behavioral Neuroscience*, 12, 223. doi: 10.3389/fnbeh.2018.00223
- Carbonell, J. Aportaciones al estudio de la sociabilidad coral en la España Contemporánea. *Hispania*, LXIII/2(214), 485-504.

- Clements-Cortés, A. (2015a). Clinical effects of choral singing for older adults. *Music & Medicine*, 7(4), 7-12.
- Clements-Cortés, A. (2015b). Singing for health, connection and care. *Music and Medicine*, 7(4), 13-23.
- Clift, S. & Hancox, G. (2001). The perceived benefits of singing: findings from preliminary surveys of a university college choral society. *Journal of the Royal Society for the Promotion of Health*, 121(4), 248-256.
- Clift, S., & Hancox, G. (2010). The significance of choral singing for sustaining psychological wellbeing: Findings from a survey of choristers in England, Australia and Germany. *Music Performance Research, Royal Northern College of Music*, 3(1), 79-96.
- Clift, S., & Morrison, I. (2011). Group singing fosters mental health and wellbeing: Findings from the East Kent 'singing for health' network project. *Mental Health and Social Inclusion*, 15(2), 88-97. doi: 10.1108/20428301111140930
- Clift, S., Manship, S., & Stephens, L. (2015). *Singing for mental health and well-being: Findings from West Kent and Medway*. Canterbury: Canterbury Christ Church University.
- Clift, S., Gilbert, R., & Vella-Burrows, T. (2017). Health and well-being benefits of singing for older people. In *Music, Health and Wellbeing: Exploring Music for Health Equity and Social Justice* (pp. 97-120). Palgrave Macmillan. doi: 10.1057/978-1-349-95284-7_6
- Cohen, N. S. (1993). The application of singing and rhythmic instruction as a therapeutic intervention for persons with neurogenic communication disorders. *Journal of Music Therapy*, 30(2), 81-99. doi: 10.1386/ijcm.1.3.319_1
- Cohen, M. L. (2019). Choral Singing in Prisons: Evidence-Based Activities to Support Returning Citizens. *The Prison Journal*, 99(4_suppl), 106S-117S. doi: 10.1177/0032885519861082
- Creech, A., Hallam, S., Varvarigou, M., Gaunt, H., McQueen, H., & Pincas, A. (2014). The role of musical possible selves in supporting subjective well-being in later life. *Music Education Research*, 16(1), 32-49. doi: 10.1080/14613808.2013.788143
- Csikszentmihalyi, M. (2014). *Flow and the foundations of positive psychology*. New York: Springer. doi: 10.1007/978-94-017-9088-8
- Davidson, J. W., & Faulkner, R. (2010). Meeting in music: The role of singing to harmonise carer and cared for. *Arts & Health*, 2(2), 164-170. doi: 10.1080/17533010903488608
- Delsard, V. (1998). El Origen y los primeros pasos del Orfeón murciano Fernández Caballero. En Carbonell, J. (Coord.) *Els orígens de les associacions corals a Espanya* (pp.135 – 142). Barcelona: Oikos-Tau.
- Dingle, G. A., Brander, C., Ballantyne, J., & Baker, F. (2013). 'To be heard': The social and mental health benefits of choir singing for disadvantaged adults. *Psychology of Music*, 41(4), 405-421. doi: 10.1177/0305735611430081
- Einarsdottir, S., & Gudmundsdottir, H. (2016). The role of choral singing in the lives of amateur choral singers in Iceland. *Music Education Research*, 18(1), 39-56. doi: 10.1080/14613808.2015.1049258
- Elorriaga Llor, A. J. (2011). La continuidad del canto durante el periodo de la muda de la voz. Tesis doctoral. Universidad Autónoma de Madrid, disponible en: <https://repositorio.uam.es/handle/10486/7818> (consulta: 2023/02/06)
- Eyre, L. (2011). Therapeutic chorale for persons with chronic mental illness: A descriptive survey of participant experiences. *The Journal of Music Therapy*, 48(2), 149-168. doi: 10.1093/jmt/48.2.149
- Fernández-Herranz, N. (2013). *Las agrupaciones corales y su contribución al bienestar de las*

- personas: percepción de las aportaciones del canto coral a través de una muestra de cantores. Tesis doctoral. Universidad Carlos III de Madrid. Madrid.
- Fernández-Herranz, N., Corraliza, J. A., & Ferreras, S. (2017). Las agrupaciones corales en España: espacios para la convivencia y la educación musical. *Revista Internacional de Educación Musical*, (5), 17-29.
- Ferrer, R., Puiggalí, J., & Tesouro, M. (2018). Choral singing and the acquisition of educational values. *International Journal of Music Education*, 36(3), 334-346.
- Fogg-Rogers, L., Buetow, S., Talmage, A., McCann, C. M., Leão, S. H., Tippett, L., ... & Purdy, S. C. (2016). Choral singing therapy following stroke or Parkinson's disease: An exploration of participants' experiences. *Disability and Rehabilitation*, 38(10), 952-962. doi: 10.3109/09638288.2015.1068875
- Freer, Patrick K. (2007). Between research and practice: how choral music loses boys in the 'middle': we can use research-based knowledge and instruction to attract and keep boys in middle school choir. *Music Educators Journal*, 94 (2), 28-34.
- Freer, Patrick K. (2010). Two decades of research on possible selves and the 'missing males' problem in choral music. *International Journal of Music Education*, Volume 28 (1), 17-30, <https://doi.org/10.1177/025576140935134>
- Fu, M., Belza, B., Nguyen, H., Logsdon, R., & Demorest, S. (2018). Impact of group-singing on older adult health in senior living communities: A pilot study. *Archives of Gerontology and Geriatrics*, 76, 138-146. doi: 10.1016/j.archger.2018.02.012
- Good, A., & Russo, F. A. (2016). Singing promotes cooperation in a diverse group of children. *Social Psychology*, 47(6), 340-344. <https://doi.org/10.1027/1864-9335/a000282>
- Goodwin, S. (2019). *Prison Choirs and Choirs for those Experiencing Homelessness: Landscape and Social Justice Impact in the United States* (Doctoral dissertation, American University).
- Gridley, H., Astbury, J., Sharples, J., & Aguirre, C. (2011). Benefits of group singing for community mental health and wellbeing: survey and literature review. Victorian Health Promotion Foundation, Carlton, Australia.
- Guereña, J. L. (1998). De París a Barcelona (1993-1996). El Proyecto Sociedades musicales y cantantes. En J. Carbonell y J. Guberna (Coord.), *Els orígens de les associacions corals a Espanya*. Barcelona: Oikos-Tau.
- Hays, T. (2005). Well-being in later life through music. *Australasian Journal on Ageing*, 24(1), 28-3. doi: 10.1111/j.1741-6612.2005.00059.x
- Hays, T., & Minichiello, V. (2005a). The contribution of music to quality of life in older people: An Australian qualitative study. *Ageing and Society*, 25(2), 261-278. doi:10.1017/S0144686X04002946
- Hinshaw, T., Clift, S., Hulbert, S., & Camic, P. M. (2015). Group singing and young people's psychological well-being. *International Journal of Mental Health Promotion*, 17(1), 46-63.
- Ibarretxe, G. (1999, 9-24/10-1). Movimiento coral y nacionalismo vasco. *Eusko-news&Media* 47.zbk. <https://www.eusko-news.eus/zbk/47/movimiento-coral-y-nacionalismo-vasco/ar-0047001003C/#>
- Johnson, J. K., Louhivuori, J., & Siljander, E. (2016). Comparison of well-being of older adult choir singers and the general population in Finland: A case-control study. *Musicae Scientiae*, 21(2), 178-194. doi: 10.1177/1029864916644486
- Johnson, J. K., Stewart, A. L., Flatt, J. D., Max, W. B., Gregorich, S. E., Acree, M. M., & Nápoles, A. (2020). A Community Choir

- Intervention to Promote Well-Being Among Diverse Older Adults: Results From the Community of Voices Trial. *The Journals of Gerontology. Series B, Psychological Sciences and Social Sciences*, 75(3), 549-559. doi: 10.1093/geronb/gby132
- Jordana, J. (2000). Instituciones y capital social: ¿qué implica qué? *Revista Española de Ciencia Política*, 1(2), 187-210.
- Kliksberg, B. (2006). Capital social y cultural, claves del desarrollo. *Cuadernos Latinoamericanos de Administración*, 2(2), 5-32.
- Koza, J. E. (1993). The 'missing males' and other gender issues in music education: Evidence from the music supervisors' journal, 1914-1924. *Journal of Research in Music Education*, 42(3), 212-232.
- Kreutz, G., Bongard, S., Rohrmann, S., Hodapp, V., & Grebe, D. (2004). Effects of choir singing or listening on secretory immunoglobulin A, cortisol, and emotional state. *Journal of Behavioral Medicine*, 27(6), 623-635.
- Judd, M., & Pooley, J. (2014). The psychological benefits of participating in group singing for members of the general public. *Psychology of Music*, 42(2), 269-283. doi: 10.1177/0305735612471237
- Lally, E. (2009). 'The power to heal us with a smile and a song': Senior well-being, music-based participatory arts and the value of qualitative evidence. *Journal of Arts and Communities*, 1(1), 25-44. doi: 10.1386/jaac.1.1.25_1
- Lamont, A., Murray, M., Hale, R., & Wright-Bevens, K. (2018). Singing in later life: The anatomy of a community choir. *Psychology of Music*, 46(3), 424-439. doi: 10.1177/0305735617715514
- Lindl, C. B. (2018). Chinese American adolescent identity in a children's choir: An exploratory study. *Bulletin of the Council for Research in Music Education*, (218), 35-48.
- Lips, H. (1979). Iniciación a la técnica vocal, en *Cursos Internacionales de Dirección Coral*, Lleida, s. n., s. p.
- Livesey, L., Morrison, I., Clift, S., & Camic, P. (2012). Benefits of choral singing for social and mental wellbeing: Qualitative findings from a cross-national survey of choir members. *Journal of Public Mental Health*, 11(1), 10-26. doi: 10.1108/17465721211207275
- Lynch, J., & Wilson, C. (2018). Exploring the impact of choral singing on mindfulness. *Psychology of Music*, 46(6), 848-861. doi: 10.1177/0305735617729452
- Moss, H., Lynch, J., & O'donoghue, J. (2018). Exploring the perceived health benefits of singing in a choir: An international cross-sectional mixed-methods study. *Perspectives in Public Health*, 138(3), 160-168. doi: 10.1177/1757913917739652
- Nagore, M. (1998). El Origen de las Sociedades Corales en el País Vasco. En Carbonell, J. (Coord.): *Els orígens de les associacions corals a Espanya* (pp. 143-156). Barcelona: Oikos- Tau.
- Nagore, M. (2001). Un aspecto del asociacionismo musical en España: las sociedades corales. *Cuadernos de Música Iberoamericana*, 8-9, pp. 211-226.
- Nercelles, L.; Centeno, D. (2020). Muda vocal: el proceso de cambio de la voz durante la pubertad, *Revista Mexicana de Pediatría*, 87 (4), 153-157.
- Nilsson, L., & Herrman, M. (2016). Intergenerational learning - Children singing along with older people - Possibilities and complications in a project context. *Advances in Social Sciences Research Journal*, 3(1), 187-200. doi: 10.14738/assrj.31.1760
- Nonte, Sonja; Krieg, Maria; Stubbe, Tobias C. (2021). Is gender role self-concept a predictor for music class attendance? Findings from secondary schools in Lower Saxony (Germany). *Psychology of Music*, 50 (5), 1460-1476.

- Nyquist, D., & Nicholas, K. (2017). Aging and the healing power of choral music: A community-responsive evaluation of vintage voices. In *Arts Evaluation and Assessment: Measuring Impact in Schools and Communities* (pp. 99-115). Springer International Publishing.
- Ortega, A. G. (2010). La muda de voz en niños cantores y no cantores, *Huellas*, 7, 87-93.
- Parada Vázquez, R. & Fuentetaja Pastor, J. A. (2019). *Derecho de la función pública*. Madrid: Civitas.
- Putnam, R. (1993). The prosperous community. *The American Prospect*, 4(13), 35-42.
- Restrepo, P. P. (1998). Capital social, crecimiento económico y políticas públicas. *Lecturas de Economía*, 48(48), 33-65.
- Sandgren, M. (2009). Evidence for strong immediate well-being effects of choral singing—With more enjoyment for women than for men. In *ESCOM 2009: 7th Triennial Conference of European Society for the Cognitive Sciences of Music*.
- Shakespeare, T., & Whieldon, A. (2018). Sing Your Heart Out: Community singing as part of mental health recovery. *Medical Humanities*, 44(3), 153-157. doi: 10.1136/medhum-2017-011195
- Shortt, S. E. D. (2004). Making sense of social capital, health and policy. *Health Policy*, 70, 11-22.
- Skingley, A., & Vella-Burrows, T. (2010). Therapeutic effects of music and singing for older people. *Nursing Standard*, 24(19), 35-41. doi: 10.7748/ns2010.01.24.19.35.c7446
- Skingley, A., & Bungay, H. (2010). The Silver Song Club project: Singing to promote the health of older people. *British Journal of Community Nursing*, 15(3), 135-140. doi: 10.12968/bjcn.2010.15.3.46902
- Stacy, R., Brittain, K., Kerr, S. (2002). Singing for health: an exploration of the issues. *Health Education*, vol. 102, n° 4, pp. 156-162.
- Tamplin, J. (2008). A pilot study into the effect of vocal exercises and singing on dysarthric speech. *NeuroRehabilitation*, 23, 207-216.
- Tan, J., Tsakok, F. H., Ow, E. K., Lanskey, B., Lim, K. S. D., Goh, L. G., ... & Loh, M. (2018). Study protocol for a randomized controlled trial of choral singing intervention to prevent cognitive decline in at-risk older adults living in the community. *Frontiers in Aging Neuroscience*, 10, 195. doi: 10.3389/fnagi.2018.00195
- Unwin, M. M., Kenny, D. T., & Davis, P. J. (2002). The effects of group singing on mood. *Psychology of Music*, 30(2), 175-185. doi: 10.1177/0305735602302004
- Van Aswegen, R. & Potgieter, H. (2010). Folk music for children's choirs: the challenges and benefits of cultural diversity, *Journal of the Musical Arts in Africa*, 7:1, 51-78, DOI: 10.2989/18121004.2010.619687
- Van Camp, Leonard (1987). The Choral Crisis and a Plan for Action (An Open Letter to My Colleagues), *The Choral Journal*, 28 (5), 15-20.
- Welch, G.F. (2006). Singing and Vocal Development, en *The Child as Musician: handbook of musical development*. New York, Oxford University Press, pp. 311-329.
- Williams, E., Dingle, G. A., & Clift, S. (2018). A systematic review of mental health and wellbeing outcomes of group singing for adults with a mental health condition. *European journal of public health*, 28(6), 1035-1042. doi: 10.1093/eurpub/cky115
- Young, A. E., Cornacchio, R., & Hamon, R. R. (2019). Sing for the Moment: A Choral Ensemble for Persons with Dementia and Their Care Partners: Program Profile. *Journal of Intergenerational Relationships*, 17(1), 110-117. doi: 10.1080/15350770.2019.1551644
- Zumbansen, A. et al. (2017). Effect of choir activity in the rehabilitation of aphasia: a blind, randomised, controlled pilot study. *Aphasiology*, 31(8), 879-900.

